

eus Jak[•]in 214

herria kultura hizkuntza maiatza-ekaina
2016

Erabakitzeko eskubidea

Hegoaldeko azken haustekundeetan nagusitzen ari diren hiru alderdiek erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen dute. Baina nola ulertzen dute zehazki EAJ, EH Bildu eta Ahal Duguk erabakitzeko eskubidea? Eta Gure Esku Dago ekimenak zertan oinarritzen eta nola garatzen du?

ZELAI NIKOLAS
MARIO ZUBIAGA
ANGEL OIARBIDE
IÑIGO URRUTIA

XABIER BARANDIARAN
JONE ETXEBERRIA
LAURA PÉREZ RUANO

GAIAK

Protagorasen erlatibismoaren defentsa
ANDONI OLARIAGA

EGUNEN GURPILEAN

MIREN ARTETXE · HENRIKE GALARZA
TXERRA RODRIGUEZ · GORKA JULIO

Jakin^{•eus}214
herria kultura hizkuntza maiatza-ekaina
2016



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joan Mari Torrealdai

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre, Haizea Barcenilla, Harkaitz Cano, Xabier Eizagirre,
Idurre Eskisabel, Patxi Juaristi, Joanmari Larrarte, Maialen Lujanbio,
Imanol Murua, Andoni Olariaga, Olatz Osa, Gexan Sors,
Joan Mari Torrealdai, Eguzki Urteaga

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92

jakin@jakin.eus

www.jakin.eus



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



*Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

7

GAI NAGUSIA Erabakitzeko eskubidea

- 11** Erabakitzeko eskubidea: erabakiaren aroa kudeatzeko tresna
Zelai Nikolas • Mario Zubiaga
Angel Oiarbide • Iñigo Urrutia

Erabakitzeko eskubidea 90eko hamarkadatik zenbait herri-burujabetza prozesu demokratikoki kudeatzeko erabiltzen hasten den kontzeptua berria da, oraindik ere eratzen ari dena, eta autodeterminazioa eskubidetik zenbait desberdintasun ditu. Teoriak eskubide horren inguruan garatu duen arrazoi bilduma jasotzen da, ahaztu gabe herritarren esku dagoela kontzeptu hori osatzea, erabakiaren aldarria ariketen bidez gauzatuz.

- 49** Herri eskubideak eta estrategia politikoak
Xabier Barandiaran

Espainiako transizio politikoan euskal abertzaleen baitan adierazten den antagonismoak erabakitzeko eskubidearen herri estrategia ahuldu du. Egun bizi dugun egoera politikoak, iraganeko estrategia eta erakundetzeen maila bateko agorpenak eta gizarte errealitatearen aldaketak ezinbesteko egiten dute eskubide horren inguruko herri estrategia baten birpentsatzea.

- 71** Jabetzeko eta burujabetzeko
Jone Etxeberria

Erabakitze-eskubidearen aldarrikapenean egitura menperatzaileak erradikalki aldatzeko nahia islatzen den heinean, herri-estrategia eraginkorraren bidez, Euskal Estatua izateko boterea eraiki, eskuratu eta berreraikitzeko eta Euskal Estatua burujabetzaz harilkatutako oihala bilakatzeko bidean urratsak eman ahal izateko tresna paregabea dugu.

85 Prozesu konstituziogileak, gizarte ahalduntzea eta erradikaltasun demokratikoa

Laura Pérez Ruano

Erabakitze eskubidea osotasunean onar dadin, Ahal Duguk herritarren prozesu konstituziogile parte hartzaileak sustatzearen aldeko apustua egiten du, herrialde egitasmo berri bati molde legal eta juridikoa eman eta gobernatzeko modu berri bat ekarriko diotena, non erabakitze eskubideak bakean, duintasunez eta askatasunean bizitzeko eskubide osoa jasoko duen.

GAIAK

101 Protagorasen erlatibismoaren defentsa

Andoni Olariaga

Mendebaldeko lehen erlatibistatzat hartzen den Protagorasen pentsamendua berraztertzen da. Izan ere, gaur egun pil-pilean dagoen erlatibismoaren auziari heltzeko gakoak aurki daitezke Protagorasen erlatibismoan.

EGUNEN GURPILEAN

125 Kultura

Miren Artetxe

132 Ekonomia

Henrike Galarza

138 Soziolinguistika

Txerra Rodriguez

144 Telepolis

Gorka Julio

KONTRAZALA Unai Iturriaga

RIGHT TO DECIDE

Right to decide: a tool for administering the decision-making era

Zelai Nikolas, Mario Zubiaga, Angel Oiarbide and Iñigo Urrutia, members of the Gure Esku Dago popular initiative, put forward the arguments developed by the theory surrounding the right to decide –a new concept which, since the 90s, has started to be used to democratically administer a range of popular sovereignty projects–. It is still currently in the gestation stage and differs somewhat from the right to self-determination. [Zelai Nikolas](#) • [Mario Zubiaga](#) • [Angel Oiarbide](#) • [Iñigo Urrutia](#)

National rights and political strategies

Xabier Barandiaran, Cabinet Head of the Provincial Council of Gipuzkoa and a member of EAJ-PNV, argues that the antagonism that has existed among nationalist forces since the time of Spanish political transition has weakened a national strategy regarding the right to decide. The current political situation, partial exhaustion of strategies and institutionalisation from the past and the changes that have taken place in the social situation make it essential to consider a new approach to national strategy regarding the right to decide. [Xabier Barandiaran](#)

Empowerment and self-empowerment

Jone Etxeberria, the person in charge of socioeconomics at Sortu and member of the EH Bildu Socioeconomics Committee, argues that, insofar as demands for the right to decide reflect the desire to radically change prevailing structures, this may prove to be an exceptional tool that can be used to take steps towards obtaining and building a sovereign Basque State. [Jone Etxeberria](#)

Constituent processes, social empowerment and democratic radicalism

Laura Pérez Ruano, General Secretary of Podemos-Ahal Dugu of Navarra, argues that, for the right to decide to be fully recognised, Podemos-Ahal Dugu is committed to fostering citizens' and participative constituent processes that may give legal form to a new project for the country and a new form of governance in which the right to decide includes the full right to live in peace, dignity and freedom without coercion. [Laura Pérez Ruano](#)

DEFENCE OF PROTAGORAS'S RELATIVISM

Andoni Olariaga, a graduate in Philosophy and member of the Jakin Editorial Board, analyses the thoughts of Protagoras, considered to be the first relativist thinker in the West. The author defends the fact that the main keys to dealing with such a topical issue today as relativism can be found in Protagoras's relativism. [Andoni Olariaga](#)

NEWS TODAY

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, economic, sociolinguistic and communication matters. This section draws on various specialists: Miren Artetxe, Henrike Galarza, Txerra Rodriguez and Gorka Julio. [Various authors](#)

Zertaz ari gara erabakitzeko eskubideaz ari garenean? Zer da? Zertarako balio du? Zer erabakitzeko? Herri burujabetza da? Herritarren burujabetza? Noiz eta nola egikaritu behar da?

Erabakitzeko eskubidea askoren ahotan dabil Gure Esku Dago erabakitzeko eskubidearen aldeko ekimena abian jarri zenetik bereziki, orain hiru urte, 2013ko ekainean. Ez da auzi berria, baina 2014an Etxarri Aranatzan eta Arrankudiagan egin ziren herri galdeketeekin, eta, oraintsu, Goierrin, Debagoienan, Aramaion, Ispasterren eta Azpeitian egin direnekin, 135.000 bat herritar izan dira deituak 'nahi al duzu izan euskal estatu independente bateko herritar?' galderari 'bai' edo 'ez' erantzutera. Datorren urterako beste 60 herri baino gehiagoko herritarren txanda iragarri da dagoeneko. Beraz, jada, egikaritzen ari den eskubide bat da; eta nahiz eta balio legalik ez izan, balio politiko eta sinbolikoa ukaezina da. Bidearen garrantzia, kasu honetan, emaitzen 'ofizialtasunarena' baina askoz garrantzitsuagoa da, bistan denez.

Baina nondik dator eta zertara erabakitzeko eskubidea? Zelai Nikolas, Mario Zubiaga, Angel Oiarbide eta Iñigo Urrutiak gaiaren nondik norakoak argitu dituzte artikulu mamitsu, argigarri eta oinarrizko batekin. Erabakitzeko eskubideak dituen oinarri filosofiko, juridiko eta sozialak xehatzeaz gainera, kontzeptu hori osatuz eta aberastuz joatea herritarroi dagokigula diote, eta hain zuzen «erabakiaren aroan» bizi garen honetan ezinbesteko tresna da geure buruak kudeatzeko.

Eta zergatik galdetu, hala ere, zertaz ari garen erabakitzeko eskubideaz ari garenean, jada arian ari garen honetan? Datorren udazkenean Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egingo diren hauteskundeen ondotik, Hegoaldeko indar politikoen artean lehen hirurak erabakitzeko eskubidearen aldekoak izango dira: EAJ, EH Bildu eta Ahal Dugu. Gehiengo, beraz. Eta, hala ere, galdera egin behar da, zertarako, noiz erabiltzeko, non, nola. Izan ere, hiru indar horiek nork bere ideiaro politiko propioaren eta bere helburu politikoen arabera ulertzen du erabakitzeko eskubidea. Horregatik, Xabier Barandiarani (EAJ), Jone Etxeberriari (EH Bildu) eta Laura Pé-

rez Ruanori (Ahal Dugu) eskatu diegu erabakitzeko eskubideaz ari direnean zertaz ari diren azal dezaten.

Xabier Barandiaranek Espainiako trantsizio politikotik gaur egunera arte herri eskubideen aitortza eta erakundetzeak izan dituen oztopo eta eragozpenak ez ezik, egungo egoera soziopolitiko berriak proposatzen dituen zailtasunak ere aztertzen ditu. Bere hitzetan, «trantsizio eta krisi une batean aurkitzen gara, nahiz eta etorkizunera begira argirik ere baden». Abertzaleen elkarlanerako gaitasunetik egingo da aurrera erabakitzeko eskubidearen erakundetzean.

Jone Etxeberriak, bestalde, erabakitze eskubidea egikaritzea gauza konplexua dela dio, egungo testuingurua ere halaxe delako. Baina argi ikusten du eskubide horren integritasuna: «herritarrok geure etorkizuna erabakitzeko dugun eskubideaz» ari da, bai herri burujabetzaz, euskal estatuaz, baina baita herri burujabe horren nolokotasuna erabakitzeko eta egikaritzeko eskubideaz ere, biak batean, edo biak elkarri lotuak, nola eta balizko euskal estatu independenteak ez duen egungo ordena ekonomiko eta soziala erreproduzitu, aldatuko baizik, demokratikoagoa eta justuagoa izan dadin.

Ahal Dugu alderdiko Laura Pérez Ruanok ere, beste modu batera, baina antzeko ideiak harilkatzen ditu. Diferentzia estatu independenteari dagokionean legoke. Pérez Ruanorentzat berritu beharreko estatu hori Espainiakoa da –«herrien herri eta nazioen nazio»–, eta Espainiaren berritze demokratiko horretan egikaritu behar dira erabakitzeko eskubideak baita herri burujabetzari dagokionean ere.

Unai Iturriagak 'erabakia baita' gogorarazi digu, 'emak bakia baita' haren oihartzuna berrasmatuz. Erabakia bakia ote?

Atal horren ostean, Andoni Olariaga *jakinkide* eta filosofian doktore gaiak erlatibismoaren gaineko artikulu sakona osatu du. Protagorasen pentsamendua berraztertzen du, gaur egun indarrean dagoen erlatibismoa eta horren gaineko begirada anitz eta kontraesankorrak ulertu eta argitzeko gakoak, ezinbestean, filosofo greziarraren diskurtsoan daudelako.

Egunen gurpilean saileko aurtengo lau lankideak datoz, ondoren, bakoitzak bere esparruko gaurkotasunari tiraka: Miren Arretxek Kulturean, Henrike Galarzak Ekonomian, Txerra Rodriguezek Soziolinguistikan eta Gorka Juliok Telepolisen.

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

11 Erabakitzekeo eskubidea: erabakiaren aroa kudeatzeko tresna

Zelai Nikolas
Mario Zubiaga
Angel Oiarbide
Iñigo Urrutia

49 Herri eskubideak eta estrategia politikoak

Xabier Barandiaran

71 Jabetzeko eta autojabetzeko

Jone Etxeberria

85 Prozesu konstituziogileak, gizarte ahalduntzea eta erradikaltasun demokratikoa

Laura Pérez Ruano

Erabakitzeke eskubidea: erabakiaren aroa kudeatzeko tresna

Zelai Nikolas
Mario Zubiaga
Angel Oiarbide
Iñigo Urrutia

Gure Esku Dago herri ekimeneko kideak

Aurre solasa

Erabakitzeke eskubidea lantzen hasi ginenean material gutxi zegoen kontzeptu horri buruz. Autodeterminazio eskubidea zen beren estatus politikoaren erabakiari heltzeko herriek hurbilen zuten kontzeptua, eta gehienbat nazioarteko zuzenbidearen ikuspegitik landu izan da, eremu ideologiko ia guztietatik.¹

Gaur egun, ordea, gero eta ikerlan gehiago dugu erabakitzeke eskubideari buruz,² etorkizuna beren esku hartzea erabaki duten herrien esperentziei esker. Hor ditugu Quebec, Eskozia, Katalunia..., baita Ipar Irlanda eta Groenlandia ere; eta, nola ez, gu ere bai, Euskal Herria.

XX. mendearen azken hamarkadaz geroztik sortu ziren estatu berrien sezesio prozesuek³ ere elikatuko dute erabakitzeke kontzeptua. Baina, zein berrikuntza dakar erabakitzeke eskubideak? Hori da ondoko lerroetan azaltzen saiatuko garena.

Erabakitzeko eskubidea gero eta onarpen handiagoa duen kontzeptua da, bide bat eskaintzen dielako herriei beren askapenerako auziak demokraziaren joko arauen esparruan kudeatzeko. Erabakitzeko eskubidearen kontzeptuak bi oinarrizko ideia biltzen ditu bere baitan: herrien askatasun nahia gauzatzea –autodeterminazio eskubideak aitortzen duena– eta Demokrazia (letra larriz idatzita), hau da, herri bakoitzak bere bidea egiteko borondate hori bide demokrati-koetatik gauzatzea. Nolabait esateko, erabakitzeko eskubideak autodeterminazio printzipioa demokratizatzen du.

Mundu mailako aldaketa handietan, Euskal Herriak beti lortu du modu batean edo bestean parte hartzea eta mundu mailako gogoeta horiek Euskal Herrira ekartzea. Bada, autodeterminazio eskubidea demokratizatzeke prozesua ere gurean oso modu naturalean bizitzen ari gara.

Euskal Herrian Lizarra-Garaziko Akordioan⁴ (1998) hasi ziren kontzeptu horren elementuak zirriborrotzen.⁵ Udalbiltzak 2002an Tolosan onartutako *Euskal Herriaren Eskubideen Karta*-n⁶ ere azaldu zen erabakitzeko eskubidearen kontzeptua, eta 2004an Ibarretxeren Estatutu Politiko berrian⁷ (2004) berariaz arautu zen. Azken testu horrek Quebecen aldebakarreko sezesioari buruz Kanadako Auzitegi Gorenaren irizpenak⁸ (1998) biltzen zuen doktrinaren aplikazio zuzena egin zuen euskal kasura.

Horrez geroztik, eztabaida politikoan eta landu diren hainbat dokumentu politikotan gero eta pisu handiagoa hartuz joan den kontzeptua da. Azpimarragarria da horien guztien artean Loiolako Akordio Politikoa⁹ (2006), alderdi desberdinen artean lortutako adostasun mailagatik.

Gaur egun gizartean guztiz hedatuta dagoen kontzeptua da erabakitzeko eskubidea, bizi-bizirik. Are gehiago esan dezakegu, agenda politikoaren lehen mailako gaia bihurtu da; halako garrantzia hartu du, ezen erabakitzeko eskubidearen inguruan akordioa lortzeko gaitasunik ezak ekarri baitu Espainiako hauteskundeak errepikatu behar izatea.¹⁰ Erabakitzeko eskubidearen inguruko adostasunean datza, askoren

iritziz, Espainiako estatuak bere trantsizio demokratikoari heldu ahal izatea ala ez.

Baina zer da erabakitzeke eskubidea? Zertarako balio du Euskal Herriaren burujabetza prozesuan? Nola erabiltzen da?

Galdera horien azterketan sartu baino lehen, gogora ekarri behar dugu 'erabakitzeke eskubidea' osatzen ari den kontzeptu politikoa dela, eta, beste eskubide guztien kasuan gertatu bezala, eraikuntza hori elkarreragin konplexu baten emaitza dela: eragile politikoen proposamenak, auzitegien ebazpenak, ikerketa akademikoak, eta, batez ere, herritarren praxiak eta hizpideak barne hartzen dituen elkarreragina. Zentzu horretan, lan honek Gure Esku Dago ekimenaren baitan herritar talde batek prestatutako formazio materiala du oinarri, eta irakurleak eskura du www.gureeskudago.eus estekan.

Oinarri filosofiko, juridiko eta soziala

Izenburu potoloa jarri diogu atal honi, eta, egia esateko libururik oso bat idazteko beste ematen du gaiak.¹¹ Ondoko letruetan, ordea, azterketa xumeago bat egin nahi dugu. Erabakitzeke eskubidearen kontzeptua –oraindik eratze fasean dagoena– nola sortuz joan den aztertuko dugu lehenik, eta kontzeptua zedarrizten duten gako nagusiak ere azpimarratzen saiatuko gara, jakinda denon artean osatuz eta elikatuz joan behar dugula. Izan ere, Gure Esku Dago dinamikak azpimarratu nahi izan duenez, erabakitzeke eskubidea beste ezer baino lehen jarrera bat da, etorkizuna gure esku hartzeko eta elkarrekin bide hori egiteko gureganatu dugun jarrera bat.

Has gaitzen hasiera-hasieratik. Herriak kolektibitate politikoko gisa antolatzen direnean modu naturalean beren erabakiak hartzen hasten dira. Horretarako, hain zuzen, beren erakundeak sortzen dituzte. Alabaina, batzuetan beste herri batek bere erabakia inposatu nahi dio, eta horren aurrean herrien arteko gatazka sortzen da. Gatazka horiek historian *continuum* bat dira eta gehienetan indarkeriaren bidez kudeatu izan dira, herri batek besteari bere erabakia ezarriz

eta inposatuz. Horren aurrean, zanpatua sentitzen den herria bere burujabetza edo askapenerako bideari ekiten dio, eskura dituen baliabideekin.

XX. mendean,¹² bi Mundu Gerretan milaka pertsonak indarkeria eta giza eskubide urraketa oso larriak pairatu zituzten, eta, hori dela eta, kontzientzia aldaketa sakona gertatu zen mundu mailan bakearen eta demokraziaren alde.

Bakea eta demokrazia oinarri hartuta, nazioarteko harremanak bideratzeko sistema berri bat sortu zen 1945ean, hau da, Nazio Batuen Erakundea (NBE);¹³ erakunde horren eratze itunean, Nazio Batuen Gutunean, alegia, NBEren helburuen artean beren-beregi aitortu zen herrien arteko berdintasuna eta beren etorkizuna modu librean determinatzeko (erabakitzeko) printzipioa, nazioarteko bakearen oinarri gisa.¹⁴ Printzipio hori nazioarteko sistema berri horren ardatz bat bihurtu da¹⁵ eta estatuek ezin dute horren kontra jo, bestela nazioarteko zuzenbidearen kontra jardungo lukete. Autodeterminazioaren printzipio hori nazioarteko itunetan azalduko da.¹⁶ Eragina izango du estatuen arteko beste itun garrantzitsuetan ere, hala nola, Helsinkiko Azken Aktaren VIII. Atalean (1975).¹⁷

Gaur egun ezinbestekotzat jotzen da, beraz, nazioartean bakea egon dadin herrien arteko harremanetan elkarrekin errespetua zaintzea eta kidetasun harremanak garatzea horien artean, demokrazian oinarriturik eta indarkeria baztertuz. Nazio Batuetako 2.625 Erabakian (XXV) esaten da, gainera, autodeterminazio printzipio hori estatuentzat nazioarteko betebeharrak bat dela.¹⁸ Erabaki horrez geroztik, autodeterminazio printzipioak bi alderdi dituela onartzen da nazioarteko zuzenbidean: herriek estatuaren baitan bere garapenerako nahi duten estatus politikoa negoziatzeko eskubidea izan behar dutela (barne-autodeterminazioa); eta kanpo-autodeterminazioa, hau da, zenbait kasutan herri bati nazioartean zilegitasuna onartuko zaiola estatu independente bat bihurtzeko (sezesioa), bereziki deskolonizazio prozesuan dauden herriei eta estatuak ez dionean herriari bere barne-autodeterminazioa errespetatu.

Oinarri filosofiko sendoa ezartzen da, beraz, nazioartean XX. mendean, bakea demokrazia eta giza eskubideen errespetuarekin lotuz, eta paradigma berri bat sortzen da herrien burujabetza prozesuen kudeaketarako. Paradigma horri autodeterminazio eskubidea deitu izan zaio, bere bi alderdiekin: barne eta kanpo autodeterminazioa.

XX. mendean zehar, paradigma berri horren aplikazio praktikoki heldu zitzaionean, ordea, estatu bakoitzak bere errealtatearekin egin zuen topo eta konturatu ziren zenbait kasutan printzipio horren aplikazioak beren mugak arriskuan jartzen zituela. Hori dela eta, kanpo autodeterminazioaren kasuak mugatzen hasi ziren, estatuen lurralde osotasunaren printzipioa muga gisa agertuz, ondoren ikusiko dugunez.

Herriei bere estatus politiko erabakitzeko eskubidea aitortzea ideia iraultzailea da, dudarik gabe, eta estatuak ez daude prest indar iraultzaile hori bere luze-zabalean aitortzeko. Hori dela eta, estatuak hainbat ahalegin egin dute autodeterminazio printzipio horren indarra apaltzeko eta mugatzeko. Horiek horrela, estatu izaera duten herrien aldetik-horiek baitira nazioarteko erakundeetako eragile nagusiak-kanpo autodeterminazioaren printzipioa kolonia izaera zuten herrientzat mugatu nahi izan da. Hasieran herri horiei soilik aitortu nahi izan zitzaien nahikoa zilegitasun nazioarteko zuzenbidearen arabera estatu independente bat bihurtzeko. Ingurumari horretan ulertu behar dira NBEren Batzarraren 1.514 (1960), 1.541 (1960) eta 2.625 (1970) erabakiak. Erabaki horietan oinarritu da nazioarteko zuzenbidearen doktrina ofiziala kanpo autodeterminazioaren aplikazioa koloniei soilik mugatu eta beste errealtate batzuei ukatzeko.

XX. mendean paradigma berri bat sortu da herrien burujabetza prozesuen kudeaketarako. Autodeterminazio eskubidea deitu izan zaio, bere bi alderdiekin: barne eta kanpo autodeterminazioa

Hala ere, deskolonizazio prozesutik kanpo, zenbait egoera azaltzen hasi ziren,¹⁹ non genozidio eta giza eskubideen urraketa larriak eta barne autodeterminazio eskubidearen ukapen kasuak gertatzen ziren. Horien aurrean, nazioarteko doktrinari²⁰ zaila egiten zitzaion zilegitasuna ukatzea kanpo autodeterminazioaren erabilerari. Horrela, autodeterminazio eskubidearen aplikazioa kasu horietan ere justifikatuta zegoela onartzen hasten da nazioarteko komunitatea *Remedial Secession* teoriaren bidez. Hala ere, beti irizpide zorrotzei jarraituz eta horrelako egoera pairatzen duen herriaren kargu jarrita egoera horiek frogatzea.

Zilegitasuna izatea izango da, beraz, nazioarteko zuzenbideak eskatuko diona herri bati bere aldebakarreko sezesio kasua onartzeko eta nazioarteko komunitatean beste estatu baten moduan onartua izateko. Herriak arrazoi zilegi bat izan badu sezesiorako nazioarteko zuzenbidearen ikuspegitik, jatorrizko estatuak ezin izango du bere lurralde osotasunaren printzipioa alegatu herriaren sezesioaren kontra, eta herriak bere estatus politiko berriaren nazioarteko ezagutza lortu ahal izango du.

Zilegitasun eskema horretatik kanpo, hala ere, nazioarteko komunitateak onartu egiten du *de facto* gertatutako sezesio kasuak ere egon daitezkeela (bide batez esanda, gehienak bide horretatik gertatu dira). Horrelakoetan, nazioarteko komunitatearen 'bedeinkapena' jasoko da, baldin eta 'eraginkortasun printzipioa' betetzen bada. Eta zer esan nahi du printzipio horrek? Bada, independentzia aldarrikatu duen herriari eskatuko zaiola benetako kontrola edukitzea bere lurralde eta bere populazioaren gainean;²¹ eta, horrez gain, sezesio prozesuan herritarren giza eskubide urraketa larriarik eta indarkeria ez zilegirik ez eragitea. Izan ere, horrelakorik gertatuz gero, nazioarteko zuzenbidearen kontrako ekintzatzat joko litzateke.²²

Aurreko gutzia irakurri ondoren, batek baino gehiagok esango digu autodeterminazioaren paradigma berri hori nazioarteko itunetan ezarrita egon arren, egiari zor, bere aplikazioa ez dela oso koherentea izan, XX. eta XXI. mendeetan zehar

mundu mailan gatazka ugari gertatu baitira herrien zapalkuntzan oinarrituta (Vietnam, Irak, Palestina, Mendebaldeko Sahara...), eta horietan guztietan indarkeria izan baita nagusi, printzipio demokratikoaren kulturak tokirik izan gabe. Ez zaio arrazoa faltako; izan ere, nazioarteko sistemak oraindik ere hutsune handiak ditu eta oso ahul azaltzen da kasu askotan.

Hori esanda, hala ere, autodeterminazio printzipioaren paradigma berriaren sorrerak ez du horregatik bere garrantzia galtzen eta prozesu bat bezala ikusi behar da, bere gorabeherekin, jakina.

Horrela, bada, XX. mendearen bukaeran eta bereziki XXI. mendearen hasieran, aukera berri bat sortu da autodeterminazio printzipioaren paradigman urrats bat gehiago egiteko, demokraziaren printzipioaren eskutik. Izan ere, herri batzuk bere jatorriko estatutik bereizteko borondatea azaltzen hasten dira haien eskura dituzten baliabide demokratikoen bitartez, eta sezesio prozesua herritarren borondate demokratikoan oinarritzen dute, bestelako arrazoiei erreparatu gabe.

Herri horiek (Quebec, Ipar Irlanda, Groenlandia, Eskozia, Katalunia, Euskal Herria...) zailtasunak dituzte nazioartek kolonia gisa²³ eta, beraz, autodeterminazio subjektu gisa onar ditzan. *Remedial Secession* kasuren batean daudenik ere ez da erraza nazioarteko komunitateak onartzea, estatuaren barruan autogobernu maila zabala lortu baitute eta giza eskubideen urraketa larririk²⁴ pairatzen dutenik ere ez baitie nazioarteko komunitateak onartuko. Hala eta guztiz ere, herri horiek beren estatus politikoa askatasunez erabakitzeke determinazioa adierazi dute eta beren estatuetatik bereizteko borondatea gauzatzeko aukera herritarren borondate demokratikoan oinarritzen dute, besterik gabe.

Herri horiek –eta datu hau bereziki azpimarragarria da– politikoki egituratuta daude autogobernu maila dena delako baten bidez, eta beren herri borondatea adierazteko tresna demokratikoak badituzte (legebiltzar eta gobernu propioa, bertako alderdi politikoak, gizarte antolatu bat, herritar ahaldunduak...). Herri horietako herritarrek burujabetza ariketa

baten bidez erabaki nahi dute zer nolako harreman politikoa nahi duten estatuarekin, eta ariketa hori bide guztiz bakesu eta demokratikoetatik egin nahi dute, jakin badakitelako burujabetza prozesuak oso konplexuak direla, eta bide demokratikoak zilegitasuna ematen diela bai herriaren baitan behar duten adostasun maila lortzeko orduan, bai nazioartean aurrean. Bide horretan aitzindari Kanadaren baitan kokatuta dagoen Quebec herria izan zen.

Erabakitzeko eskubidearen sorrera formala: Kanadako Auzitegi Gorenaren irizpidea (1998)²⁵

Quebec, bere burujabetza prozesuaren baitan, independentziari buruzko bi erreferendum egin ditu, biak Quebecoko gobernuak antolatuta eta Kanadako estatuak inolako eragozpenik jarri gabe. Lehena 1980an izan zen, eta bigarrena 1995ean.

Bigarren erreferenduma antolatzen zebiltzala, Kanadako Gobernuak hiru galdera²⁶ egin zizkion Kanadako Auzitegi Gorenari Quebecoko balizko sezesioaren legezkotasunari buruz, Konstituzioaren ikuspegitik eta nazioarteko ikuspegitik. Kanadako Auzitegi Gorenak 1998ko abuztuaren 20an eman zuen irizpena, gerora oso ospetsu bihurtuko zena.

Irizpena ederra da benetan eta osorik irakurtzea merezi du, bertatik hainbat irakaspen atera baitaitezke.

Lehena, kultura demokratikoaren garrantzia. Burujabetza auziak adostasunez kudeatzeko, gizartean ezinbestekoa da kultura demokratiko sakona izatea, horrek sortzen baitu oinarritzko orubea eta behar diren baldintzak gizartean horrelako auziak heldutasun demokratikoarekin kudeatu ahal izateko.

Bigarrena, burujabetza auziak kudeatzeko tresnari buruzkoa. Kanadako Auzitegi Gorenak, mamira sartu baino lehen, bere zilegitasuna aztertu zuen horrelako gaien inguruan iritzia emateko. Aztertu zuen ea gaia politikoa edo juridikoa ote zen; izan ere, gaia politikoa balitz, Auzitegiak ez luke eskumenik izango. Eta honako hau erabakitzen du: gai politikoa da erreferendumean pertsona bakoitzak ematen duen

erantzuna, aldekoa zein kontrakoa; baina alderdi guztiek errespetatu beharreko arau jokoak ezartzea, denek beren egitasmoak defenda ditzaten, hori ez da hautu politikoa, hori oinarri demokratikoa da eta hor zuzenbidea bete-betean sartzen da, berari baitagokio baldintzak ezartzea auzia bide baketsuetatik eta zuzenbidearen arabera bidera dadin. Erabakitzeke eskubidea, beraz, demokrazia da.

Azkenik, mamia, hau da, sezesio prozesuak estatu demokratikoetan nola bideratu. Zein dira baldintzak herri batek sezesio prozesu bat aurrera eramateko, eta zein dira estatu demokratikoak errespetatu beharreko joko arauak bere burujabetzaren eta bere lurralde osotasunaren balizko zatiketa gerta daitekeen kasuetan?

Kanadako Auzitegi Gorenaren ekarpen nagusia izan da, sezesio prozedura demokrazia printzipioarekin lotzea ez ezik, onartzea izaera demokratikoa duen estatu bateko konstituzioak sezesio prozedura bideratzeko gai izan behar duela, baldintza batzuetan; legea ezin daitekeela muga izan zilegitasun demokratiko nahikoa lortu duen eskakizun batentzat; aitzitik, bideratzeko gai izan behar duela.

Kanadako Auzitegi Gorenak bere sistema konstituzionala lau printzipiotan oinarrituta dagoela adierazten du, eta printzipio horien arabera erantzuna bilatzen du. Hauek dira printzipioak: demokrazia, federalismoa, zuzenbidearen nagusitasuna eta gutxiengoaren babesa. Printzipio horietan oinarriturik adierazten du Kanadako sistema politikoan posible dela sezesio prozesu bat legezkoa izatea (Konstituzioaren arabera), nahiz eta Konstituzioak autodeterminazio printzipioa ez jaso.

Kanadako Auzitegi Gorenaren demokrazia kulturaren arabera, estatu demokratikoetan sortzen diren zilegitasun demokratiko guztiak berdintasun egoeran kudeatu behar dira eta batek ezin du bestea ukatu. Horren ondorioz dio Quebecoko herriak independentziaren aldeko borondate demokratiko argia azaltzen badu, Kanadako estatuak ezin duela borondate hori ukatu, ezta baztertu ere. Aitzitik, onartu eta

bideratzeko gai izan behar du, eta horretarako fede oneko negoziazio prozesu bat abiatzera behartuta dago.

Kanadako kultura demokratikoan Konstituzioak oreka eta egonkortasuna zaindu behar du, eta horretarako gai izan behar du zilegitasuna lortzen duten borondateak bideratzeko. Joko arauak ezartzen ditu estatu demokratiko batean sezesio prozesu bat gauzatzeko: herriaren borondate demokratikoak abiatzen du zilegitasun osoz sezesio prozesua, eta estatuak ezin du ez debekatu ezta muzin egin ere; baina, aldi berean, herriaren borondate demokratiko hori ez da nahikoa prozesua burutzeko. Beharrezkoa da Kanada eta Quebecen artean sezesio borondate hori gauzatzeko negoziazio prozesu bat bideratzea eta negoziazioetan alde biak fede onez aritzea.

Are gehiago esaten du. Alderdiren bat fede txarrez aritzen bada, bere zilegitasuna zalantzan gera daiteke nazioarteko komunitatearen aurrean.

Kanadako Auzitegi Gorena izan zen, beraz, autodeterminazio paradigma klasikoan urrats bat gehiago egiteko aukera zabaldu zuena. Onartu zuen zalantza izpirik gabe herri batek baduela demokratikoki eta bere borondatean oinarriturik sezesio prozesu bat abian jartzeko zilegitasuna, eta horrekin ba-

Kanadako
Auzitegi Gorenak
autodeterminazio
printzipioaren paradigma
demokratizatze
bidea zabaldu zuen eta,
horrela, erabakitzeko
eskubidearen
kontzeptuaren oinarriak
ezartzen dira

tera ezarri zituen zenbait baldintza sezesio prozesuan parte hartzen duten bi alderdien arteko oreka zaintzeko, hain zuzen ere, haien arteko negoziazio prozesu baten beharra ezarriz eta bi aldeei fede onez jardutea eskatuz. Labur esanda, autodeterminazio printzipioaren paradigma demokratizatze bidea zabaldu zuen eta, horrela, erabakitzeko eskubidearen kontzeptuaren oinarriak ezartzen dira.

Kosovoko auziaren ekarpena erabakitzeke eskubidearen teoriari

Hagako Nazioarteko Auzitegiak (NBERen auzitegia dena) erabaki zuen nazioarteko zuzenbidearen ikuspegitik Kosovoko aldebakarreko independentzia-aldarrikapena legezkoa ote zen, 2010eko uztailaren 26ko irizpenean.²⁷

Hagako Nazioarteko Auzitegiak Kanadako Auzitegiaren doktrina aplikatu zuen Kosovoko auzian, eta horrela sendotu zen bere balioa horrelako auziak erabakitzeke. Bi dira erabakitzeke eskubidearen teoriari egin zizkion ekarpenak.

Lehenbizi, borobildu zuen Kanadako Auzitegiaren doktrina, zehaztuz zer nolako ondorio kaltegarriak dituen Serbiako estatuarentzat Kosovoren auzia bideratzeko borondaterik ez izatea, Kosovoren aldebakarreko independentzia adierazpenaren zilegitasuna indartu baitzuen.

Bigarrenik, autodeterminazioaren teoria klasikoak estatuarren lurralde osotasunaren printzipioari ematen zion balioa mugatu egin zuen. Hagako Auzitegiak adierazi zuen printzipio hori estatuen arteko harremanetan baino ez dela aplikagarri eta, beraz, ez dela herri baten sezesioaren zilegitasuna neurtzeko oztupo.^{28 29}

Horrela, Auzitegiak adierazi zuen Kosovoko aldebakarreko independentzia adierazpena ez zela nazioarteko zuzenbidearen aurkakoa.

Posible da, beraz, herri batek bere baliabide demokratikoen bidez aldebakarreko independentzia adierazpena egitea, eta zilegitasun maila handiagoarekin baldin eta estatuak jarrera oztopatzailea hartzen badu herri horrekiko.

Eskoziaren independentziari buruzko erreferenduma: erabakitzeke ariketaren normaltasuna

Eskoziak 2014ko irailaren 18an independentziari buruzko erreferenduma egin zuen. Normaltasun osoz egin zuen ariketa hori eta eskoziar gizartea demokratikoki sendotu egin zuen.

Eskoziaren kasuan, Erresuma Batuak eta Eskoziak adostasunaren bidez (fede oneko negoziazioa) Kanadako Auzitegi Gorenaren doktrina aplikatu zuten eta erreferenduma egiteko baldintzak ezarri zituzten. Gai izan ziren, horrenbestez, Eskoziak adierazitako independentziarako borondatea demokratikoki kudeatzeko.

Teknikoki begiraturaz gero, adostasun hori burujabetzaren behin-behineko eskualdaketaren bidez gauzatu zen, hau da, Erresuma Batuen Westminsterreko Parlamentuak (burujabetza osoa duenak) Eskoziako legebiltzarrari erreferenduma arautzeko eta antolatzeko behar zuen besteko burujabetza maila utzi zion bere esku.

Eskoziaren kasua, beraz, erabakitzeko eskubidearen teoriaren ariketa praktikoa izan da, eta azpimarragarria da gainera ariketa horren bidez gizarteak bere demokrazia-kulturan sakondu duela, gizartea sendotuz eta herritarren arteko harremanak errespetuaren bidez indartuz. Independentziaren aldeko eta kontrakoek topalekua bihurtu zen erreferenduma, eta prozesu osoaren bidez Eskoziako gizartea politikoki ahaldundu egin da. Erabakitzeko ariketaren ondorioz, herritarrek sistema politikoan interes handiagoa izatea lortu da.

Normaltasuna eta adostasuna izan ziren Eskoziako erabakitzeko ariketaren bi ezaugarri nagusiak, eta XXI. mendean horrela beharko luke izan, besterik ez.

Kanadan bezala, Erresuma Batuan ere gizarteak eta agintariek demokrazia kultura sakona erakutsi dute, eta berretsi da demokrazian normala izan beharko lukeena: erabakitzeko prozesuetan borondate politikoa da nagusi eta legea borondate hori bideratzeko tresna. Zentzu horretan, kontuan izan behar da eremu anglosaxoi-liberalean kokatzen direla aipatu bi herriak, eta, botere politikoa egituratzeko filosofia federal behetik gorakoaren arabera, batasuna beti ere kideen borondatean oinarritzen dela eta ez alderantziz.³⁰ Erabakitzeko eskubidearen gauzatze prozesuetan alde bietan zaindu behar dute beren zilegitasuna, eta erabakitzeko ariketen bidez gizarteak lortzen du demokrazia-kulturan sakontzea. Erabakitzeko eskubideak,

gizartea banatu baino, gizartea sendotu eta trinkotu egiten du, erabakiaren jabe sentitzen baita, bere etorkizunaren jabe.

Kataluniako erabakitzeko eskubidearen prozesutik zer ikasi

Euskal Herritik 600 kilometrora baino ez dagoen herri bat da Katalunia. Ahaldundu den herri bat. Bere herritarren ongizatea eta etorkizuna bermatzeko behar dituzten tresnez hornitu behar duela erabaki duen herri bat. Bere baliabideak berak kudeatu nahi dituen herri bat. Erabaki nahi duen herri bat.

Irakaspen ugari ari gara jasotzen Kataluniatik eta tentu handiz jarraitzen gabiltza beren erabakitzeko prozesua. Beldurraren estrategiari aurre egiteko gaitasuna erakusten ari dira; erosotasun egoeratik harago, elkarrekin etorkizunaren zimentarriak jartzen ari dira, eta ederrena: etorkizuna beren eskuetan dutela sinesten dute, Espainiarekiko mendekotasunik onartu gabe. Kataluniako burujabetzaren aldeko indarrak proiektu politiko ilusionagarri bat eraikitze ahaleginetan ari dira elkarrekin lanean, herritarren interesa piztu duena eta Espainiaren batasuna defendatzen dutenen proiektu eta eskaintza eza agerian utzi duena.

Kataluniatik ikasi dugu burujabetzearen aldeko bidea prozesu gisa ulertu behar dela, urratsez urrats egin beharreko bidea, urrats bakoitzak hurrengoa elikatuz. Eta, garrantzitsuena, bidean ikasiz eta gozatuz.

Eta zein dira Euskal Herriaren prozesua elikatzeari begira atera daitezkeen ondorioak? Besteak beste hauek, gure ustez:

- a) Burujabetza prozesua zilegitasun demokratikoz hornitu behar da. Katalanek badakite estatu berri bat eraiki nahi badute zilegitasun demokratiko nahikoa bildu behar dutela erabaki horren inguruan. Bi modutara ari dira hori egiten: herritarren borondatea plazaratuz eta beren erakundeak prozesua elikatzerara bideratuz. Herritarren aktibazioaren eta mobilizazioen bidez, ordezkari politikoei mandatu demokratikoak bidaltzen dizkiete

eta beren ordezkarien urratsak eta erabakiak modu zaballean babesten dituzte; bestalde, erakunde publikoen tresnak erabiliz (legebiltzarraren adierazpen instituzionalak, hauteskundeak...), prozesua forma ari da hartzen eta, ezinezkoa zirudiena, sendo ari dira eraikitzen.

- b) Herritarren aktibazioa beharrezkoa da prozesua orekatua izan dadin. Gizarte zibilak bere tresna propioak sortu edo moldatu ditu (ANC eta Òmnium Cultural, bereziki) prozesua sustatu eta babesteko, eta herritarrek aktiboki ari dira parte hartzen prozesuan tresna horien bidez, zein une garrantzitsu bizi duten jakitun. Herritarren aktibazioari esker, eragile politikoen arteko krisiak eta tentsioak gainditzen ari dira. Gizarte zibila lehen mailako protagonista bihurtu da prozesuan.
- c) Gizarte zibilak prozesua elikatu behar badu ere, eragile politikoek eta erakunde publikoek ere bere egitekoa dute prozesuan, eta oso garrantzitsua, horiek baitituzte zenbait tresna herritarren borondate demokratikoa kudeatu eta ordezkatzeko. Bakoitzak bere rol propioa bereganatuta du prozesuan, eta denen arteko oreka eta osagarritasuna da bilatu behar dena. Etorkizuna, ezinbestean, elkarrekin eraiki beharra dago, bakoitzak bere ekarpena eginez.
- e) Katalanak hasi dira beren etorkizuna elkarrekin amesteko tresnak lantzen, eta horrek egiten du prozesua bideragarri. Erabakitzeko eskubidearen debate publikoak gizartearen interesa sortzen du, eta horren adierazle da I-27ko hauteskundeetan ia %80ko parte hartze zabala. Etorkizuna denoi interesatzen zaigu, nola ez, eta horri esker politikaren ohiko jardunak dituen ahuleziak (alderdikeria, immobilismoa, iruzur kasuak...) gainditzea lortzen da, Politika letra larriz gizartean praktikatu. Eztabaida horrek, gainera, berez dakar erabakitzeko eskubidearen aldeko iritzia hedapena. Kataluniako prozesuak eman duen lehen emaitza hauxe da: une honetan erabakitzeko eskubidearen aurkako posizioa aldarrikatzen dutenak gutxiengo dira bertako gizartean eta erakundeetan.

Erabakitzeako eskubidearen ezaugarri nagusiak

Orain artekoa laburtuz, beraz, herri batek bere burujabetza prozesua abiatzeko eta bideratzeko tresna da erabakitzeako eskubidea, eta printzipio demokratikoan du bere oinarria eta funtsa. Horren ondorioz, honako ezaugarriak ditu:

- Erabakitzeako eskubidea sistema demokratikoetan *herritarrek duten eskubide bat da*, herritarra izateagatik, hau da, estatuaren burujabetzaren oinarria izateagatik. Herritarrek bizi diren komunitatearen estatus politikoari buruz bere borondate demokratikoa adierazteko eskubidea da, eta bide demokratikotik gauzatzeko eskubidea. Demokrazietan hainbat bide dituzte herritarrek beren borondatea adierazteko: beren ahotsaren bitartez, ordezkari politikoaren bidez, erakunde publikoaren bidez, hauteskundearen bidez, erreferendum eta herri kontsulten bidez...
- Erabakitzeako eskubidearen bidez burutzen diren estatus politikoa aldatzeko prozesuak (burujabetza prozesuak) *demokrazian sakontzeko prozesuak dira*. Prozesu demokratizatzaileak dira. Horrenbestez, printzipio demokratikoaren eskakizunei estu lotzen zaizkie eta horiei esker gizarte horrek bere kultura demokratikoan sakontzea lortzen du.
- Burujabetza prozesuetan *bideak garrantzi handia du* eta urrats bakoitzaren *zilegitasuna* printzipio demokratikoaren eskakizunak betetzearen menpe egongo da. Urrats bakoitzaren zilegitasuna zainduz lortuko da prozesu osoaren emaitzaren zilegitasuna, bai herriaren barruko aniztasunaren aurrean, bai nazioarteari begira. Hori dela eta, prozesu osoan zehar erabilitako bideek eta jarrerak baketsuak eta demokratikoak izan behar dute eta guxtiengoaren eskubideak behar bezala errespetatuak. *Prozesu konplexuak dira*, beraz, eta oso fin jokatzeko eskatzen du alde guztien partetik, haien zilegitasuna jokoan baitute.
- Herritarrek politikoki antolatuta daudenean eta berezko autogobernu erakundeak dituztenean, estatus politikoa

aldatzeko borondatea (sezesioa eta estatu propioa sortzeko aukera barne) beren *ordezkarien eta erakundeen bidez adierazteko eta gauzatzeko eskubidea dute*. Estatuak ezin ditu adierazpen demokratiko horiek debekatu ezta mugatu ere.³¹

- *Estatu demokratiko bat behartuta dago erabakitzeko eskubidea onartzera* eta horren bidez estatus politikoak aldatzeko eskaerak bideratzera. Herriak sezesioaren aldeko borondate demokratikoa azalduz gero, estatua derrigor-tuta dago bereizi nahi duen herriarekin fede onez negoziatzera. Bestela esanda, izaera demokratikoak behartzen ditu estatuak bere baitan sortzen diren estatus politikoaren aldaketa eskaerak bideratzera (sezesioa barne).
- *Estatuaren jarrera oztopatzaileek ondorio negatiboak izan ditzakete estatuarentzat eta indartu egiten du sezesioa eskatzen duen herriaren posizioa*. Zentzu horretan, hainbat adituk azpimarratu du edozein estaturen batasuna sendotzeko biderik eraginkorrena, hain zuzen ere, erabakitzeko eskubidearen onarpena izan daitekeela. Izan ere, estatuan dauden *demos* berezituak, askatzeko aukera izanez gero, maiz, sezesioaz besteko ereduak hobesten dituzte.³²

Horiek horrela, erabakitzeko eskubidea honela defini daiteke (Mercè Corretja):

Erabakitzeko eskubidea lurralde batean kokatuta eta demokratikoki antolatuta dagoen komunitate bateko herritarrek duten eskubidea da, eta horren bidez komunitate horrek bere estatus politiko eta eredu instituzionala birdefinitzeko borondatea adierazteko eta gauzatzeko ahalmena du prozesu demokratiko baten bidez. Estatus politiko aldatzeko aukeren artean Estatu independente bat eratzeko posibilitatea ere badago, Estatuarekin sezesio prozedura negoziatu baten bidez.³³

Demokrazia herritarren burujabetzan oinarrituta dagoenez gero, erabakitzeko eskubidea demokraziaren funtsaren adierazpen bat da: herritarrek beren etorkizuna modu librean eta demokratikoki erabakitzeko duten eskubidea da.

Bereizi ahal da erabakitzeako eskubidea autodeterminazio eskubidetik?

Espainiako doktrina saiatu da autodeterminazioaren eskubidea independentziaren aukera politikoarekin lotzen, baina, ikusi dugunez, horrek ez du oinarririk nazioarteko zuzenbidean. Autodeterminazio printzipioak joko arauak ezartzen ditu burujabetza auziak nazioarteko zuzenbidearen arabera kudea daitezzen, demokraziaren arabera eta bake giroan.

Zentzu horretan, erabakitzeako eskubidea autodeterminazio printzipioaren elementu demokratizatzailea da. Jaume López irakasleak dioenez, erabakitzeako eskubideak autodeterminazio printzipio klasikoaren zabaltzea dakar demokrazia printzipioaren eskutik. Hala ere, egun, bi kontzeptu horien artean aldeak badira. Hona hemen desberdintasun nabarmenenak:

- Erabakitzeako eskubidean oinarritutako burujabetza prozesuetan ez da egoera koloniala edo zampaketa frogatu behar, nahikoa da lurraldezko komunitate politiko batek bere borondate demokratikoa aske adierazteko gogoia izatea. Egoera horiek pairatu izana ere ez du ukatzen, baina ez da beharrezkoa horiek frogatzea prozesua abiarazteko. Herriaren esku dago erabakiaren aroa abiatzea, labur esanda. Era berean, erabakitzeako eskubidearen eskaeraren oinarrian estaturik gabeko nazio baten errebindikazioa egon ohi den arren, eskubide horren egikaritzan *demos* berezitu eta erakundetu bateko herritar guztiak dira deitua, dena delakoa izanda haien identitate nazionala.
- Egoera demokratikoetarako eta XXI. mendeko inguru garatuetarako autodeterminazio eskubidea izango litzateke erabakitzeako eskubidea. Jaume Lópezek dioen bezala: autodeterminazioa 2.0.
- Autodeterminazio eskubidearen egokitzapen garaikidea da erabakitzeako eskubidea. Horrela, tresna horren bidez komunitate politiko erakundetu batek bere borondate demokratikoa adierazteko dituen tresnen bidez aukera du bere erabakitzeako prozesua abiatzeko, kanpoko ezagutza

noiz etorriko zain egon gabe. Erabakitzeko eskubidea nolabait 'barne autodeterminazioaren' muturreko sakontze demokratikoa izango litzateke, prozesuaren amaieran 'kanpo autodeterminazioari' bide emango liokeena, baita balizko sezesioaren inguruko erabakiari ere, unean uneko borondate demokratikoaren arabera.

- Autodeterminazioak subjektua goitik behera definitzeko dinamika aldatzen du erabakitzeko eskubideak. Autodeterminazioa berezko eskubide bezala definitzen da, aldez

Erabakitzeko eskubideak ez du kanpoko inoren onarpenik behar. Legitimitatea komunitateak berak ematen dio bere buruari

aurretik definitutako lurralde edo nazio jakin batentzat. Nazio izaera frogatu behar izateak traba dezake herri batek bere burujabetza prozesuari ekitea, nahikoa zilegitasun ez duelakoan. Erabakitzeko eskubidearen bitartez, aldiz, autoeratu egiten da subjektu kolektibo berria, behetik go-

rako prozesu demokratikoaren bidez erabakiko duen subjektua definitzeko aukera posible da. Autoeraketa hori ez da zertan egin behar nazio baten bueltan, borondate demokratiko batean oinarrituta ere egin daiteke eta lurraldetasunaren afera malgutasunez ebazteko aukera ematen du.

Erabakitzeko eskubideak, beraz, ez du kanpoko inoren onarpenik behar. Legitimitatea komunitateak berak ematen dio bere buruari, bere borondate demokratikoa adierazteko dituen tresnez baliatuta. Eskubidearen subjektua ez da aurretiazkoa (nazioa), subjektua etorkizuna marraztu nahi duen pertsona orok sortzen baitu bere ekitearekin, banakotik taldera. Borondate demokratikoa eraikitzeko prozesua behetik gorakoa izateak ematen dio zilegitasuna borondateari eta erabakiari, oinarritzko burujabetza duen herritarrak emana baita eta demokrazian borondatea azalarazteko dauden gainontzeko tresnak

erabilia (erakunde demokratikoak, alderdi politikoak...). Herritarrok horrela eta gure borondateak garrantzi eta indar berezia hartzen dugu.

- Erabakitzeke eskubidea demokrazia printzipioaren adierazpen bat izanik, izaera demokratikoa duten konstituzioetan bere gauzatzeak legezko bidea izan behar du eta ezin da debekatua izan; bere egikaritze baldintzatua izan daitekeen arren, ezin daiteke oztopatua izan. Konstituzio demokratiko batek ezingo luke, beti ere bere izaera ukatu gabe, eskubide hori ukatu. Kanadako edota Eskoziako esperientzietatik abiatuta, estatuari eskubide hori arautzea dagokio, ahalik eta kontsentsu zabalena lagun.
- Erabakitzeke eskubideak eztabaida politikoan aukera politiko guztiak berdintasun egoeran jartzen ditu, eta, zentzu horretan, baldintza egokiak ezartzen ditu auzia demokratikoki bideratzeko. Burujabetza auzien joko arauak ezartzen ditu, eta, zentzu horretan, esan daiteke gai demokratikoa dela, guztiz demokratikoa, gainera.
- Inongo helburu politikoren jabetza partikularra ez den neurrian, printzipio demokratiko bat denez, berori onartzen dutenen posizio politikoak indartu egiten ditu. Eta kontrara, onartzen ez dituztenen posizioak ahuldu.
- Erabakitzeke eskubidea aldebakartasun ideiarekin modu naturalean konektatzen da: demokratikoa den eskubide bat egikaritzeko ez delako beharrezkoa inork ezer aitortzea. Hemen aipa daitezke beltzen zapalkuntzari edo emakumeen boto eskubideari lotutako adibideak. Eskubideak erabili egiten dira eta ondoren ezagutza formala jasotzen dute, zuzenbide positiboaren (idatzizko legeen) partetik. Horrek ez du esan nahi, ordea, prozesuan zehar negoziatzeko jarrera zabalik mantendu behar ez denik, baina erabakia gauzatzeko prozesua (burujabetza prozesua) abiatzea eta kudeatzea herriaren ekimenez egiteak zilegitasun osoa dauka. Esku-bideak gure eskutik datoz, eskuratu egin behar dira, gero zuzenbideak aitortu eta finkatu ditzan.

- Erabakitzeko eskubideak aukera ematen digu estatuen aurrean abantailarekin jokatzeko XXI. mendeko euskal herritarroi, mundu mailako giza eskubideen ezagutzan oinarriturik, funtsezko eskubide batzuen jabe garelako gizakiak izategatik. Eskubide horiek erabilia herritarrok demokrazia parte hartzailean sakonduz, lan egin dezakegu eskubide horien babespean gure herriaren erabakitzeko eskubidearen alde, ardura osoa ordezkari publikoengan utzi gabe.

Estatuek eskubide horien erabilera onartu beharra dute, xedea gustukoa ez izan arren; eta indarkeria indiskriminatua erabiltzea guztiz debekatuta dute, demokratikoak izaten jarraitu nahi badute eta nazioarteko zenbait erakundetan egoten jarraitu nahi badute (Europar Batasuna, Nazio Batuen Erakundea, Europar Kontseilua...).

- Erabakitzeko eskubidea osatzen ari den kategoria politikoa den heinean, bere aintzatespen juridikoa oraingoz ahalegin bat besterik ez da. Ez da eskubide horren inguruko erregulazio unibertsalik existitzen, eta egungo estatuen ordenamendu konstituzionaletan ez da bere horretan aitortzen. Autodeterminazio eskubideak alor honetan abantaila handiagoak ditu; izan ere, nazioarteko lege testuetan jasota dago. Ikuspegi horretatik, autodeterminazio eskubidearen lege babesaz baliatzeko, egokiago ikusten da erabakitzeko eskubidea autodeterminazio eskubidearen bilakaera gisa ulertzea.
- Erabakitzeko eskubidearen beste abantaila bat: estatuak uko egiten badio bere konstituzioaren baitan erabakitzeko eskubideari bide emateari, herriak nazioartean aurrean zilegitasuna du erabakitzeko eskubidea aldebakartasunetik gauzatu ahal izateko. Erabakitzeko eskubideak demokratikoki jokatzeko duen alderdiaren zilegitasuna indartzeko balio du. Tresna horri esker, burujabetza prozesuaren dinamikotasuna bermatzen da eta aldebakarreko blokeoak eragotzi ahal dira.

Zertarako balio du erabakitzeako eskubideak eta noiz erabil daiteke?

Erabakitzeako eskubidea tresna bat da herriak bere burujabetza prozesua baldintza demokratikoetan kudea dezan, eta aukera eskaintzen die herri bateko herritarrei beren estatus politikoaz demokratikoki erabakitzeako, hau da, burujabetza prozesu bat abian jartzeko.

Zentzu horretan esaten da aldebakarreko prozesuak direla, erabakitzeako eskubidean oinarritutako burujabetza prozesuak herritarren ekimenez abia baitaitezke eta herritarrek bere borondate demokratikoa adierazteko dituzten baliabideen bidez egiten baitute aurrera (herritarren adierazpenen bidez, bere ordezkari politikoek bidez, bere erakundeek bidez, erreferendumen bidez...). Era berean, herritarren esku egongo da burujabetza prozesuaren zilegitasuna zaintzea eta lortzen diren aurrerapenak atzerako bidean ez jartzea.


Erabakitzeako eskubideak, behin eta berriz azpimarratzen gabe, demokrazian du bere oinarria; beraz, izaera instrumentala du, demokrazia printzipioak bezala. Joko arauak ezartzen ditu jarrera eta ideia desberdinak dituzten eragileek elkarrekin eta berdintasunezko baldintzetan lehia dezaten. Hau da, prozesuaren baldintza demokratikoak ezartzen ditu. Era berean, joko arau horiek guztiak kudeatzen jakin behar da eta horrek demokrazia-kultura maila sakona eskatzen du burujabetza prozesua behar bezala eta eraginkortasunez kudeatzen asmatzeko. Hori dela eta, burujabetza prozesuek ezinbestez kultura demokratikoan sakontzea eskatzen dute.

Beraz, oso eginkizun garrantzitsua betetzen du erabakitzeako eskubideak burujabetza prozesuetan: joko arauak

Erabakitzeako eskubideak herritarrei beren herriaren burujabetza prozesua demokratikoki kudeatzeko aukera eskaintzen die, herritarrek prozesuaren protagonista nagusi bihurtuz

ezartzen ditu bai herriaren baitan, lortu nahi duten estatus politikoaren inguruan herritarrak ados jar daitezen, eta bai herriak erabakitakoa estatuarekin negoziatzeko edota, hala badagokio, nazioartean dagokion estatu izaeraren ezagutza bideratzeko. Labur esanda, erabakitzeko eskubideak herritarrei beren herriaren burujabetza prozesua demokratikoki kudeatzeko aukera eskaintzen die, herritarrak prozesuaren protagonista nagusi bihurtuz eta beren unean uneko borondate demokratikoa izanik prozesu hori zilegitasunez elikatze osagai nagusia.

Baina zer nolako urratsak egin behar dira burujabetza prozesu bat behar bezala borobiltzeko? Alain G. Gagnon zientzia politikoko Quebeceko irakasleak horrela irudikatzen ditu burujabetza prozesuek bete beharreko faseak:



Gagnonen iritziz, burujabetza prozesu batek hiru printzipio borobildu behar ditu: printzipio demokratikoa, bideragarritasun printzipioa eta eraginkortasun printzipioa.

Prozesu horretan zehar herri galdeketek zilegitasun neur-gailuaren funtzioa bete dezakete: printzipio bakoitza behar besteko adostasun demokratikoarekin (zilegitasuna) osatu dela egiaztatzeko tresna erabakitzeako eskubidearen ariketak izango dira, hau da, herri galdeketak egitea. Erreferendumen emaitzek adieraziko dute burujabetza prozesuaren urratsak norainoko babes lortu duen herritarrengan, zer nolako zilegitasun maila, alegia.

Printzipio horiek ez dira nahitaez bata bestearen atzean jorratu behar, baizik eta lan esparru bezala ulertu behar dira eta batera ere landu daitezke.

Printzipio demokratikoa osatzeko, herritarren ahalduntzea behar da. Baina zer da herritarra ahalduntzea? Bada, erabaki esparru bateko herritarrek (komunitate politikoa osatzen dutenek) esatea haien estatus politikoari buruzko erabakiak haien hartuko dituztela eta ez kanpoko beste inork.

Horrekin batera, aukera politiko desberdinen arteko eztabaida eta gauzatzea burutzeko oinarrizko araubidea (joko arauak) ezarri behar da, hau da, erabakitzeako eskubidearen ezagutza formala lortu. Ezagutza formal hori estatuarekin adostasunaren bidez lor daiteke (Eskozia, Groenlandia...). Baina, adostasun hori lortzea ezinezkoa denean, herriak bere berezko tresna demokratikoen bidez ere egin dezake ezagutza formal hori (Estatu Batuak, Alemania, Lituania, Letonia, Estonia, Kosovo, Katalunia...). Azken hori izan da, hain zuzen ere, burujabetza ariketa gehienek erabilitako bidea, bide batez esanda.

Bideragarritasun printzipioaren xedea da herriak bere buruari eman nahi dion demokrazia eredu lantzea eta horren inguruan behar diren adostasunak lortzea. Elkarrekin nola bizi irudikatu behar da printzipio hori behar bezala borobiltzeko.

Aditu batzuen iritziz, printzipio hori une konstituziogilean gauzatzen da, hau da, behin independentzia aldarrikapena egin eta gero; baina aurretik ere egin daiteke, Kataluniako prozesuak eta Eskoziakoak erakutsi digutenez. Eskozian Independentziaren Liburu Zuriaren ariketaren bidez egin zuten

etorkizuneko eredia irudikatzeko ariketa hori. Katalunian ari dira horretan, batetik, trantsizio epea burutzeko behar-ko dituzten estatu egiturak diseinatuz, eta, bestetik, prozesu konstituziogile parte-hartzaile bat sustatuz.

Edonola ere, lehenbizi, herri horrek bere aniztasuna onartu eta ezagutu behar du eta konpromisoa hartu demokratikoki kudeatzeko. Bestalde, herritarren ongizatea bermatuko duen eredu sozio-ekonomikoaren inguruan gutxieneko adostasun bat landu behar da eta sare instituzional eraginkor bat proposatu hori guztia kudeatzeko gaitasuna izango duena.

Printzipio horren lanketan herriak erabaki beharko du zer nolako eredu politikoa nahi duen bere barne kohesioa zaindu eta garatzeko (bizikidetza eta garapen eredia) eta zer nolako harremana izan nahi duen beste lurralde botere batzuekin (mendetasunezko harremana mantendu autonomia sistema baten bidez, harreman federala edo konfederala izan beste estatu edo erakunde batekin edo estatu independente bat izan).

Azkenik, *eraginkortasun printzipioa* dugu. Printzipio horren bidez, gizartean gehiengo nagusitu den egitasmo politikoa erantzat kanpoko ezagutza bilatzen da. Ezagutza hori diferentea izango da bideragarritasun printzipioaren lanke-tatik independentzia nagusitu bada edo orain arteko mendetasun harremana mantentzea erabakitzen bada. Estatu independentearen aldeko aukera bada nagusitu dena, sezesio prozesuari ekingo zaio, nazioarteko komunitate eta nazioarteko erakundeen ezagutza lortzeko. Nazioarteko onarpena lortzeko, nazioarteko estandar eta arauak jarraitu beharko zaie; nagusiki, prozesua demokratikoa izatea, baketsua eta fede onez negoziatua.

Aldiz, beste nazio edo nazioarteko erakunde batekin elkartuta mantentzea edo batzea erabakitzen bada, dela mendetasunezko harreman batekin jarraitzea autonomiari helduta, dela harreman federal edo konfederal batekin, jatorrizko estatua-ren ezagutza eta onarpena izango du xede negoziazio faseak.

Eraginkortasun printzipioa borobiltzeko orduan, bitariko harremanak egon beharko dira eragile desberdinen artean,

eta horien fede txarreko jarrerak zabalduko du aldebakarreko erabakiak hartzeko bidea.

Ikusi denez, erabakitzeke eskubidean oinarritutako burujabetza prozesuetan, bideak berak balizko emaitzak baino garrantzi handiagoa izango du askotan, prozesua egiteko moduak baldintzatuko baitu emaitzaren zilegitasuna. Hori dela eta, prozesu horietan bi izango dira osagai garrantzitsuenak: herritarren borondatea eta urrats bakoitzean lortutako zilegitasuna. Horiek markatuko dute prozesuaren erritmoa eta emaitzaren onarpen maila herriaren baitan. Era berean, zilegitasuna emango diote nazioarteko komunitatearen aurrean. Erabakitzeke ariketak, beraz, zilegitasun demokratiakoan oinarrituta egonik, demokrazia kulturen sakontzeko ariketak dira eta herritarrak ahalduntzea dakarte. Gizartea banatu baino, gizartean denen partetik jarrera demokratiakoak lantzerantz behartzen duten ariketak dira, eta nabarmendu egiten ditu jarrera ez demokratikoak dituzten pertsonak eta eragileak, bere zilegitasuna kolokan jarritz.

Erabakitzeke eskubidea Euskal Herrian

Orain arteko teoria guztia, alabaina, nola aplikatu Euskal Herrian. Hori da elkarrekin asmatu behar duguna.

Euskal Herrian bada burujabetza prozesu bat martxan, oraindik ere helmuga zehatzik ez duena, baina aukera guztiak (independentzia barne) zabalik dituena. Prozesu hori ondo burutzeko baldintzak eta sostengu sozial nahikoa badaudela uste dugu askok. Ez gara une erabakigarri honetara egun batetik bestera iritsi. Kataluniako ispiluan gure burua begiratzea logikoa da oso, baina ez genuke ahaztu behar erabakitzeke eskubideak, Espainiako estatuari dagokionean behintzat, gurean duela iturburua.

Beste garai historikoetan bezala, XX. mendearen amaieran, Euskal Herriak mundu mailako prozesu sozial eta politikoekin sintonian egoteko gaitasuna erakutsi zuen. Quebecoko eta Ipar Irlandako inguruabarrari so, 90eko hamarkadatik

aurrera euskal burujabetzaren errebindikazioak izaera zibil eta demokratikoa hartu zuen. Abagune horretan garatu zen ‘soberanismo’ gisa definitu zen doktrina politikoa, 1998ko

Herritarron erabakia, arlo guztiei buruzko erabakia, herri burujabe eta bidezkoagoa erdiesteko tresna, eta, aldi berean, guztiok parteka dezakegun bizikidetzaren orube

Lizarra-Garaziko Akordioaren edo Ibarretxe lehendakariak 2004an bultzatutako proposamenaren aterpe izan zen doktrina. Orduetik hona, burujabetza herritarron borondate demokratikoarekin –erabakitzeko eskubidearekin, alegia– eta gizarte justiziarekin lotzen duen soberanismoak urte zailak bizi izan ditu; baina, azkenik, bere barne-indar guztia

zabaltzeko aukeraz baliatzeko modua topatu du. Herritarron erabakia, arlo guztiei buruzko erabakia, herri burujabe eta bidezkoagoa erdiesteko tresna, eta, aldi berean, guztiok parteka dezakegun bizikidetzaren orube.

Gure herrian jende asko dago gaurko estatus politikorekin konforme ez dagoena, gaur-gaurkoak ez baitigu etorkizun duin eta kolektibo bat bermatzen, ez herritar bezala ezta herri bezala ere.

Batzuen ustez, Euskal edo Nafar estatu batean bizitzea da irtenbiderik egokiena (Parte Hartuz taldeak egindako inkesta soziologikoaren arabera,³⁴ aukera hori uste baino jende gehiagok partekatzen du, eta esanguratsua da ere aintzat hartzeko prest dagoen herritarren kopurua); beste batzuen iritziz, Espainiaren barruan botere politikoa beste era batera banatuta lor daiteke irtenbidea; beste batzuk, ordea, politika sozialekin eta ekonomikoekin ez daude konforme... Baina jende horrek guztiak aldaketa nahi du, modu batekoa zein bestekoa, eta bat dator ideia garrantzitsu batekin: aldaketa posible egiteko *demokrazia gehiago* behar da, demokrazian sakondu, alegia. Eta demokrazian sakontzeak herritarron burujabetzan sakontzea dakar.

Euskal Herriaren burujabetza prozesua martxan dagoela baieztatzen duen beste adierazle bat lurraldetasunaren aferaren inguruan egiten ari diren urratsak dira. Izan ere, horretan ere, mendeetan izan ez dugun egoeran gaude. Aurreko belaunaldien ahalegin eta lanari esker, gaur egun Euskal Herri osoan (zazpi lurraldeez ari gara) demokrazia gehiago eskatzen ari garen herritarrek gara nagusi. Gaur egun, hiru eremu administratiboetan herritarrok aldi berean ari gara demokrazia gehiago eskatzen eta demokrazia ariketak egiten; bakoitza bere erritmoan eta bere berezitasunekin, baina denon artean erabakia gure esku izateko baldintzak sortzen ari gara. Horregatik, hemendik eta handik ari gara esaten 'erabakiaren aroan' bizi garela. Horretaz jabetzea oso garrantzitsua da, eta, hainbat gaztek Gazte Danbadaren bilkuran aldarrikatu dutenez, «esna harrapa gaitzala». Bai horixe.

Baldintza onak badira euskal burujabetza prozesua abian jartzeko, baina euskal herritarrok gure bidea aurkitu behar dugu, ez baitigu balio Katalunia edo Eskoziakoak. Herri bakoitzak bere bidea behar du, bere berezitasun guztiak aintzat hartuta, konfiantzak eta konplizitateak josteko gaitasuna sortuko duena.

Baina baldintzak baldin badaude, zergatik orduan ez da formalki burujabetza prozesu bat abian jartzen Euskal Herrian? Hainbat arrazoi daude, jakina. Orain arte dauden errezeloak eta konfiantza falta eragile eta pertsonen artean, beldurrak, zalantzak...

Baina horiez guztiez gain, gure ustez, bada ahulezia handi bat. Euskal Politikak (gizarte zibilaren parte hartzea ere politika kontzeptuan sartuta) ez du esparrurik eskaintzen elkarrekin amesteko, etorkizuna elkarrekin irudikatzeko; aukera desberdinez demokratikoki datuekin eztabaidatzeko; herritarren arteko ohiko harremanak sendotzeko; herri bezala dugun aukerez eta ahuleziez gogoeta partekatua egiteko, adostasunaren bidez herri gehiago izateko mugez haraindi elkarrekin bidea eginez... Horren ordez, lurralde esparrukako politikak azaltzen zaizkigu, eragile politikoen

artean desadostasuna etengabe nabarmenduz; Euskal Herri-kanpora begiratzeko diogu etengabe, erabakia gurean dagoela erreparatu gabe; atzera begirako gogoetak eskaintzen ditugu, gure lehenak eta orainak aurrera begira zein aukera zabaldu ahal dizkiguten eztabaidagai jarri gabe...

Euskal Herrian, ordea, estilo berri bat ari da auzoz auzo eta herriz herri zabaltzen. Ilusioa eta heldutasun demokratikoa lantzen duena eta jarrera eraikitzaile eta positiboak sustatzen dituena. Filosofia horretan oinarriturik, euskal herritarrok ibilbide orri propio bat landu dugu erabakiaren aroari gure ekarpena egin ahal izateko: erabakiaren aldeko borondatea ehundu, zabaldu; elkarrekin erabakitzeko baldintzak adostu eta erabaki.

Ibilbide orri horretan oinarriturik, herritarrez osatutako sare oso mardul bat ehuntzen ari gara erabakitzeko eskubidearekin batera josten den kultura demokratikoa Euskal Herriko herri eta auzo guztietara eramateko. Milaka herritar gara eskuzabaltasun osoz lan hori egiten ari garenak, uste baitugu ezinbestekoa dela orain arteko zenbait aje eta jarrera zuzentzea. Konturatzen ari gara zenbat beldur eta zalantza dagoen erabakitzeko eskubidearen inguruan. Gure herriak elkarrekin lor dezakeena irudikatzen zenbat zailtasun dagoen ere agerian geratzen ari da. Baina auzoz auzo eta herriz herri erabakitzeko baldintzak lantzen gabiltzanok badakigu hein handi batean zailtasun horiek guztiak gainditzea gure esku dagoela.

3.000.000 pertsonen osatutako herri honek bere etorkizuna modu librean erabaki nahi du, eta horretarako herritarrok ahaldundu behar dugu eta ozen adierazi gurea dela hitza

Euskal herritarrok
ibilbide orri propio bat
landu dugu erabakiaren
aroari gure ekarpena
egin ahal izateko:
erabakiaren aldeko
borondatea ehundu,
zabaldu; elkarrekin
erabakitzeko baldintzak
adostu eta erabaki

eta erabakia, bertan bizi eta lan egiten dugun herritarrona, alegia, inor bazterrean utzi gabe eta eskua guztiei zabalduz.

Erabakitzen hasi gara. Ekainaren 5ean erabakitzeako ariketak egin dira Euskal Herriko 34 herritan giro alaian eta normaltasun osoz, demokrazietan normalena erabakitzea delako. Ekainaren 5era heltzeko oztopo ugari izan ditugu, eta hala eta guztiz ere gure determinazioa ez da ahuldu. Erabakiko dugu eta elkarrekin egingo dugu.

Ekainaren 5a lehen olatua izan da. Ondoren bigarrena, hirugarrena eta behar diren beste olatu etorriko dira. Bidean ikasten ari garen guztia hurrengo urratsetan borobilduz joango gara, eta, horrela, urratsez urrats, gero eta hurbilago joango gara bidea ikusten Euskal Herri mailan erabakitzea lortu arte.

Prozesu konplexua dela badakigu, baina herri honek bizi izan duen guztia ez da alferrik izan. Esperientzia handia pilotuta ekiten diogu erabakiaren aroari eta heldutasun demokratiko handiko herria garela demostratzeko moduan gaude. Bidean aurkituko ditugun zailtasunak gainditzen jakingo dugula erakusteko unea heldu zaigu, #Elkarrekin etorkizuna #Erein eginez eta #Hitzartuz #GeukErabakiko dugu. Unea iritsi da eta erabakitzera goaz. 🍷

Oharrak

1. Besteak beste, ikuspegi liberaletik, Wilson presidentearen printzipioetatik (1918) eratorri dira autodeterminazio eskubidea arautzen duten 1966ko Giza Eskubideen Konbentzioa edo Nazio Batuen 1970eko adierazpena. Ereku sozialistan, berriz, Leninen 'nazioen autodeterminazioan' oinarritutako hainbat konstituziotan jaso zen autodeterminazio eskubidea... Eta Eliza katolikoaren Doktrina Sozialaren Bilduman (2006), esaterako, nazioen eta herrien eskubideak biltzen dira eta giza eskubideei lotuta herrien eskubideak aitortzen dira, autodeterminazio eskubidea, besteak beste.
2. Erabakitze eskubidearen inguruko bibliografia hiru lan hauetan aurki daiteke:
 - Lasagabaster Herrarte, I. (2008): *Consulta o Referéndum. La necesidad de una nueva reflexión jurídica sobre la idea de democracia*, Lete, Bilbo.
 - Barceló i Serramalera, M.; Corretja, M.; González i Bondia, A.; López, J.; Vilajosana, J. M. (2015): *El derecho a decidir. Teoría y práctica de un nuevo derecho*, Atelier, Bartzelona.
 - Cagiao y Conde, J.; Ferraiuolo, G. (koord.) (2016): *El encaje constitucional del derecho a decidir. Un enfoque polémico*, Catarata, Madril.
3. Alemania, Baltikoko errepublikak (Lituania, Letonia, Estonia), Balkanetako errepublikak (Eslovenia, Kroazia, Montenegro, Kosovo, Serbia, Txekia eta Eslovakia...).
4. 1998ko Lizarra-Garaziko Akordioan autodeterminazio eskubidea aipatzen bada ere Irlandaren bake prozesuari egiten dion hasierako aipamenean (bake-prozesua ahalbidetu zuen faktore gisa agertzen da autodeterminazio eskubidea), Akordioaren bigarren partean (hitzarrena negoziatzeko prozesuari buruzkoa), berriz, erabakitze eskubidearen elementu batzuk aipatzen hasten dira, hala nola, Euskal Herriarena dela erabakia, gatazka konpontzeko irtenbide diferentiek egon daitezkeela onartzea, erabaki fasea bake giroan jorratu beharreko prozesu dela onartzea...
5. Aurretik autodeterminazio eskubidea ardatz hartuta landu izan da gai hau Euskal Herrian:
 - 1918: euskal legebiltzarkide talde batek AEBetako Wilson presidenteari eskatu zion autodeterminazio eskubidea Euskal Herriari aplikatzea.
 - 1931ko apirilaren 17an, orduan Getxoko alkatea zen Jose Antonio Agirre Lekube –beranduago lehendakari izan zena– Munda-ka, Bermeo eta Elorrioko alkateekin batera Gernikan sartu ezinik

Espainiako guardia zibilak debekatuta, adierazpen bat egin zuten Euskal Errepublika aldarrikatzearen alde.

- 1978an Francisco Letamendiak autodeterminazio eskubidea aldarrikatu zuen Espainiako Gorte Nagusietan Konstituzioari buruzko eztabaidan.
 - 1990ean Gasteizko Legebiltzarrak autodeterminazio eskubidea aldarrikatu zuen.
6. Udalbiltzak onartutako Euskal Herriaren eskubideen kartan honela jasotzen da erabakitzekeo eskubidea: «Euskal Herriak beste herrieekin izan gura duen harremana askatasun osoz aukeratzeko eskubidea du. – Gaur egun nazioarteko komunitatea osatzen duten estatuiekiko eta gainerako erakunde politikoiekiko harremanaz erabakitzekeo eskubidea du. – Nazioarteko foro eta organismoetan baldintza berdintasunez eta ahots propioaz parte hartzekeo eskubidea du, nazioartean dagozkion eskubide eta betebeharrak konplitu, bere askatasun horretatik abiatuta, herri, nazio nahiz estatu guztien arteko elkartasuna eta begirunea bultzatzeko».
7. Euskadiko Erkidegoaren Estatutu Politikoaren (2004) Atarikoan honako bi aipamenak egiten zaizkie erabakitzekeo eskubideari: «Euskal Herriak eskubidea du bere etorkizuna erabakitzekeo, Eusko Legebiltzarrean 1990eko otsailaren 15ean gehiengo osoz onartu zen bezala, eta nazioartean onetsitako herrien autodeterminazio-eskubidearekin bat etorri, besteak beste, Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Itunean eta Ekonomia, Gizarte eta Kulturako Eskubideen Nazioarteko Itunean». «Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzekeo eskubidea erabiltzea, egun eremu juridiko-politiko ezberdinetan giltzatuta dauden herritarrek, gizonetzko zein emakume, beren etorkizuna erabakitzekeo kontsultatuak izateko duten eskubidea errespetatu gaizatzen da. Hau da, egungo Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren erabakia errespetatu, Nafarroako Foru Komunitateko herritarren erabakia errespetatu, eta Iparraldeko euskal lurraldeetako –Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa– herritarren erabakia errespetatu».

1. artikulua ere aipamen zuzena egiten dio Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritarrek beren esparru propioa askatasunez eta demokrazia-arauz erabakitzekeo duten eskubideari:

«1. artikulua. Euskadiko Erkidegoa

Euskal Herriaren zati osagarri direnez, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskal lurraldeek, eta baita bertako herritarrek ere, gizon zein emakume, antolaketarako eta harreman politikoetarako beren esparru propioa askatasunez eta demokrazia-arauz erabakitzekeo duten eskubidea erabiliz, beren naziotasunaren adierazgarri eta autogobernua bermatzeko, Espainiako Estatuarekin askatasunez elkartutako euskal Erkidego gisa eratzen dute beren burua, Euskadiko Erkidego izenarekin».

13. artikuluan, berriz, erabakitzeko eskubidea nola erabili arautzen da:
«13. artikulua. Erabakitzeko eskubidea demokraziaz erabiltzea

1. Euskal herritarrek askatasunez erabakitzeko eskubidea demokraziaz erabiltzeko ondorioetarako, hortik dator-eta Estatutu honen zilegitasun demokratikoa, Euskadiko Erkidegoko instituzioek erreferendum bidez euskal herritarrei kontsulta demokratikoak egitea arautu eta kudeatzeko ahala daukate, bai beren eskumenen eremuko gaiei dagokienean zein Euskal Herriko beste lurralde eta giza talde batzuekin izan nahi dituzten harremani dagokienean, bai eta Espainiako Estatuarekiko eta bertako autonomia-erkidegoekiko harremani eta Europako eta nazioarteko eremuko harremani dagokienean ere.

2. Euskadiko Erkidegoko instituzioek Eusko Legebiltzarraren lege bidez arautuko dute bere lurralde-eremuan erreferendum bidez kontsultarako eskubidea erabiltzea, eta horretarako, moldeak, kasu bakoitzean jarraitu beharreko prozedura, emaitzen baliotasunerako baldintzak eta emaitza horiek ordenamendu juridikoan sartzea ezarriko dute.

3. Euskal herritarrek berariaz jarritako kontsultaren aurrean beren erabaki askea demokraziaz erabilia, beren borondate argi eta zalan-tzarik gabea adierazten dutenean estatutu honetan araututako Espainiako Estatuarekiko harreman politikoaren eredua eta araubidea oso-rik edo funtsean aldatzeko, baita Europako eta nazioarteko eremuko harremanak aldatzeko ere, euskal instituzioek eta Estatuarenek kon-promisoa hartuta izango dute euskal gizartearen borondate demokra-tikoa adostasunez gauzatzeko aukera emango duten baldintza politi-ko berriak ezartzearen alde negoziazio-prozesu bat bermatzeko».

8. Kanadako Auzitegi Gorenaren irizpena Quebeceko aldebakarreko sezesioari buruz.
9. Loiolako Akordio Politikoan (2006) honako terminoetan jasotzen zen Euskal Herriak askatasunez bere etorkizunari eta erakundetzeari buruzko erabakiak hartzeko eskubidea:

«1.2. *Sobre los mecanismos que permitan a la ciudadanía vasca adoptar libre y democráticamente decisiones en torno a su futuro político e institucional*

Nos comprometemos a defender que las decisiones que sobre su futuro político adopte libre y democráticamente la ciudadanía vasca sean respetadas por las instituciones del Estado. – Dichas decisiones se adoptarán en ausencia de cualquier tipo de violencia y coacción, siguiendo las normas y procedimientos legales, y respetando los métodos democráticos y los derechos y las libertades de la ciudadanía. – Entendemos que dichos procedimientos legales se refieren a los vigentes en cada momento, pudiendo ser modificados en el futuro para que no sea una limitación a la voluntad popular, sino garantía de su ejercicio».

[1.2. Euskal hiritarrei etorkizun politiko eta instituzionalari buruz erabaki libre eta demokratikoak hartzea ahalbidetuko dieten mekanismoei buruz

Euskal hiritarrek beren etorkizun politikoari buruz libre eta demokratikoki hartzen dituzten erabakiak Estatuko erakundeek errespetatzen defendatzeko konpromisoa hartzen dugu. – Erabaki horiek batere bortxa eta hertsapenik gabeko egoeran hartuko dira, arau eta prozedura legalak jarraituz, eta metodo demokratikoak eta hiritarren eskubide eta askatasunak errespetatuz. – Prozedura legal horiek une bakoitzean indarrean daudenei dagozkiela ulertzen dugu, etorkizunean alda daitzkeelarik, herri borondatearentzako muga izan ez daitezen, horren gauzatzearen bermea baizik».]

10. 2016an agenda politikoaren lehen mailako gaia da erabakitzeko eskubidea. Horren garrantzitsua bihurtu da, ezen Espainiako trantsizio politikorako gako bihurtu baita eta horren inguruko akordio ezak Espainiako hauteskundeak errepikatuz behar baitu.
11. Autodeterminazio eskubidearen bilakaera ikuspegi klasikotik Giovanni Forno Flórezek bi artikulu hauetan irakur daiteke: 'El principio de libre determinación de los pueblos – Parte I' (<http://gforno.blogspot.com.es/2012/04/el-principio-de-libre-determinacion-de.html>) eta 'El principio de libre determinación de los pueblos – Parte II' (<http://gforno.blogspot.com.es/2012/05/el-principio-de-libre-determinacion-de.html>).
12. Giovanni Forno Flórezek XVI. mendean kokatzen du autodeterminazio printzipioaren lehen aurrekaria. Francisco de Vitoriak Amerikako herri indigenei aitortu zien burujabetza printzipioa *Relectiones Theologicae De Indis* (1539) liburuan: «Amerikako lur aurkitu berriak, jabetza-titulu zuzenez, jatorrizko biztanleenak ziren. Horren ondorioa zen bertakoek beren lurralde eta gobernu beren kabuz izateko eskubidea. Horixe da autodeterminazio eskubidea». XIX. mendean nazionalitateen printzipioa onartu zen Europan, eta horren arabera herri bakoitzak bere estatua izateko eskubidea du eta autodeterminazio eskubidea du tresna herriak xede hori lortzeko.
13. www.un.org/en/index.html
14. NBERen Gutunaren 1. artikulua, NBERen xedeaz:
 - «1. Nazioarteko bakea eta segurtasuna gordetzea, bakearen kontra izan daitezkeen gaitzak saihestu eta ezabatzeko beharrezko ahalegin kolektiboak bultzatzea [...].
 2. Eskubide berdintasunean eta herrien autodeterminazioan oinarritutako kidesun harremanak garatzea eta nazioarteko bakea sendotzeko beharrezko bideak garatzea.
 3. Nazioarteko ekonomia, gizarte, kultura edo giza arazoak kon-

pontzeko nazioarteko lankidetzaz lortzea, baita guztientzako giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak betetzeko ere, arraza, sexu, hizkuntza edo erlijioagatiko diskriminazioen gainetik.

4. Azken helburu horiek lortzeko nazioen arteko harmonizazio gune izatea».

15. Kanadako Auzitegi Gorenak, Quebecoko aldebakarreko sezesioari buruzko irizpenean, aitortzen du autodeterminazio printzipioa gaur egun nazioarteko zuzenbidearen printzipio nagusi bat dela. Honela jasota dago 114. puntuan: «Herriek beren kabuz jarduteko eskubidearen existentzia hain onartua dago gaur egun nazioarteko konbentzioetan, ezen printzipio horrek 'konbentzio' batena baino goragoko estatutua hartu baitu eta nazioarteko zuzenbidearen printzipio orokor gisa jotzen baita» (Cassese, A. (1995): *Self-Determination of Peoples. A Legal Reappraisal*, Cambridge University Press, Cambridge, 171-172; Doehring, K. (1994): 'Self-Determination', in B. Simma et al. (arg.): *The Charter of the United Nations. A Commentary*, Munich, C. H. Beck, 56-72, 70).
16. Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren (1966) eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren (1966) 1.1. artikulua honela dio: «1. Herri guztiak dute libre determinatzeko eskubidea. Eskubide horren ondorioz askatasunez zehazten dute euren izaera politikoa eta askatasunez bultzatzen dute euren ekonomia-, gizarte- eta kultura-garapena».
17. Helsinkiko 1975eko Azken Aktak honela dio VIII. puntuan: *«Herrien eskubide berdintasuna eta autodeterminazio librea* Estatu parte hartzaileek herrien eskubide berdintasuna errespetatuko dute, eta horien autodeterminazio librerako eskubidea, une oro Nazio Batuen Gutunaren xede eta printzipioen eta nazioarteko zuzenbidearen arau egokien arabera jokatuz, estatuen lurralde osotasunari dagozkienak barne.

Herrien eskubide berdintasun eta autodeterminazio librearen printzipioari jarraiki, herri guztiak dute beti, nahi dutenean eta nahi duten bezala, bere barne- eta kanpo-izaera politikoa askatasun osoz zehazteko eskubidea, kanpoko esku-sartzerik gabe, eta beren garapen politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala egoki irizten dioten modura jarraitzekoa.

Estatu parte hartzaileek hauxe berresten dute: herrien eskubide berdintasunaren eta autodeterminazio librearen errespetu eta gauzatze eraginkorrak beraien zein estatu guztien arteko harreman adiskidetsuentzako duen garrantzi unibertsalak; era berean, printzipio hori bortxatzeko modu guztiak ezabatzearen garrantzia gogoratzten dute».

18. Horrela jasota dago, halaber, 1970eko urriaren 24ko Nazio Batuen 2.625 Erabakian (XXV): *Nazio Batuen Kartaren arabera, Estatuaren arteko adiskidetasun eta lankidetzaren harremanak bideratzeko nazioarteko zuzenbidearen printzipioei buruzko Adierazpena*. Estatuaren betebeharrak hori honela azaltzen da adierazita: «Herrien eskubide berdintasunaren printzipioari eta beren kabuz jarduteko eskubideari jarraiki, Nazio Batuen Gutuneko kontsagratutako printzipioa baita, herri guztiek dute beren estatutu politikoa zehazteko eskubidea, askatasun osoz eta kanpoko esku-sartzerik gabe, eta beren garapen ekonomiko, sozial eta kulturala bilatzeko, eta estatu guztiek dute Gutunaren xedapenen arabera eskubide hori errespetatzeko betebeharrak».
19. Auzi horiek honako hauek izan ziren: Namibiaren kasua, Mendebaldeko Sahararena, Quebec, Ekialdeko Timor eta Kosovo.
 - Namibia (Legal Consequences for States of the Continued Presence of South Africa in Namibia Advisory Opinion). International Court of Justice, 1970.
 - Portugal v. Australia (The Case Concerning East Timor: Summaries of Judgments, Advisory Opinions and Orders). International Court of Justice, 1986.
 - Reference Re: Secession of Quebec. 2 S.C.R. 217. Supreme Court of Canada, 1998.
 - Western Sahara (Advisory Opinion 12). International Court of Justice, 1975.
 - Kosovo. International Court of Justice, 2010.
20. *Remedial Secession* teoria garatu duten autore batzuk hauek dira:
 - Buchanan, A. (1998): 'Democracy and Secession', in M. Moore (arg.): *National Self-Determination and Secession*, New York, Oxford University Press, 14-33.
 - Moore, M. (1998): 'The Self-Determination Principle and Ethics of Secession', in M. Moore (arg.): *National Self-Determination and Secession*, New York, Oxford University Press, 1-13.
 - Norman, W. (1998): 'The Ethics of Secession as the Regulation of Secessionist Politics', in M. Moore (arg.): *National Self-Determination and Secession*, New York, Oxford University Press, 34-61.
21. Montevideoko Itunak (1933) lau baldintza ezartzen ditu herri bati estatu izaera onartzeko: lurralde jakin bat izatea, populazio bat, lurralde eta populazio horren gaineko aginte eraginkorra duen gobernu bat egotea eta nazioarteko harremanak edukitzeko gai izatea.
22. Sezesioaren gaia ikuspegi teorikotik sakon aztertzeke, ikus lan hauek:
 - Urrutia, I. (2012): 'Territorial Integrity and Self-Determination. The Approach of the International Court of Justice in Advisory Opinion of Kosovo', *Revista d'Estudis Autònomic i Federals* 16, 107-140.

- Urrutia, I.; Iñarritu, J.; Nikolas Z. (2013): 'Euskal Estatuaren erai-kuntzaren alde juridikoa: sezesioa eta trinkotze juridiko-politikoak', in Askoren artean (2013): *Euskal Estatuari bidea zabaltzen. Herrigintza eta erakundeak*, Ipar Hegoa, Bilbo, 55-88.
23. Nabarrako Burujabetza Komisioak NBEren Deskolonizazio batzorde bereziaren aurrean eskaera formal bat egin zuen 2009ko abenduaren 17an Nafarroa herri kolonizatua dela onar dadin eta autode-terminazio eskubidearen subjektu gisa onartua izan dadin.
 24. Euskal Herriaren kasua hemen ere berezia izan daiteke, eta hainbat eragile ahaleginak egiten ari dira Espainiaren kasuan euskal herri-tarrek pairatutako giza eskubideen urraketak frogatzeko. Hor koka daitezke Servini epaile argentinarrek frankismo garaian gertatutako eskubide urraketa larriak ikertzeko egiten ari den lana eta Europako Giza Eskubideen Auzitegian Espainiak jasotako zenbait zigor.
 25. Quebeceko sezesioari buruzko Kanadako Auzitegi Gorenaren irizpe-na, 1998ko abuztuaren 20koa (gaztelaniazko itzulpena: *Documentos INAP* 18, 1998, 1-75). Chacón Piqueras, C.; Ruiz Robledo, A. (1999): 'Comentario del dictamen del Tribunal Supremo canadiense de 20 de agosto de 1998 sobre la secesión de Quebec', *Teoría y realidad consti-tucional* 3, 275-284. Pérez Tremps, A. (2004): *El marco (a)constitucio-nal del debate sobre la secesión de Quebec*, Punt de vista 21, Fundació Carles Pi i Sunyer d'Estudis Autònoms i Locals, Bartzelona.
 26. Kanadako Auzitegi Gorenari hiru galdera hauek egin zizkion Kana-dako gobernua:
 - Lehen galdera: «Quebeceko erakunde politikoe (governu auto-no-moak edo legebiltzarrak) aldebakarreko erabakiaren bidez Kanada-tik bereiztea erabaki dezakete, Kanadako Konstituzioaren arabera?».
 - Bigarren galdera: «Quebeceko erakunde politikoe (governuak edo legebiltzarrak) aldebakarreko erabakiaren bidez Kanadatik bereiztea erabaki dezakete, nazioarteko zuzenbideari jarraiki?».
 - Hirugarren galdera: «Zein araubidek du lehentasuna Quebeceko balizko sezesioa arautzeko: Kanadako barne araubideak ala na-zioarteko araubideak, horien arteko lege-gatazka gertatuz gero?».
 27. Nazioarteko Justizia Auzitegiaren irizpena, 2010eko uztailaren 26koa, Kosovoren aldebakarreko independentzia aldarrikapenari buruz.
 28. Hagako Auzitegiaren Kosovoko auziari buruzko epaiaren 80. para-grafoak honako hau esaten du: «Bere 2.625 Erabakian (XXV), 'Es-tatuen arteko adiskidetasun eta lankidetzaren harremanak bideratzeko nazioarteko zuzenbidearen printzipioei buruzko adierazpena Nazio Batuen Gutunaren arabera' izenburupean, nazioarteko ohiturazko zuzenbidea islatzen duena (Jarduera militar eta paramilitarrak Ni-karaguan eta Nikaraguan aurka (Nikaragua Ameriketako Esta-

tuen Batuen aurka) (Funtsa), epaia, I.C.J. Reports 1986, 101-103 or., 191-193 parg.), Batzar Nagusiak honako printzipioa errepikatu zuen: 'estatuek, beren nazioarteko harremanetan, beste edozein estaturen lurralde osotasun edo independentzia politikoaren aurka indarraren mehatxu edo erabilpena jotzeari uko egingo diote.' Erabaki horrek, ondoren, estatuen zenbait betebeharrak zerrendatzen zituen beste estatu burujabeen lurralde osotasuna ez bortxatzeari begira. Zentzu berean, Europaren Segurtasun eta Lankidetzari buruzko Helsinkiko Konferentziaren Azken Aktak, 1975eko abuztuaren 1ekoak (Helsinkiko Konferentzia), hauxe ezarri zuen: 'estatu parte hartzaileek beste estatu parte hartzaile guztien lurralde osotasuna errespetatuko dute' (IV. art.). *Horrela, bada, lurralde osotasunaren printzipioaren irismena estatuen arteko harremanen esparrura mugatzen da*».

29. Araceli Mangas nazioarteko zuzenbide publikoko irakasleak oso gogor kritikatu zuen Hagako Auzitegiaren doktrina hori, Kanadako Auzitegiaren doktrinaz harago Nazioarteko Justizia Auzitegiak lurralde osotasunaren printzipioa estatuen arteko harremanetara mugatzen zuelako eta ez zuelako aplikatzen sezesio kasuetan herriek izan dezaketenen muga gisa. Bere arrazoibideak honako artikuluan irakur daitezke: 'Cataluña: ¿no habrá independencia?', *El Cronista del Estado Social y Democrático de Derecho* 42, 2014, 54-65.
30. Joxe Azurmendik argi jaso du eredu anglosaxoi-liberala eta jakobino-demokratikoa bereizten dituen eztabaida filosofiko politiko hori. Une honetan, gure herria eta Katalunia izango lirateke kontzeptu-talika geostrategiko horren guneak. Eredu federal errepublikarraren ereduak, Kataluniaren kasuan, ala foruetan oinarritutako monarkia (kon)federalaren filosofia, gurean, finean eztabaida eremua berbera baita: batasuna aniztasunaren ondorio gisa ulertu behar ote dugun, ala alderantziz. Azurmendi, J. (2014): *Historia, arraza, nazioa. Renan eta nazionalismoaren inguruko topiko batzuk*, Elkar, Donostia.
31. Gaur egun Espainiako estatuak adierazpen demokratiko horiek debekatzen ditu, ez baitie autonomia-erkidegoei, ezta udalei, burujabetza ariketak egiten uzten (KAE 31/2015), eta estatutuak aldatzeko prozeduretan ere konstituzionaltasun aurreko errekurtoa ezarri baitu, herria galdetua izan dadin ekiditeko. Beldur diola dirudi burujabetza ariketek sortzen duten zilegitasun demokratiko horiek azalarazteari, eta lege bidez debekatzen saiatzen da.
32. Oso interesgarria da ildo horretan Jason Sorens-en lana: *Secessionism. Identity, Interest, and Strategy*, McGill-Queen's University Press, Montreal, 2012. Berriki, Estatu Batuetako Kongresuan gaiari buruzko txostena aurkeztu du (<http://docs.house.gov/meetings/FA/FA14/20160315/104672/HHRG-114-FA14-Wstate-SorensJ-20160315.pdf>).

33. Mercè Corretjak honela definitzen du: «el derecho a decidir es el derecho de las personas que pertenecen a una comunidad territorial localizada y democráticamente organizada, que permite expresar y realizar mediante un procedimiento democrático la voluntad de redefinir el estatus político y el marco institucional fundamentales de dicha comunidad, incluida la posibilidad de construir un Estado independiente mediante un proceso de secesión negociado» ('El fundamento democrático del derecho de los catalanes a decidir', in J. Cagiao y Conde, G. Ferraiuolo (koord.): *El encaje constitucional del derecho a decidir. Un enfoque polémico*, Catarata, Madril, 2016, 62-81, 65-66).
34. <http://iparhegoa.org/index.php/eu/euskal-estatuari-bidea-zabaltzen-3/euskal-estatua-bidea-zabaltzen>

Herri eskubideak eta estrategia politikoak

Xabier Barandiaran

Gipuzkoako Diputatu Nagusiaren Kabineteko arduraduna eta EAJ-PNVko kidea

Espainiako trantsizio politikotik hasi eta gaur arte Euskal Herriaren herri eskubideen aitortza eta erakundetzea lortzeko jarraitu diren estrategia politikoei buruzko hausnarketa egitea da artikulu honen helburua. Euskal aberri gintzan garatu den zatiketa politikoak Espainiako estatuak Hego Euskal Herrian duen eragin maila handitu du. ETAren biolentziak objektiboki euskal nazio askapenerako baldintzak ahuldu egin ditu.

Espainiako estatuak ere, urte hauetan guztietan, uko egin dio nazio aniztasunak ezinbestean eskatzen duen egitura garatzeari, eta jarrera horrek Hego Euskal Herriko erakunde sistemaren erabakimen gaitasuna mugatu du etengabe. Azken 36 urte hauetan estrategia politiko ezberdinen talka nagusitu izan den bitartean, gizarte asko aldatu da eta bereziki asko alendu da politikatik eta herrigintzatik. Egoera horrek guztiak euskal herritarron erabakitzeko eskubidea erakundetzeko estrategia politikoak birpentsatzera eraman beharko gintuzke. Azterketa honek Euskal Autonomia Erkidegoko egitura politikoari egingo dio erreferentzia. Ez ditut aztertu ez Nafarroako eta ez Iparraldeko egoera.

Trantsizio politikoan

Espainiako trantsizio politikoan, euskal abertzaletasunaren baitan, bi jarrera nagusitu ziren; alde batetik, Eusko Alderdi Jeltzalearen abertzaletasun historikoak ordezkaturikoa eta, bestetik, Ezker Abertzaleak ETArekin abangoardiarekin islatu zuena. Espainiako Konstituzioan oin hartzen duten proiektu politikoek Espainiako nazioaren subiranotasun banaezina aldarrikatu eta gauzatzeko bidea egin zuten. Espainiako Alderdi Sozialistak, adibidez, Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea defendatzen zuen 1977an, baina 1978ko Konstituzioaren aurrean bere jarrera aldatu egin zuen. EAJ-PNVk Konstituzio erreferendumean abstentzioa eskatu zuen eta Ezker Abertzaleak, berriz, ezezkoa.

1978ko Espainiako Konstituzioak ez zion euskal auziari konponbide egokia eman. Zer ulertu behar da euskal auziaz? Euskal Herriari beste edozein herriri dagozkion eskubide berdinak aitortzea, subjektu politiko moduan errekonozitua izatea, herritarrek une bakoitzean adierazten duten borondatea erakundetu eta ahalbidetuz. Abertzaletasun historikoak nazio-estatu kontzeptuan oinarritutako autodeterminazioaren teoria modernoa, praktikan, eskubide historikoei buruz eginitako irakurketarekin uztartu du; ikuspegi horrek Europako herri demokratikoak erakundetzeko legitimaturiko logikarekin bat egiten du, baina, aldi berean, autodeterminazioa gauzatzea eta independentzia lortzea etengabeko prozesu negoziatu eta erai-kitzailea delako ideiarekin josiz. Foru eskubideen hitzarmen izaeraz baliatuz, Gernikako Estatutuaren eranskina negoziatu zuen abertzaletasun historikoak. Eusko Alderdi Jeltzaleak zuhurtziaz ekin izan dio herri egituraketaren eraikuntzari, ekintza politiko konstituziogile bakarrean oinarritutako apustuetatik urrunduz. Ikuspegi horretatik, eskubide historikoen erabateko gauzatzea Europako gainontzeko herriek bezala estatu independente bat lortzean egongo litzateke; baina, ibilbide horretan, autogobernu maila bat erakundetzen duen sistema prozesu horren pauso bat eta ezinbesteko baldintza

bilakatzen da. Ikuspegi horrek Gernikako Autonomia Estatutua negoziatzera eramane zuen EAJ-PNV, eta oinarrizko erakunde arau horren hitzarmen izaera aitortzera. Espainiako estatuak Gernikako Estatutua onartuko du, baina ez bere hitzarmen izaera, alegia, ez bi legitimitateen arteko adostasun izaera, baizik eta Espainiako herriaren subiranotasunean oinarrituriko lege organiko moduan.

Ezker Abertzaleak Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea sozialismoarekin identifikatu eta langilego klasearen lidergopean burutu beharreko prozesu bezala aurkeztu zuen, nazio askapena eta askapen soziala txanpon beraren bi aurpegi direla argudiatuz. Ezker Abertzalearentzat, Eusko Alderdi Jeltzaleak burgesiaren interesak defendatuko ditu eta klase interes horien defentsara lotzen den egitura politikoari men egingo dio. Ikuspuntu horretatik, Gernikako Estatutua Espainiako estatuaren zapalketa tresna bat baino ez da izango. Euskal Herriko gatazka politikoaren konponbidea, nazio askapena eta askapen soziala, borroka fronte guztiak erabiliz lortuko da; borroka horretan borroka armatuak dihardu abangoardian.

Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Ezker Abertzaleak nazioari buruzko kontzeptu ideologiko nahiz herri estrategia kontrajarriak erakutsi zituzten trantsizio garaian. Nire iritziz, benetako ezberdintasunak bi elementu nagusitan zentratu ziren, ordea: alde batetik, une hartan Espainiako konstituzio sistemak erakundetzen zuen

Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Ezker Abertzaleak nazioari buruzko kontzeptu ideologiko nahiz herri estrategia kontrajarriak erakutsi zituzten trantsizioan

errealitatea abiapuntu moduan onartzean ala ez, eta, bestetik, ekintza politikoa garatzerakoan jarraitu beharreko estrategian. Eusko Alderdi Jeltzaleak onartu du Euskal Herria hiru egitura politiko ezberdinetan banatua egotea, egitura bakoitzaren eraldaketak bere erritmoa izatea eta herri garapena erakundeetan garaturiko ekintza demokratikoaren bitartez burutzea.

Ezker Abertzaleak, aldiz, ez du onartu egitura politikoaren zatiketa, zazpi herrialdeen banaezintasuna aldarrikatu du eta, udalen salbuespenarekin, erakunde sistema guztiarekiko deslegitimazio aktiboa landu du urte luzeetan; deslegitimazio horretarako bi bide erabili ditu nagusiki: ETaren borroka armatua, eta, erakunde sistemari bere herri politika garrantzitsu batzuetan alternatiba paraleloak eraikiz, alternatiba horiei benetako herri izaera eta legitimitatearen aitortza (euskararen, hezkuntzaren, komunikazioaren alorrean). Egoera horrek izugarritzko kaltea egin dio euskal aberrigintzari, eta, bereziki, Euskal Herriaren nazio askapenaren kontra joan da zuzen-zuzenean; zatiketa horrek euskal herritarren herri energia indargabetzen zuen bitartean, Espainiako estatuak aurrera egin du bere logika gizarteratzeko orduan.

Abertzaletasun historikoak Gernikako Autonomia Estatutuarentzat baietza eskatu zuen. Gernikako Estatutuaren eranskinak jasotzen duen moduan, Estatutua onartzeak ez du esan nahi historikoki herri eta nazio bezala dagozkigun eskubideei uko egitea. Eusko Alderdi Jeltzalearentzat, Gernikako Estatutuak, Euskal Herriko lurralde zati baten gehiengoaren borondateari erantzuten zion neurrian, Espainiako Konstituzioarekiko hitzarmen izaera zuen. Ezker Abertzaleak Espainiako Konstituzioarekiko eta Gernikako Estatutuarekiko haustura planteatu zuen. Estatutua Konstituzioaren menpeko zelako argudiopean (argudio horretan Espainiako alderdi konstituzionalistekin bat eginez), sistemaren kontrako borroka planteatu zuen, borroka armatua legitimatuz eta herri borroka aldarrikatuz ideologia sozialistaren aterkipean. Ezker Abertzaleak urte askotan pentsatu izan du, Espainiako estatuarekiko prozesu dialektiko hori ongi kudeatuz, herri aitortza erakundetzeko negoziazio prozesu bat posible zela; edo urteak aurrera zihoazen neurrian, gutxienez, auzi politikoa bizirik mantentzeko baldintzak eraikiko zirela, nahiz eta horren emaitzak Ezker Abertzaleak berak ez kudeatu. Ezker Abertzaleak, urte hauetan, gogor eraso dio Gernikako Autonomia Estatutuan oin hartzen duen euskal erakunde

sistemari; jarduera horren emaitzak, ordea, bestelakoak izan dira: Espainiako estatua indartuta, Ezker Abertzalearen gizar-te eragiletza ahuldua eta euskal abertzaletasunaren izaera eraldatzailea mugatua bere baitako joera antagonikoak direla eta.

Nire iritziz, Gernikako Autonomia Estatutua erakunde-tzeak onura nabarmenak ekarri dizkio euskal herrigintzari; ikusi besterik ez dago kontzertu ekonomikoak suposatu duena edo herri politika ezberdinetan egon den garapen maila interesgarria. Abertzaletasun historikoak lideratu du neurri handi batean prozesu hori guztia. Azken 36 urte hauetan egin den herri eraikuntza ezin da ordea mugatu erakunde sistemak eskainiriko baldintzetara. Frankismo garaian Euskal Herrian sortu zen berpizkunde sozial, kultural eta ekonomikoari zor zaio neurri handi batean garapen hori, eta, batzuek ez uste izan arren, Gernikako Estatutuan oin hartzen duten erakundeek bat egin dute Euskal Herriko hiru lurralde historikoetako gehiengoaren herri borondatearekin.

Ezker Abertzaleak bi huts historiko egin zituen garai hartan: lehenengoa, euskal erakundeek euskal herritarrengandik jasoriko legitimitatea kontuan hartu gabe, erakunde sistemak nazio eraikuntzarako zuen potentzialitatea baztertzea; eta, bigarrena, nazio eraikuntzarako baldintza egokiagoak bide ez demokratikoen bitartez behartu zitezkeela sinestea. Urte horiek guztiek erakutsi dute euskal erakundeek, muga guztiekin ere, geure nortasun kolektiboaren garapenean eragin ona izan dutela, eta, ETAREN borroka armatuaren jarduerak euskal aberrigintzari benetako kaltea egiteaz gain, Ezker Abertzalearen indar politikoa eragin mugatuan gelditu dela okerreko estrategiaren ondorioz.

Trantsizio politikoan finkatu ziren azken 36 urte hauetan euskal aberrigintzan egon diren logika nagusiak.

Trantsizioaren garapena

Trantsizio politikoaren ondorengo urteetan, aurreko lerroetan aipatu ditugun joera politikoak areagotu ziren. Estatuak

ez du inolako borondaterik erakutsi Gernikako Estatutua betetzeko orduan; ez soilik bere hitzarmen izaera errespetatu edota lege organiko moduan aurreikusitako transferentzia garrantzitsu batzuk bideratzeko orduan, ezta eguneroko kudeaketa politikoan ere. 1987an EAJ-PNVren zatiketak eta EAren sorrerak kalte politiko nabarmena egin zion abertzaletasun historikoari. Urte horietako zenbait joera azpimarratu nahi nituzke:

- Estatuak, Gernikako Estatutuarekiko irakurketa murriztailea egiteaz gain, politikoki bere helburu politikoak lortzeko tresna bezala erabili zuen.
- Herrigintzaren ikuspuntutik, abertzaletasun historikoa erakunde publikoen kudeaketan zentratu zen, herrigintzako beste esparru batzuei gutxiago erreparatuz.
- Ezker Abertzaleak erakundeekiko deslegitimazioan sakondu zuen, herri ekimenaren esparru ugari bere proiektu politikoaren mesederako erabiliz.

80-90eko hamarkadetan, ETAk ez zuen lortu estatuarekin negoziatzerik, eta bere jarduera areagotu zuen euskal gizartearekiko haustura etikoa handiagotuz. 1988an Ajuria-Eneko hitzarmena sinatu zen.

1990eko otsailean Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidearen aldeko ebazpena onartu zuen Eusko Legebiltzarrak. 1989ko Aberri Egunean Eusko Alderdi Jeltzaleak eginiko agirian ikus daitekeen moduan, autodeterminazio eskubide hori gauzatzeko unea oraindik ez dela iritsi aitor-tzearekin batera, autodeterminazio horren eguneroko gauzatzearen aldeko apustua egin zuen. Autodeterminazio horren oinarrian Euskal Herriaren subiranotasuna kokatu zen. Eusko Legebiltzarrak onartu zuen ebazpena EAJ-PNV, EA eta EEko legebiltzarkideen 38 botoekin. Herri Batasunako 13 legebiltzarkideek erretiratu egin zuten beraien proposamena eta ez zuten parte hartu bozketan. Espainiako alderdi konstituzionalistek ohiko argudioekin kontra egin zuten. 24 urte beranduago Eusko Legebiltzarrak Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea onartu zuen berriro.

Euskal Herriaren autodeterminazioaren aldeko Eusko Legebiltzarraren adierazpena nazioartean aldaketak gertatzen ari diren momentuan burutu zen: Berlingo Harresiaren erorketaren inguruan eta Europan estatu berriak sortzen ari ziren unean. Autodeterminazioaren aldeko aldarria egin arren, helburu politiko hori lortzeko errealitatea urrutiegi ageri zen garai horietan. Gernikako Estatutuaren garapen ezak eta Espainiako estatuak Euskal Herriko herri politikan nahiz iritzi publikoarengan duen eraginak Gernikako Estatutuaren balioaren inguruko eztabaida piztu zuten, baita abertzaletasun historikoaren baitan ere. Bestalde, euskal abertzaleen arteko zatiketa geroz eta sakonagoa zen hiru arrazoirengatik: belaunaldi politiko berriak oso kultura politiko ezberdinetan hezten ari zirelako, bi familien arteko haustura etikoa geroz eta nabariagoa zelako eta, hirugarrenik, bi proiektu politiko ez ezik kasik bi sistema kontrajarri sortu zirelako politika eta gizarte bizitza ulertzeko moduetan.

1988an eta 1989an Aljerreko elkarrizketak burutu ziren. Garai horretan, ETak estatuarekiko negoziazio politikoak garatzeko ahalegina egin zuen inolako lorpenik gabe. Baina, urte horietan, nire ustez, gauza garrantzitsu bat gertatu zen Hego Euskal Herrian: Ajuria-Eneko hitzarmena. Hitzarmen politiko horrek bereizketa bat ekarri zuen esparru publikora: demokratik/ez demokratik dikotomiaren gizarte irudikapena. ETaren biolentziaren aurrean, abertzaletasun historikoak eta Espainiako alderdi nagusiek bat egin zuten, eta lankidetzara horrek eragina izan zuen ETaren kontrako herritarren jarrera areagotzeko eta Ezker Abertzalea ahultzeko. Baina beste bi ondorio ere izan zituen: alde batetik, ETari aurre egiteko ibilbidean burututako haustura etikoak nabarmen bigarren maila batean utzi zuen Euskal Herriaren herri eskubideen auzia; Espainiako estatuak, gainera, ondo maneiatu zuen euskal abertzaletasunaren eta biolentziaren arteko lotura. Ajuria-Eneko hitzarmenak ez zituen bere helburuak lortu: ez ETarekin amaitzea, ez normalkuntza politikoan aurrera gitea.

90eko hamarkadaren zatirik handienez abertzaleen arteko antagonismoak eta estatuaren jarrerak areagotu egin ziren. Herri Batasunak 1994an abian jarritako Oldartzen estrategia da horren adibiderik argiena. 1995ean Gregorio Ordoñezen eta 1997an Miguel Angel Blancoren erailketek mugarri garrantzitsu bat erakutsi zuten. Une horretan ez dago inolako baldintzarik herri eskubideen inguruko eztabaida egiteko.

Urte horietan guztietan, ETAREN biolentzia ariketa euskal politikagintzaren erdigunean kokatu zen. Trantsizio politikotik urrunduz gindoazen neurrian ETAREN gizarte babes txikituz joan zen, eta hori izan zen ETAREN ahuleziarik handiena.

90eko hamarkadaren zatirik handienez abertzaleen arteko antagonismoak eta estatuaren jarrerak areagotu egin ziren

Bi arrazoi egon ziren gizarte babes horren galeran: ETAK aurrera eramandako borroka armatuak suposatzen zuen giza eskubideekiko haustura, eta Ezker Abertzalearen soziologian borroka armatuaren estrategiarekiko distantzia bere baliagarritasun maila eskasagatik.

Ezker Abertzaleak azken urteetan jaso dituen eraso antidemokratikoen aurrean (ilegalizazioa, presoen familiartekoen giza eskubideen urraketa, torturak...) gizarte babes handiagoa jaso ez badu, kontraesan etiko nabarmenetan erori delako izan da.

Lizarra-Garazi

Urteak aurrera doazen heinean, geroz eta garbiago ageri dira hiru errealitate:

- ETAREN biolentziak kalte nabarmena egiten zien bizikidetzaren demokratikoari eta euskal nazioagintzaren interesei.
- Ajuria-Eneko hitzarmenak (ikus-puntu teoriko batetik el-karrizketarako atea irekita uzten bazuen ere) praktikan ez zuen konponbiderako eredu egokia eskaintzen.
- Normalkuntza politikoa, herri eskubideak erakundetzeari dagokionean, geldialdi batean sartuta zegoen.

1998an Ardanza lehendakariak 'Ardanza plana' izenez eza-guturiko proposamena luzatu zuen, eta, proposamen horretan, alderdi politiko guztien arteko elkarrizketaz hitz egiten zen. HBk parte hartuko lukeen elkarrizketa prozesu hori abian jarri ahal izateko, ETaren mugarik gabeko su-etena ezinbestekotzat jotzen zen. Baldintza horietan, Ardanza planaren arabera, alderdi politikoek erabakitzen zutena errespetatzea ezinbestekoa zen. Abertzaletasun historikoaren ikuspuntutik, akordio horrek Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea gauzatzeko prozesu bat ekar zezakeen, eta, aldez, Espainiako Konstituzioa defendatzen zuten alderdientzat, muga edo sabaia Konstituzioak ezartzen zuena zen. Betiko arazoa, beraz.

1998ko irailaren 12an Lizarra-Garaziko Akordiora bilduko dira abertzaletasun historikoa, Ezker Abertzalea, sindikatu abertzaleak, Ezker Batua eta gizarte eta politikako hainbat eta hainbat eragile. Akordio horrek ETaren su-etena ekarri zuen, eta sekulako ilusioa horrenbestez, bereziki euskal abertzaletasunaren gizarte eremuan. Hitzarmenaren edukietan zentratuz, Irlandako bake prozesuari jarraituz, biolentziaren ariketarik gabeko agertoki bat lortzea zen abiapuntua, eta ondoren auzi politikoari heltzea konponbide demokratiko bat bilatzeko asmoz.

1998an Juan Jose Ibarretxe lehendakari izendatu zuen Eusko Legebiltzarrak Eusko Alderdi Jeltzalearen, EAren eta EHren babesarekin. Lizarra-Garaziko prozesuan herri borondatea bide demokratikoetatik bideratzeko apustua egin zuten alderdi abertzaleek, baina oraingoan ere printzipio demokratikoekiko sinesmen faltak ito egin zuen prozesua. Alderdi konstituzionalisten gehiengoak hitzarmenetik kanpo geratu zen hasiera-hasieratik, inola ere ezin zutelako onartu Espainiako subiranotasunaren haustura; baina, ETak bere burua prozesuaren berme egin zuenean, hitzarmenaren bahlia bertan behera geratu zen eta su-etena apurtu zuen.

Lizarra-Garaziko Akordioak interes handia duten ebidentzia eta eztabaida batzuk jarri zituen mahai gainean:

- ETAREN biolentzia ariketa, Espainiako estatuarekiko negoziaketa baten ondorioz ez, baizik eta Euskal Herrian konpondu behar zelako ideia garatu zen.
- Nazio eraikuntza agertoki demokratikotik kanpo garatzea ezinezkotzat jotzen zen.
- Estatutuaren garapen ezak tresna hila bilakatzen zuelako ideia gizarteratu zuen (abertzaletasun historiko guztia ez zetorren bat ideia horrekin), egungo esparrua gaindituko zuen egitura politiko berri baten aldeko aldarria eginez.
- Ez zen, ordea, benetan adostasunik lortu herri eskubideen erakundetzeak eskatzen zuen erritmo eta ereduaz. Halere, lehen aldiz Udalbiltza bezalako esperientzia bat abian jarri zen, eta subiranotasunaren aldeko prozesua garatzeko, alderdiek, erakunde publikoek eta gizarte eragileek lankidetzan aritzea ezinbestekoa delako ideia landu zen.
- Baina abertzaletasun historikoak errealitate berri horretara egungo erakunde sistemaren eskaileretatik igotzea planteatzen zuen bitartean, Ezker Abertzaleak errealitate berri horren eraketa (erritmoan eta edukian) azkar aurrera eraman zitekeen zerbait bezala planteatzen zuen. Eta argitu gabe geratu zen horrelako prozesu bat negoziazio bidetik eraman zitekeen edota konfrontazioaren bidetik landu behar zen. Gaur egun euskal abertzaleen artean dagoen eztabaidarik garrantzitsuenetako bat ere hor kokatzen da.

ETA biolentziaren ariketara itzuli zen 2000. urtean, eta abertzaleen arteko lankidetzara erabat apurtuta geratu zen. EHk Eusko Legebiltzarra uztean, Ibarretxeri ezinezkoa gertatu zitzaion gobernatzea eta hauteskundeak deitu zituen. Denbora horretan, ordea, gauza asko gertatzen ari ziren euskal gizartean:

1. Erabat hedatua dago euskal gizartean ETArekiko deslegitimazioa, eta su-etenaren apurketa indar handiz zigortuko du euskal gizarteak.
2. Ordurako, Euskal Herriaren nazio eraikuntza soilik klabe demokratikoetan eraiki daitekeelako ideia zabaldua

dago; ez hori bakarrik, Lizarra-Garaziko Akordioak nazio eraikuntzak ezinbestekoa duen lankidetzeta eta lankidetzeta horren ondoriozko maila bateko erakundetzeta islatu zituen, eta horrek ilusio handia piztu zuen.

3. Lizarra-Garaziko Akordioak ilusio handia piztu zuen abertzaleen artean baina alertan jarri zuen Espainiako estatua. 2001eko maiatzaren 13ko hauteskundearen aurretik, Espainiako gobernuaren baitan politika aldaketa kualitatibo bat gertatu zen. Abertzaletasuna demokraziaren kontrako jarrerarekin identifikatu zen. Maiatzaren 13ko hauteskunde horietan EAJ-EA koalizioak hauteskundeak irabazi zituen, eta bi gauza garbi geratu ziren: Euskal Autonomia Erkidegoko hiritarrek beren etorkizuna erabaki nahi zutela eta edozein adierazpen politikoko bide demokratikoetatik eraman behar zela. Maiatzaren 13ko hauteskundeak porrot handia izan ziren Alderdi Popularrarentzat, Alderdi Sozialistarentzat eta baita Ezker Abertzalearentzat ere.
4. 2001eko hauteskundeetan Ibarretxe lehendakariak gidatutako abertzaletasun historikoak garaipen garrantzitsua eta marka politikoa gainditu zuen herritarren babes zabala lortu zuen. Eraitza hark Eusko Jaurlaritza berriaren norabide politikoa baldintzatu zuen, baina, aldi berean, bi prozesu jarri zituen abian: batetik, Ezker Abertzaleak bere demokratizazioa bideratzeko ezinbesteko premia agerian geratu zen, eta, bestetik, Espainiako estatuak euskal abertzaletasunaren erabateko deslegitimazio estrategian sakondu zuen. Espainiako estatuak hementxe ikusten zuen benetako arriskua: EAJ-PNV, Gernikako Estatutua gaindituz, euskal herritarren erabakitzeke eskubidea erakundetzeko prozesuan sartzean. Ikuspuntu horretatik, ETA eta Ezker Abertzalea ez ziren arrisksuegiak estatuarentzat; sistema konstituzionala zalantzan jartzen ez duen abertzaletasun historikoa ere ez; baina Euskal Herriaren erabakitzeke eskubidea erakundetzeko prozesu demokratiko bat abian jar zezakeen

abertzaletasun historikoa bai: hori arrisku bezala hartu zuen Espainiako estatuak.

5. Denborarekin, EAJ-PNVren baitan eztabaida sortu zuen egoera horrek: batetik, lehenik euskal abertzale eta Espainiako konstituzionalisten arteko euskal akordio baten aldeko apustua aldarrikatzen zutenak eta ondoren akordio hori Espainiako estatuarekin negoziazio eta akordio batera eramatearen aldekoak zirenak; eta, bestetik, Eusko Legebiltzarraren gehiengoarekin Espainiako estatuarekiko negoziazioan akordiorik ezean konfrontazio demokratiakoaren bitartezko apustua egitearen alde egiten zutenak.

Maiatzaren 13ko hauteskundeetan alderdi konstituzionalistek emaitza txarrak lortu arren, José María Aznarrek ordura arteko irakurketa berberarekin jarraitu zuen. Politika horren ekimenik adierazgarriena Batasuna legez kanpo uztea izan zen ezbairik gabe, alderdi politikoen lege berriaren babespean. Ezker Abertzale soziologikoa adierazpidetza politikorik gabe geratu zen. Prozesu horren bitartez, justizia sistema, komunikabideak eta gainerako erakundeak gobernu ariketaren printzipioetara behartu zituzten, ikuspegi demokratikotik zailantza guztiak mahairatuz. Posizio etikoak instrumentalizatu zituzten eta behar izan zuten guztia beren mesedetara jarri. Alde bateko ala besteko biktimen munduak instrumentalizazioa jasan zuen, eta gizarte zibileko mugimendu asko ere gizarte politikoan erabakitako ibilbidearen mugetatik atera ezinik ibili ziren.

2003ko martxoaren 11n Madrilen talde islamiar batek buruturiko atentatu gaitzesgarriak eragin handia izan zuen; bertan 200 lagun inguru hil ziren. Gertakari horrek Espainiako hauteskundeetan eragin zuzena izan zuen. Alderdi Popularrak hauteskundeak galdu zituen. José Luis Rodríguez Zapateroren PSOEk gobernuan aurkitu zuen bere burua aurrez espero ez zuten boto mobilizazioari esker. Egoera horrek eztabaida politikoaren tonu berria ekarri zuen, eta saiakera berri bat ETArekin biolentziarentzat erabateko irtenbide elkarriketatatu bat lortzeko.

Ibarretxe lehendakaria eta erabakitzeke eskubidea

Lizarra-Garaziren ondoren, etsipen giroa nagusitu zen euskal herritarrengan eta, bereziki, euskal abertzaleengan. Juan Jose Ibarretxe lehendakariak erdiko ubidearen irudia erabili zuen euskal auzian mugimendua sortzea ezinbestekoa zela adierazteko; irtenbidea demokrazian sakontzean zegoen: oinarri etiko eta demokratikoak aktibatuz. Bi oinarri horietatik kanpo ez zegoen euskal herritarren borondateari erantzuterik. Abertzaletasun historikoak, Ibarretxe lehendakariaren eskutik, herri eskubideak erakundetzeko irakurketa berri bat jarri zuen mahai gainean.

1998ko abuztuaren 20an Kanadako Auzitegi Gorenak, Ottawako gobernu federalak Quebeceko independentziaren inguruan eginiko galderari erantzunez, Quebeceko herritarrek gehiengo erabakigarritz independentzia bozkatzuz gero Kanadako gobernu negoziatzaera eta Konstituzioan aldaketak egitera behartuta dagoela adierazi zuen. Quebec ezin du negoziatu gaibe bere kabuz independentzia eskuratu, baina Kanadako gobernu behartuta dago gehiengo garbiaren legitimitatea aitortu eta negoziatzaera.

Abertzaletasunak, ideologikoki, herri eta nazioen eskubideak konstituzionalizatzeaz hitz egiten badu, Kanadako Auzitegi Gorenak hiritarren oinarri demokratikoa hartzen du erreferentziatza; hau da, barruti jakin bateko herritarren gehiengo hartzen da kontuan subjektu politiko berri bat osatzerakoan. Ebazpen hori oso ongi txertatu zen abertzaletasun historikoak Euskal Herriaren zatiketa administratiboaren aurrean hartuko duen jarrera pragmatikoarekin, eta baita prozesu luze batean oinarrituriko herri eskubideen erakundetzearekin ere. Bestalde, XX. mende erditik aurrera, herri borondatea

Abertzaletasun historikoak, Ibarretxe lehendakariaren eskutik, herri eskubideak erakundetzeko irakurketa berri bat jarri zuen mahai gainean

gizabanakoaren elementu subjektiboetan oinarritzen den neurrian, erabakitzeko eskubidearen oinarri demokratikoak elkarrekiko dependentzian saretutako gizarte konplexueta-ko errealitateei erantzun egokia emango die. Maiz euskal abertzaletasunaren helburu politikoak, Espainiako estatutik, izaera etnikoaren bitartez zehazten den aberria babestearekin identifikatu izan dira. Identifikazio horrek ez dio inondik ere errealitateari erantzuten. Baina erabakitzeko eskubidearen teoria demokratikoak erakusten du gizarte aurreratuetan erabakitzeko eskubidea gauzatzeko motibazioak askotarikoak direla eta, sarritan, ez dutela zerikusirik nazio identitatearekin. Ezker Abertzalea hasieran kritiko agertu zen Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrak subjektu politiko moduan aitortzearekin, Euskal Herriaren lurraldetasuna apurtuz. Kritiko agertu zen Ibarretxe lehendakariarekin, eta Eusko Alderdi Jeltzalearen hauteskunde lehiarako ekimentzat salatua izan zen.

2003an Gernikako Estatutuaren erreforma proiektua onartu zuen Eusko Jaurlaritzak, eta 2004ko abenduaren 30ean onartu zuen Eusko Legebiltzarrak. 2001eko maiatzaren 13az geroztik, Eusko Jaurlaritzako lehendakariak Gernikako Estatutuaren fasea bukatutzat eman eta egituratze politiko berri baten egitasmoa aurkeztu zuen Euskal Autonomia Erkidegorako. Ibarretxe lehendakariaren estatutu berrirako proposamenak agertoki politiko berria sortu zuen, eta gainontzeko aktore politikoetan mugimenduak eragin zituen. Proposamen horrek hiru oinarri zituen: euskal gizartearen erabakimena, bide demokratikoen onarpena eta abertzaleek eta ez abertzaleek lekua izango luketen Espainiarekin adostutako egitura politikoa. Egitasmo horrek Espainiako nazioaren subiranotasuna defendatzen duten horien ezezko borobila jaso zuen; eta Ezker Abertzaleak bere ezadostasuna erakutsi zuen, auziaren konponbidea Euskal Herriaren erabakimena bere osotasunean hartuz antolatu behar zela adieraziz. Alderdi konstituzionalistek inolako komunikazio biderik ez zuten utzi irekita. Ezker Abertzalea ere ez zegoen prest berak lideratzen ez zuen prozesu bati arnasa emateko.

Lehendakariaren proposamenak mugimendu ugari sortu zituen. Espainiako estatua aurrez aurre jarri zitzaion (gutxitan ezagutu dira Ibarretxeri mediatikoki egin zitzaizkion erasoak bezalakoak) eta Ezker Abertzaleko soziologian mugimenduak sortu zituen. Gaur, 2016an, Ezker Abertzaleak kasik bere osotasunean onartzen du erabakitzeke eskubidea, euskal lurralde ezberdinen erakundetze erritmo ezberdina eta egungo erakundeetatik abiatzea marko berri batera heltzeko. Juan Jose Ibarretxe lehendakariari zor zaio erabat aitortu gabe gelditu den ekarpen hori.

Baina Ibarretxe lehendakariaren proposamenak abertzaletasun historikoari trantsizio politikoaz geroztik izan ez zuen dinamika bat eman zion; autogobernuaren ikuspuntutik, Estatutuaren sabaia gainditzeko ekimen politikoari forma eman zitzaion, eta 'erabakitzeke eskubidearen oinarria' urte batzuetarako geldituko da gure herrian. Gaur, erabakitzeke eskubideaz hitz egiten da, foru nazioaz edo alde bikotasunaz, baina finean herritarren borondatea errespetatzeaz ari gara. Non daude orduan kontzeptu horien arteko ezberdintasunak? Erabakitzeke eskubidearen graduazioan. Euskal abertzaletasunak hemen du etorkizuneko erronka: erabakitzeke eskubidea erakundetzeko orduan ahalik eta erabakitze gaitasun handiena biltzean, erakundetze hori ahalik eta zorrotzen egokitu dakion erabakitzeke eskubidearen oinarriari.

Ibarretxe lehendakariaren proposamenak Ezker Abertzalearen oinarri soziologikoetara ino eraman zuen ETaren deslegitimazioa. Ezker Abertzaleko jende ugari borroka armatuaren zikloa erabat amaituta zegoela irudikatzeaz gain, ikusi zuten subiranotasunaren aldeko dinamika politiko bat soilik bide demokratikoetatik jar zitekeela abian; are gehiago, hori zela etorkizunean herriak onar zezakeen bide bakarra.

Euskadiko estatutu berriaren proposamenak euskal aberri-gintzaren hutsune larriak ere mahai gainean jarri zituen. Batetik, abertzaletasun historikoan barne eztabaida ireki zuen: zenbaiten ustetan, Ibarretxeren proposamenak adostasunean oinarrituriko jeltzaleen kultura politikoarekin hautsi zuen,

Gauza bat da herri
batek erabakitzeko
eskubidearen
aldeko bozka egitea
eta beste bat oso
ezberdina eskubide
hori erakundetzeko
konfrontaziorako herri
estrategia bat aurrera
eramateko gai izatea

ordura arte EAJ-PNVk zuen zentraltasun politikoa arriskuan jarritz; ikuspegi hori defendatzen zutenek behin baino gehiagotan kritikatu zuten alderdia Ezker Abertzalearen esparrura

eraman izana. Eztabaida horrekin batera, Ibarretxe lehendakariaren estrategia bideragarri egiteko babes politikoa eta herri ekimena falta zen. 2005eko otsailaren leian eztabaidatu zen Espainiako Diputatuen Kongresuan Gernikako Estatutuaren erreforma eta, aurreikus zitekeen moduan, atzera bota zen. Egoera horren ondorioz lehendakariak hauteskundeak deitu zituen eta 2005eko apirilean egin ziren. Edozein kasutan, gauza bat da herri batek

erabakitzeko eskubidearen aldeko bozka egitea eta beste bat oso ezberdina erabakitzeko eskubidea erakundetzeko konfrontazioko herri estrategia bat aurrera eramateko gaitasuna izatea; gai hori ia batere landu gabe zegoen. Madrilen ezetzak ez zuen aparteko erreakziorik sortu euskal gizartean. Eta, finen (oraindik ere argitzeko dagoen gauza da), ez zegoen garbi Madrilekiko adostasunik ezean erakundetze sistema propio bat zer nolako prozesu politiko, juridiko eta sozialen bitartez eraikitzen den. Eztabaida horrek 2016an erantzun handiegirik gabe jarraitzen du. Euskal Herrian oso ohituak gaude aberrigintzari buruzko adierazpen estetikoetara, baina herri ekimenak, adierazteaz gain, gauzatu egin behar dira.

Bada beste faktore bat benetako eragina izan zuena eta aurreko puntuarekin lotuta dagoena. Urte hauetan guztietan euskal gizartea aldatu egin da: gure inguruko beste herri asko bezala, kontsumoko gizarte indibidualista gara, gizartea askotarikoa da sentitzeko, jokatzeko eta egiteko moduetan, eta gure herri garapenaren ekonomia, politika eta gizarte

eragileak asko eraldatu dira azken urteotan. Trantsizio politikoan buruan geneukan herri ekimenaren izaera erabat eraldatu da, eta sortu den errealitate berria kontuan hartzea ezinbestekoa da baldin eta euskaldunen borondatea errespetatuko duen egitura juridiko-politiko berri bat eraiki nahi bada.

2004an Ezker Abertzaleak Anoetako proposamena luzatu zuen, alde batetik ETArekin eta estatuaren arteko elkarrizketarako mahaia eta bestetik auzi politikoaren konponbiderako alderdi politikoena planteatuz. Lehenengo mahaiak biolentziaren ariketari amaiera ematea izango zukeen helburu, eta bigarrenak auzi politikoaren muinari irtenbide bat ematea. 2006an Loiolako elkarrizketak burutu ziren (ETAk su-eten iraunkorra iragarrita) baino inolako etekinik gabe. Zapaterok ETArekin ireki zuen elkarrizketa bertan behera gelditu zen ETAk Barajasko aireportuan egindako atentatua medio. 2003az gozotik, Ezker Abertzalea legez kanpo egon da 2011ko martxoaren 23ra arte.

Loiolako elkarrizketetan arazo politikoari irtenbidea emateko kontsulta demokratikoaz hitz egin zen, baina negoziaketa prozesuak ez zuen aurrera egin. 2007an Ibarretxe lehendakariak akordio politikoa eskaini zion Zapaterori (Loiolako Akordioan oinarrituta), baina Espainiako gobernuak ez zuen onartu. 2008an Eusko Legebiltzarrak kontsulta legea onartu zuen, eta Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Konstituzioaz kanpokoa zela adierazi zuen. 2008ko urriaren 25ean ekitaldi sinboliko bat egin zen ziklo politiko baten amaieran.

2009an Alderdi Sozialista eta Popularraren arteko hitzarmenak Eusko Jaurlaritzaren zuzendaritza politikotik kendu zuen abertzaletasun historikoa (EAJ-PNVk alde nabarmenaz hauteskundeak irabazi arren). Ibarretxe lehendakariak Eusko Legebiltzarra utzi zuen, politikagintzatik erretiroa hartuz.

Urte hauetan guztietan Ezker Abertzalearen egoera bide-erazina bilakatu zen: legez kanpo, ETArekin kontrako jarrera herritarren gehiengo zabalean, presoan eta beren familiar-tekoen egoera eta batik bat aktore politiko bezala eragiteko gaitasun eskasa asko aldatzen ari den gizarte batean; bereziki,

ETari inork gutxi aitortzen dio eragile politiko izaera; bestetik, herritar gehienak ohitu egin dira Ezker Abertzalearen legez kanpoko egoerara; eta, azkenik, ETaren borroka armatua objektiboki Ezker Abertzalea itota edukitzeko lehen mailako aitzakia bilakatzen da Espainiako estatuarentzat.

Ezker abertzalea erraza ez den aldaketa estrategiko bat prestatzen hasi zen: Ezker Abertzaleko militantzian eztabaida irekiz eta ETari beharrezkoak diren nazioarteko aterkiak (bitartekariak nahiz Aieteko konferentzia) jarriz, 2011ko urrian borroka armatua betiko bertan behera uzten zuela iragartzea lortu arte. Ezker Abertzaleak aldebakarreko estrategia jarri zuen martxan. Espainiako estatua ez zegoen beste ezertarako prest. 2011n Bilduk emaitza oso garrantzitsua eskuratu zuen udal eta foru hauteskundeetan eta Amaiurrek Espainiako hauteskunde orokorretan. 2012an Sortu Ezker Abertzalearen marka berria legeztatu zen. Hego Euskal Herrian herritarren gehiengo zabala Ezker Abertzalea legez kanpo uztearen kontra zegoen, eta kontraesan nabarmena ikusten zuen Ezker Abertzaleari politika eginez borroka armatuaren legitimazioa bertan behera uzteko eskatu eta, aldi berean, Ezker Abertzalea legez kanpo edukitzearen artean.

Ezker Abertzaleak eginiko aldaketa estrategikoak berebiziko garrantzia du euskal aberriaren. Lehenik eta behin, ETak betiko biolentzia alde batera uzteak posible egin du Ezker Abertzaleak egungo sisteman joka dezan. Era horretako aldaketa estrategikoa, urteetan errotutako kultura politikoaren aldaketa, ez da egun batetik bestera burutzen. Baina, oso epe motzean aldaketa kualitatiboak gertatu dira: soilik bide demokratikoen aldeko apustua, erabakitzeko eskubidearen ideia onarpena, egungo markoaren onarpena, presoen inguruan eginiko hausnarketa...

Etorkizunaz

ETaren amaierarekin mugarri garrantzitsu bat ezarri da euskal gizartean. Oraindik Ezker Abertzaleak denbora behar du

bere ibilbidea erabat osatu eta kultura politikoaren aldaketa sakon bat egiteko. Edozein kasutan, une honetan, herri eskubideen erakundetzeari dagokionean, trantsizio eta krisi une batean aurkitzen gara, nahiz eta etorkizunera begira argirik ere baden. Zalantzarik gabe, euskal abertzale guztiek soilik bide demokratikoen aldeko apustua egiteak lankidetzarako baldintza objektiboak erraztu ditzake erabakitzeke eskubidea erakundetzeko ezinbestekoa den abertzaleen arteko elkarlanean.

Zergatik krisia?

Lehenik eta behin, euskal gizartean izugarritzko aldaketa gertatu da azken urte hauetan. Alde batetik gizartearen gizabanakotzea eta bestaldetik politikarekiko atxikimendu falta garatu dira. Politikaren gizarte baldintzak erabat aldatu dira. Euskal herritarrei erabakitzeke eskubideaz galdetuz gero, gehiengoak erabakitze-

ko eskubidearen alde egingo luke, baina hortik erabakitzeke eskubidea gauzatzeko behar den estrategian herria modu iraunkorrean ekime-
nean barneratzera tarte handia dago. Eta hori landu egin behar da, alderdi bakoitzaren ikuspegiaz gain herri ikuspegi landuz. Herri eskubideen erakundetza gaur ezin liteke burutu alderdi politikoetatik

soilik edota erakunde publikoen sistemaren kudeaketatik; gizarte antolatuaren, herritarren eta sistema politikoaren lankidetzat integratua behar da. Alor horretan bide luzea dago egiteko oraindik.

Bigarrenik, trantsizio politikoa burutu zuen belaunaldiak eraikitako euskal erakundeen sistemak ukatu ezinezko ekarpena egin dio herri honi, baina une honetan sistema horren maila bateko agortzea ikusten da. Ez da soilik Gernikako Estatutuan oin hartzen duten hainbat eta hainbat erakundek

Une honetan,
herri eskubideen
erakundetzeari
dagokionean, trantsizio
eta krisi une batean
aurkitzen gara, nahiz
eta etorkizunera begira
argirik ere baden

erakusten duten krisia, baizik eta baita hainbat herri erakunde eta ekimenena ere. Belaunaldi aldaketa baten aurrean gaude. Euskal erakunde publikoen sistemak izaera ezberdineko zerbitzuak eskaintzeko gaitasun maila handia du, baina gizartean eta espazio publikoan eragiteko gaitasuna galdu du. Gaur, inoiz baino gutxiago, elkartezko nortasunaren birrekoizteko puntuak ez dira sistema publikoaren monopolio, eta, benetan eragin nahi bada, gobernantza eredu berri baterako bidea egitea ezinbestekoa da; gobernantza eredu hori gizarte antolatuarekin eta herritarrekin lankidetzan eraiki behar da. Eraginaren ikuspuntu horretatik, euskal erakunde sistemaren agortze puntua oso garbi ikusten da EITBren kasuan. Gaur, euskal iritzi publikoarekiko kontrol handiagoa daukate Espainiako estatuak eta komunikazio talde pribatu handiek euskal erakundeek baino. Arrazoiak askotarikoak dira, baina bizi dugun errealitatean bi indar oso kontuan hartzea ezinbestekoa izango da: lehenik, globalizazioak herri eraikuntzarako funtsezkoak diren eragileak sistema publikoarekiko dependentzia eta harreman sistematik kanpo uzten ditu; eta, bigarrenik, estatuak indar handiz gizarteratzen dute beren errealitatea estatu horretako edozein zatiren gainetik.

Hirugarrenik, gaurko euskal abertzaletasunean ez dago garbi herri estrategia nondik nora joan daitekeen. Alderdi abertzaleen jarrera politikoak finkatuta daude, baina ez dago garbi zein den erabakitzeko eskubidearen ibilbide orria eta nola gauzatu litekeen. Ezker Abertzaleak subiranotasunaren aldeko herri estrategiaz hitz egiten du, baina, praktikan, une honetan, eraldaketa prozesu batean murgilduta dago. Eta abertzaletasun historikoan ez dago ezta ere garbi estatus politiko berria erakundetzeko garaian jarraitu beharreko ibilbideaz; izan ere, prozedurak edukietara baldintzaturik ageri dira. Espainiako konstituzionalistekin, gaur-gaurkoz, akordioa posible da (eta beraz prozedura bat adostea posible da) sistema konstituzionalaren barruan eta Espainiaren subiranotasunaren barruan; hortik aurrera egin nahi bada, egungo euskal erakunde sistemak Espainiako erakunde sistemarekin

duen jokabide eredua aldatu egin behar du, eta hori ez da bide erraza. Ez dago ezta ere garbi (eta komeni da honetaz hitz egitea) erabakitzeke eskubidearen erakundetzearen graduazioan eta edukietan abertzaleen arteko adostasuna non egon daitekeen. Trantsizio garaian erreforma/haustura izan zen debatea, baina orain sistema berean burutzen ari da aktore politiko guztien ariketa: zein dira edukiak eta prozedura eraginkorrak? Hori da erantzun beharreko galdera.

Laugarrenik, alderdi politikoak oso lotuta gaude egunekorora eta hauteskunde prozesuetara eta bakoitzak norbere biziraupena ziurtatzera (alderdi politikoekiko atxikimenduak geroz eta aldakorragoak diren garai hauetan), eta egoera horrek arriskuak hartzeko baldintzak gutxitzen ditu eta epe ertain eta luzerako estrategiak erabat mugatzen. Erakunde publikoen kudeaketa bera ere antzeko baldintza aldakor eta koiunturalera mugaturik dago. Bestalde, alderdi politikoak herritarrengandik urruti gaude eta herritarrekiko komunikazioa gehienetan hauteskunde lehiara mugatzen da. Baldintza horietan, gure esparru politikoaren eraldaketa bat aurrera eramatea ez da gauza erraza.

Azkenik, abertzaleen arteko lankidetzari buruz aipamen bat egitea ezinbestekoa da. Lankidetzari hori, lankidetzari zintzoa, ezinbestekoa da, herri eskubideen erakundetzean aurrera egin nahi bada. Urte gehiegi pasa dira lehian, eta lehia horrek sekulako kaltea egin dio gure herriari.

Gure herriaren garapen estrategia berrietan pentsatu beharra dago. Has gaitezen horretan. 🍷

Jabetzeko eta autojabetzeko

Jone Etxeberria

*Sortuko Sozioekonomia arloko arduraduna eta
EH Bilduko Sozioekonomia Mahaiko kidea*

Erabakitze-eskubidea egikaritzeko prozesuak auke-
ra paregabeak eskaintzen dizkigu egungo egoera
iraultzeko, baldin eta estrategian eta epe motz, er-
tain eta luzeko eginbeharretan asmatzen badugu.

Erabakitzeko eskubidearen abiapuntua berori egika-
ritzeko asmoa duen kolektiboaren testuinguru kultu-
ral, ideologiko, politiko, ekonomiko eta sozialean da-
go. Erabakitzeko eskubidea, beraz, kolektiboak berak
erabakitzen duena izango da, baina oso kontuan hartu
beharko da kolektibo hori zein testuingurutan dagoen,
testuinguru horrek determinatu ez, baina baldintzatu
egiten duelako.

Hala, erabakitzeko eskubidea ez denez fenomeno natural
bat eta jendarte-harremanen bidez eraikitakoa denez, jen-
darte horretan dauden botere-harremanen baitan egingo du
aurrera edo atzera. Aurrera egin ahal izateko, botere-harre-
man horien azterketa kritikoa egiteaz gain, botere-harre-
man horiek eraldatuko dituen ekintza eraginkorra diseinatu
beharko da. Ekintza edo strategiari heldu aurretik, ordea,
erabakitze-eskubideaz ari garenean zertaz ari garen argitu
beharko dugu.

Zein erabakitze-eskubidez ari gara?

Sarreraren esan bezala, erabakitze-eskubidea jendarte-eraikuntza den heinean, guk geuk erabaki beharko dugu zer den. Horretarako, ordea, gutxienez bi subjektu zehaztu behar ditugu: erabakitze-eskubidearen subjektua bera eta erabakitze-eskubidea zer den erabakitzen duen subjektua.

Erabakitze-eskubidearen subjektua

2016ko Euskal Herrian, erabakitze-eskubidearen subjektuaz ari garenean, gutxienez bi aukera handi topatzen ditugu: nazioari loturiko subjektua eta lurralde-administrazioei loturikoa. Modu batera edo bestera izan, bi aukeretan topa ditzakegu antzekotasunak: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoari soilik erreparatzen diotenak, Nafarroa ere ekuazioan sartzen dutenak eta Iparraldea ere kontuan hartzen dutenak. Edonola ere, guztiek herriari egiten diote erreferentzia eta guztiek lurralde jakin horretan bizi diren biztanleei egiten diete erreferentzia. Beraz, gaur egun Euskal Herrian erabakitze-eskubidearen subjektuaz ari garenean, lurralde jakin batean bizi diren biztanleen multzoaz ari gara; eta multzo hori nazioaren edo egitura administratibo handien (hiru gehienez) araberakoa izango da, ez genero, klase, arraza edota jatorriaren araberakoa, adibidez.

Berdin gertatzen da 2016ko estatu espainolean; Kataluniako independentzia-prozesuari esker, *derecho a decidir* entzuten duen orok lurralde jakin batekin lotzen baitu eskubide hori, eta normalean Kataluniarekin berarekin eta ez hainbeste Euskal Herriarekin, Herrialde Katalanekin edota Galiziarekin. Berdin dio pertsona horren ustez eskubide hori existitzen den (askotan elementu existentzial gisa hartzen baitute, eskubideak jainkotiarrak edota fenomeno naturalak bailiran) edota eskubide horrek zentzurik duen zalantzan jartzen duen; eskubidea izan ala ez, subjektua egotzi beharko balio, estatu espainoleko lurralde jakin batzuk (nazio zein administrazio) izendatuko bailituzke berehala.

Eta aipatu gabe ez uztearren, erabakitze-eskubidea duen subjektu horrek lurralde bateko biztanleei erreferentzia egiten badie ere, ezin ahantz dezakegu Europako demokrazia burgesei jarraiki, hemen ere, 18 urtetik gorakoez, edota progresistenen kasuan, 16 urtetik gorako herritarrez ari garela.

Beraz, eta gaur egun, ez estatu espainiarrak ez frantsesak ez digutenez erabakitze- eskubide formal bat aitortu, ez eta epe motz-ertainean aitortuko ere, hemendik aurrera Euskal Herria eta herria terminoak erabiliko ditut hedatu den dagoen erabakitze-eskubidearen adiera horren subjektu gisa, nahiz eta jakin subjektu horrek har dezakeen lurralde zatia txikiagoa edo handiagoa izango dela irakurlearen arabera.

Erabakitze-eskubidea zer den erabakitzen duen subjektua

Galdera hau aurrekoa baino aldrebesagoa baina, ez bairik gabe, interesgarriagoa ere bada. Erabakitze-eskubidea ukatuta ere, ez dago zalantzarik haren balizko subjektuan nola baiteko adostasuna egon badagoela, ikus eta entzun bestela Espainiaren batasuna aldarrikatzen duten botere faktiko guztien oldarraldia. Sarreran esan bezala, ez dut zalantzarik erabakitze-eskubidea zer den, berori egikaritu nahi duen kolektiboak, kasu honetan, lurraldeko biztanleek, hau da, Euskal Herriak erabakitzen duela. Alta, erabat inuzenteak izango ginateke erabakitze-prozesu hori gatazkarik gabea irudikatuko bagenu, prozesu razional eta garbi gisa, izan estatu espainol edota frantsesaren baitan, izan Erresuma Batuen baitan.

Erabakitze-eskubidearen aldarrikapenak herri gisa dugun menpekotasun-posizioa bideratzen duten prozesu eta egiturak zalantzan jartzeko nahia islatzen duen heinean, antagonismo argi baterako aukera adierazten du menperatzaile posiziotik ari denarekiko. Are gehiago, erabakitze-eskubidearen aldarrikapena menpekotasuna onartezin bilakatzen ari denean indartzen den heinean, prozesu eta egitura menperatzaileak erradikalki aldatzeko nahia islatzen du. Puntu

horretan, aldarrikapenak *gu* eta *haiek* delakoa definitzen du, eta talka horretan berdin dio eskubide, ezaugarri edota burutze argiaz aritu; *haientzat* berdin dio *gu* erabakitze-eskubideaz, autodeterminazioaz edota independentziaz aritu, estatu espainolaren kasuan, besteak beste, euren Konstituzioaren oinarri sakon eta sakratuena, Espainiaren batasuna, zalan-tzan jartzeaz gain (erabakitze-eskubide formala), erradikalki aldatzeaz ari baikara (erabakitze-eskubide instrumentala). Horrexegatik, Euskal Herria izango da erabakitze-eskubidea zer den definituko duena; baina, sarreran esan bezala, ezin ahantz dezakegu determinatu ez, baina baldintzatzen duen testuinguru kultural, ideologiko, politiko, ekonomiko zein soziala izango dela haren abiapuntua.

Erabakitze-eskubidearen
aldeko borrokak,
herrien arteko
botere-harremanak
eraldatzeko nahia duen
heinean, egungo
statu quo-a aldatzeko
gogoa adierazten du

Horrexegatik iruditzen zait galdera hau askoz ere interesgarriagoa, aldarrikapenaren bokazioa, nahia, gogoa azalarazten duelako, eta hautu formala baino askoz ere erreala-goa delako. Zentzu horretan, erabakitze-eskubidearen aldeko borrokak, herrien arteko botere-harremanak eraldatzeko nahia duen heinean, egungo *statu quo*-a aldatzeko gogoa adierazten du; eta horrek, aurrerago ikusiko dugun bezala, borroka sektorial izatetik borroka integratzaile izatera pasatzeko aukerak eskaintzen ditu.

Erabakitze-eskubidearen erabakigaia

Lehen puntuko pentsamendu-logikari jarraituz, gaur egun nola Euskal Herrian hala estatu espainiarrean, Euskal Herriak edota estatuko nazio edo lurralde administratiboek erabakitzeko dutena hauxe da: euren etorkizuneko estatus juridiko-administratiboa zein izan behar duen. Horrek, ordea, eta

bigarren puntuari atera dugun ondorioari jarraiki, aukerak asko murrizten dizkigu, erabakigaia oso ahaltsua izanagatik ere (euskal estatu propioa, kasu), erabakitze ahalmenak oinarrian izan dezakeen potentzialtasuna estaltzen baitugu. Zentzu horretan, eta sarreran aipatutako estrategia eraginkorra buruan, Euskal Herriaren estatus juridiko-administratiboa erabakitze ahalmenaz hitz egin beharrean, hitz egin dezagun Euskal Herriaren etorkizunak zein izan behar duen erabakitze ahalmenaz.

Boterea guztiaren oinarri

Michel Foucault izan omen zen boterea harreman-multzo gisa definitu zuena, baina haren aurretik, Antonio Gramscik klase sozialen arteko indar-harremanen multzo gisa definitu zuen. Lehenak bereziki botere hori nola exekutatzen den aztertu zuen; bigarrenarentzat, ordea, boterea nola erabili ez ezik, boterea nork duen da garrantzitsua. Euskal Herriaren etorkizunaren kasuan, ezin uka daiteke botere-harremanen nolakotasuna ez ezik, botere hori nork duen zehaztea ere oso garrantzitsua dela. Hori zehazteak beste saiakera-lan sakon bat eskatuko baliguke ere, egungo Euskal Herrian oso kontuan hartu beharko genituzkeen eta askotan azpiratuak geratzen diren zenbait faktore azpimarratu nahi nituzke, modu batera edo bestera, erabakitze-eskubidea gauzatzeko edozein estrategia baldintzatzen baitute.

Neoliberalismoa

Kapitalismoaren azken fase honek sekulako eragina izan du mundu globalizatu honetan errealitateaz beraz dugun ikuskeran. Neoliberalismoak balio-sistema oso bat gehitu dio kapitalismoaren sistema ekonomikoari, individualismoan eta konformismoan oinarritutako balio-sistema, hain zuzen ere. Balio-sistema hori erabat predatzailea da, aurrez edo erresistentzian egon daitekeen edozein balio-sistema irensten baitu.

Egun, mundu mailan, bizitzeko modu bakarra egin da hege-moniko, bizitzeko modu bakar bat gailendu da: *the american way of live* delakoa. Bizimodu hori, estatubatuar gutxi batzuen bizimodua bada ere (gutxiengo zuri, burges pribilegiaduna), guztion zeruertzean iltzatu digute, gure bizitzaren xede bihurtu arte. Kontsentsurako eraikuntza-mekanismoek, euri-lanbro trinkoenaren pare, hezurretaraino sarrarazi digute neoliberalismoaren birproduktzio ideologikoa: norberaren esku dago bizimodu hori lortzearen garaipena edo ez lortzearen porrota. Indibidua da erantzule bakar eta ahalguztiduna, haren testuinguru kultural, ideologiko, politiko, ekonomiko eta soziala (gaur egun, bereziki sozioekonomikoa) ekuazio osotik desagerraraziz. Berdin dio non, nola eta zenbat baliabiderek inajio zaren, gainerakoek dituzten aukera berak dituzu aurrera egiteko. Eta hori guztia gezurra dela begien bistakoa bada ere, egungo Euskal Herrian, lanetik botatzen zaituztenean norberaren porrota da, etxetik botatzen zaituztenean norberaren porrota da eta diru-sarrerak bermatzeko errenta kentzen edo ukatzen dizutenean norberaren porrota da. Bizimodu horrek zuzen-zuzenean elkarren menpekotasuna onartzen duen elkartasunean oinarritutako jendarte-ereduarekin egiten du talka, azken horren arrasto txikiena ere irentsiz.

Baina bada erabakitze-eskubidea gauzatzeko estrategian beste balio-oztopo handi bat: alternatibarik ez dagoelako ustea. Margaret Thatcher izan zen 80ko hamarkadan *There is no alternative* (TINA) adierazi zuena, Francis Fukuyama historiaren amaiera aldarrikatu zuena eta gu, mundu globalizatu honetako herritarrak, berori irentsi genuenak. Mundu mailan gerraren, gosearen edota baliabide naturalen xahuketaren ondorioz milaka hildako eragiten dituen sistema ekonomikoa betierekoa (hau da, jainkotiarra edota fenomeno naturala, ez harreman-multzo baten ondorio) eta, gainera, justifikagarria (neoliberal) dela uste duen jendarteak nekez izango du berori aldatzeko nahia. Eta, hona ekarriz, Hego Euskal Herrian 200.000 langabetu, 300.000 prekario baino gehiago eta 400.000 pertsonatik gorako pobrezia eragiten duen sistema

aldaezina dela uste duen jendarteak nekez izango du berori aldatzeko indarra.

Gurean ere sustraiak botatzen hasia den jendarte-mota horrek bere zilborra eta komunikabide handien zaborra baino ez du unibertso. Individualismoa kritikotasunaren etsai amorratua dugu, eta akritikotasuna eraldaketaren porlanezko arerio.

Hispanozentrismoa

Gai honi buruz asko idatzi bada ere, arreta hispanozentrismo ekonomikora ekarri nahiko nuke, prozesua bera txundigarria baita. Hego Euskal Herriko joera hispanozentrista ezin esan halabeharrezkoa denik, azken urteotan azkartu egin den joera izaki, borondatea arrazoi garrantzitsutzat hartu beharrean baikaude. Hispanozentrismo ekonomikoa elkar elikatzen duten antzeko bi mekanismotan oinarritzen da: Hego Euskal Herriko elite politiko eta ekonomikoaren kaskarkeria eta hego euskal herritarron gutxiagotasun-konplexua.

Azken urteotan, eta bereziki Lehman Brothers handia erori zenetik, Hego Euskal Herriko ekonomia espainiar ekonomia-
ren kopia fidela izan da: bertako finantza-sistema pribatizatu, industria erortzen utzi, bertako ehun produktiboa transnasionalei saldu, ikerkuntzan inbertitzeari utzi, turismoaren aldeko apustua egin, soldaten araberako lehiakortasuna bultzatu... Eredueko ekonomiko espainolaren aldeko apustuak ondorio larriak izan ditu geure ekonomian, Madril bezalaxe, hemen ere, epe motzeko diru-sariei begira, hau da, hatzari begira aritu baitira, ilargiari, hau da, etorkizuna bermatuko duen egitura ekonomikoiari, beharrean. Diru-gosea? Ez, horretarako ari dira eraikuntza-enpresei jaten ematen dien Abiadura Handiko

Gerraren, gosearen edota baliabide naturalen xahuketaren ondorioz milaka hildako eragiten dituen sistema ekonomikoa betierekoa eta justifikagarria dela uste duen jendarteak nekez izango du berori aldatzeko nahia

Treanean guztion dirua xahutzen; kaskarkeria da, gaurko ogia biharko gosea dela ulertzen ez duen zekenarena. Kaskarkeria eta zekenkeria horien adibide gorenenak CANen lapurreta eta desagerpena eta Kutxabanken pribatizazioa ditugu.

Eta zer gertatzen zaigu hego euskal herritarroi? Hegoaldera begira eroso gaudela, beste batzuk baino gehiago sentitzen garela. «Ez gaude hain gaizki», «Espainian okerrago daude», «geure osasun-sistema hobea da», «euskaldunak ez gara hain ustelak»... eta antzekoak esan eta pentsatzen ditugu *statu quo*-aren defendatzaile sutsuenak ditugun komunikabide handiek eta publikoek datu erlatiboz bonbardatzen gaituztenean. Datu horiek beti baitira erlatiboak, estatu espainiarreko batez bestekoarekiko erlatiboak. Geure langabezia-tasa altua dela? Lasai, estatukoa okerragoa da. Geure itxarote-zerrendak luzatzen eta lanpostuak amortizatzen ari direla geure osasun-sisteman? Lasai, estatuko beste lurralde batzuetako osasun-sistema bai dela negargarria. Geure ehun produktiboa eta bereziki industria suntsitzen ari dela? Lasai, Espainian industriarik ere ez dute eta. Ustelkeria kasuak agertu direla? Lasai, Espainiako politikariak askoz ere ustelagoak baitira. Datuak erlatibizatze mekanismo hori ez da inoiz iparraldera, Europako beste herri batzuetara, ezta Europar Batasuneko batez bestekoari begirakoa ere. Eta gu lasai, gogo, eroso, geure agintari euskaldunen kudeaketa ekonomiko ona txalotzen, bertako elite ekonomikoen sen ona miresten eta estatu espainiarrera begiratuz ekonomikoki gauden bezala geratzeko ahaleginak egiten.

Gaur egun Hego Euskal Herrian elite ekonomikoekin lerrokatutako komunikabide handiek eta publikoek sozioekonomia ulertzeko eskaintzen dizkiguten mekanismoak neoliberalak eta hispanozentristak dira. Mekanismo horiei aurre egingo dien plan bat eduki ezean, erabakitze-eskubideak oinarrizko motibazio bat galtzeaz gain, gauden egoerari eustearen aldeko indar gaindiezinak eta, beraz, erabakitze-eskubidearen aurkakoak, sor ditzake: alde batetik, zein erabakitze-eskubide aldarrikatuko baitu subjektu kolektiboa

irudikatzeke gauza ez den jendarteak?, eta, bestetik, subjektu kolektiboa irudikatuta ere, beste baten barruan lausotuz, gutxienez zerbaitetan garaile sentitzen den jendarteak?

Boterea eraiki, eskuratu eta berreraiki

Erabakitze-eskubidea egikaritzea boteretze-prozesu ahaltsu eta bizia dugunez, lehen esan bezala, arrakastaz burutzeko estrategia zehaztu beharko da, eta nago bakarra baino anitza beharko duela izan, edota, bestela, ardatz sendoz osatutako bakarra beharko duela; boterea eraiki, eskuratu eta berreraiki egin behar baita, hirurak batera. Boterea eraikitzea soilik mugatzen bagara, denboraren poderioz emaitza errealik atzeman ezean, elite pribilegiatu eta purista bihurtzera kondenatuko dugu geure burua; boterea eskuratzera soilik mugatzen bagara, herriaren aitortzarik gabeko botere instituzionalaren iruzur axolagabea eta, bereziki, elite ekonomikoen hormigoizko botere-pareta topatuko dugu aurrean; eta, boterea eskuratuta ere, berreraikitzeke bideari ekiten ez badiogu, ustelkeria, errepresio eta burokrazia sistematikora kondenatuko dugu geure herria.

Eraiki dezagun, beraz, boterea. Horixe ari da egiten Gure Esku Dago herrietan kontsultak antolatuz, boterea eraikitzen. Behetik gorako prozesu horretan, ordea, ezin dugu bistatik galdu benetako protagonistak, subjektu eraldatzailea, herri-tarrak direla, ez alderdiak, sindikatuak edota erakunde publikoak. Behetik eraikitzen den boterea, denboraz eraikitzen dena, jendarte-harremanak ulertu eta haien erritmora hazten dena, sendoa da, egonkorra, arerioaren edozein oldarraldiren aurrean eraginkorrena. Geroz eta goxotasun eta maitasun gehiagoz landu, geroz eta emaitza hobeak ematen dituen. Baina... denboran muga bat du, eta, beraz, boterea eskuratzeko planik ezean, zimeldu eta fosiltzeko arriskua izango du.

Osa dezagun, beraz, boterea eskuratzeko estrategia. Kasu honetan, bai, erakunde publikoetako ordezkariak zeresana izango dute, baina ez haiek bakarrik: herri honetan antolatuta

dauden eta erabakitze-eskubidea gauzatzearen alde dauden eragile publiko, kultural, politiko, sindikal zein sozial eta ekonomiko guztiak baitira subjektu. Subjektu horrek Euskal Herriaren erabakitze-eskubidea ukatu eta galarazten dutenekiko kontraboterea artikulatu behar du, konfrontazio-parametroak anbiguetaterik gabe erabiliz. Hala ere, berori osatzeko denbora-tarte bat beharko dugula begi bistakoa da, eta horrexegatik bihurtu da funtsezko behetik gorako eraikuntzak ahalik eta protagonismo gehien eskuratzea.

Era berean, estrategia horren bidez eskuratzen den boterea berehala berreraikitze-prozesuan jarri behar da, herritarren esku jarri behar da, desegin eta berriz ere eraikitzeko, eskuratutako boterea indarkeria eta bortxan oinarritutako boterea izan baita. Berori sustraietatik eraldatu ezean, herritarren interesen aurka egingo duen boterea baino ez da izango.

Hodei teorikotik lurreratzen

Idazkiaren lehen zatian, subjektu eta erabakigaiaren inguruko zenbait deskribapen soil egin ditut, inongo azterketa soziologikotan oinarritu gabe, hau da, esperientzian eta behaketa soilean oinarritzen diren bi iritzi mahaigaineratzeke: erabakitze-eskubidearen aldarrikapenaren oinarrian

Subjektu horrek
Euskal Herriaren
erabakitze-eskubidea
ukatu eta galarazten
dutenekiko
kontraboterea
artikulatu behar du

aldaketa-nahia dago, hau da, euskal estatu propio baten edo independentziaren nahia (kontzeptu horien bereizketa teorikoa da eta ez du zerikusirik aldaketa nahi edo gogoarekin); eta, Euskal Herriaren estatus juridiko-administratiboaz galdetzea baino interesgarriagoa da herritarroi zein Euskal Herri nahi dugun galdetzea.

Bigarren zatian, aldiz, etorkizuneko Euskal Herria irudikatzerakoan egingo euskal jendartearengan neoliberalismo

eta hispanozentrismoak izan dezaketen eraginaz aritu naiz, faktore horiek kontuan hartu ezean, «zein Euskal Herri nahi duzu» galderari erantzuterakoan, ikuspuntu sozioekonomikotik aldaketa-nahia lausotu eta kontrara bihur baitaiteke. Eta, bestalde, erabakitze-eskubidea egikaritu ahal izateko diseinatu beharreko estrategiak, herri-estragiak, anitza eta hainbat frontetakoak izan beharko duela adierazi dut, eta, beraz, prozesua eragile orotarikoa, erritmo anitzekoa eta mugurri, txiki zein handi, askotarikoa izango dela.

Eta gaia behin lurreratuta, herri-estragia definitzearekin batera, eginbehar zehatz batzuk jarriko nizkioke geure buruari: etorkizun berri horren ezaugarritzea eta burujabetzen artikulazioa.

Euskal Estatua ezaugarritzeko beharra

Erabat ados nago Euskal Estatua ezaugarritzen hasi behar dugula diotenekin, azken finean, eskubide abstraktu batek baino, egoera hobera eramango gaituelako usteak mugituko baikaitu harantz. Euskal Estatuaren beharraren aldarrikapenak bultzatuko du jendartea erabakitze-eskubidearen alde mugiaraztera. Eta mugitu diot, bozka bat kaxa batean sartzearekin ez baititugu geure ordezkari politikoak ezer egitera behartzen, begira bestela egungo eta etorkizuneko Gasteizko Legebiltzarra eta Nafarroako Parlamentua.

Begira diezaiogun, adibidez, estatu espainiarrari eta pentsa dezagun Euskal Estatu propioa izanez gero, zer aldatuko litzatekeen: lan-baldintzak hobetuko lirateke hemen lan-erreforma horiek onartuko lituzkeen erakunderik ez bailitzateke egongo; pentsioak hobetuko lirateke, Euskal Estatuak espainiarrak baino baliabide gehiago izango bailituzke; LOMCERik ez litzateke aplikatuko, hemen PPK ez baitu inolako indarririk; abortu-eskubidea bermatua legoke, euskal jendartean espainiarrean baino erro sendoagoak dituen aldarrikapena izaki (PPren eragin-gaitasuna horren adibide), alderdi bozkatuenek ez bailukete haren alde egingo; herritarren

mobilizazioari esker, *fracking*-a debekatua legoke Gasteizko eta Iruñeko parlamentuetan erabaki lez; euskarak loratzeko askoz ere aukera gehiago lituzke kanpo-injerentzia etengabeen indarrak xahutu beharrean. Horiek guztiek badituzte *baina* garrantzitsuak, baina adibide horiek guztiek ematen digute aukera ideien trintxera errealean aritu ahal izateko.

Euskal Estatu, burujabetzaz harilkatutako oihala

Euskal Estatu geure erabaki propioak hartu ahal izateko nahi dugu, geure baliabideak kontrolatu eta geure beharrak nola

Burujabetza feminista,
burujabetza ekologista
eta burujabetza
ekonomikoaren
aldarrikapenek dute
Euskal Estatuaren
eraikuntzan gehien
eragiteko aukera egun

ase nahi ditugun erabakitze-ko. Ez estatu espainiarrak eta ezta frantsesak ere ez dituzte geure behar kultural, ekonomiko eta sozialak asetzen, eta, egoera horren jabe, burujabetzaren alde egiten dugu. Burujabetza-nahira iristeko bideak, ordea, orotarikoak dira, norberaren behar eta nahiak bezalaxe; egin beharrekoa horiek guztiak elkar harilkatzea

da. Burujabetza asko bereiz ditzakegu: burujabetza feminista, burujabetza ekologikoa, burujabetza sozioekonomikoa, hezkuntza-burujabetza, hizkuntza-burujabetza, energia-burujabetza, elikadura-burujabetza... Erabakitze-eskubidea aldarrikatuz Euskal Estatuaren nahiak mugiaraziko dituen herritarrek burujabetza desberdinak adina motibazio izan ditzakete eta, behetik gorako botere-eraikuntzaren estrategian, gaur egun horietako zeintzuk izan daitezkeen giltzarri asmatu beharrean gaude.

Nire iritiz, burujabetza feminista, burujabetza ekologista eta burujabetza ekonomikoaren aldarrikapenek dute Euskal Estatuaren eraikuntzan gehien eragiteko aukera gaur egun. Hiruretan hirugarrena bada ere ibilbide heterogeneoena egin

duena, testuinguru sozioekonomikoak behartuta, nahitaez eragin gaitasuna biderkatuko duen aldarrikapena izango da. Beste biak, nahiz eta herritarren kezka nagusietara iristeko zailtasun gehiago izan, hiru printzipio sendoren jabe dira: feministek eta ekologista ekintzaileek badakite egungo eredia ez dutela nahi, badakite egungo eredia alda daitekeela eta eredia errotik eraldatu nahi dute. Horiek guztiak nahikoa arrazoi iruditzen zaizkit bazterrak erdigunera ekartzeko ahallegian, hiru burujabetza horiei bultzada berezia emanez.

Konklusio modura

Erabakitze- eskubidea egikaritzeko bidea oso konplexua da, egungo testuingurua bera konplexua delako. Horrexegatik, are arrazoi gehiagorekin esan dezakegu bidea bera helmuga baino garrantzitsuagoa izango dela, bideak berak emango baitigu helmugaren nolakotasuna. Bideak gure herriaren ahalduentze-prozesua behar du izan, baina ez kapitalismoak saldu nahi digun ahalduentze deskafeinatu eta akritiko hori, benetako ahalduentzea baizik, botere-harremanak irauli eta zapaltzen gaituzten prozesu eta egiturak errotik aldatzen dituen ahalduentzea. Horrela, erabakitze- eskubideak herri-tarrok geure etorkizuna erabakitze-ko dugun eskubideari egingo dio erreferentzia eta ez estatus juridiko-administratibo huts bati; hala, Euskal Estatua ez da egungo ordena birproduzitu-ko duen ikurrin huts bat izango, burujabetzaz josiriko oihala baizik.

Goierriko herri-galdeketo-ko galdera zehazteko Idiazabalgo frontoian elkartu ginenean, herritar gisa nire iritzia hurbildutakoekin partekatu banuen ere, herri-galdeketo-tan (pluralen) galdetu beharko litzatekeenaz nire iritzia *jakin* nahi duzuenontzat... herriak erabaki dezala. 🍷

Prozesu konstituziogileak, gizarte ahalduntzea eta erradikaltasun demokratikoa

Laura Pérez Ruano

Nafarroako Ahal Duguko idazkari nagusia

Ahal Dugun, *erabakitzeko eskubidea* jendearekin, bere ahalduntzearekin eta erradikaltasun demokratikoa sakontzearekin lotzen dugu. Horregatik, zeri buruz eta zertan erabaki nahi dugun galdetzen dugu, eta ea horrek zer zerikusi duen egin nahi dugun *politika berriarekin*.

Ahal Duguren asmoa ez da muga eta estatu-errealitate berririk sortzea; baina ez dugu *debaterako eskubidea* –aukera guztiak maila berean konfrontatzeko eskubidea– ukatu nahi. Egia da banderarik ez dugula astintzen; hiritar kontzienteen, demokraziari beldurrik ez dioten eta mugak jartzen dizkien ordena konstituzionala iraultzera ausartzen diren hiritarren ahalduntze eta burujabetzaz hitz egiten dugu. Orduan, zeri deitzen diogu *erabakitzeko eskubidea* Ahal Dugun?

Demokraziari berezkoa zaion auzia

Gure ustez *erabakitzeko eskubidea* demokraziari berezkoa zaiola erakusten saiatuko gara hemen. Pertsona gisa eta kolektibo bateko kide gisa –gizarte zein hiritargo– askatasunerako dugun eskubidearen barnean kokatzen dugu. Octavio Pazek honela zioen, «demokraziarik gabe, askatasuna kimera

bat da»; izan ere, bizitzeko eskubidea bezala, askatasuna da gizarte demokratiko baten gainerako balioak argitzen dituen eskubidea. Askatasun, justizia eta berdintasunik gabe ezin dira pertsonen duintasuna eta nortasunaren garapena bermatu. Azken buruan, *erabakitzeko eskubidea* gizakiari berezko zaion zerbait bailitzan ulertzen dugu, bere existentziaren esparru guztietan autoantolatzen dena, pertsonal eta intimoenetik goiko esferataraino, zein gizarte mota nahi dugun eta geure burua nola antolatu edo ordezkatu nahi dugun birpentsatzeko eskubideraino.

Erabakitzeko eskubideak kultura demokratiko bat sustatzea dakar, non debateak eta ideien konfrontazioak, bizikidetzeta eta errespetuzko esparru batean, posible ez ezik desiragarriak diren. Ahal Duguren iritziz, prozesu demokratikoa helburua bera bezain garrantzitsua da; horrenbestez, erabakitzeko eskubideari buruz debatitzea beti da positiboa, berori gauzatzeko ditugun zailtasunak agerian uzteko, besterik ez bada.

Maila psikologikoko zailtasunak ditugu, batetik. Izan ere, gizarte inguruneak eta ideologia nagusiak ezartzen dituzten balio ukaezinak barneratuta ditugu errepikapenaren bitartez, eta, horrenbestez, ezarrita dagoena auzitan jartzea eta geure berezko irizpidea garatzea eragozten digu.

Maila sozialeko zailtasunak ere badira, bestetik, gure ingurunearen, gure familiaren eta gure taldearen ikuspuntuak hartzera bultzatzen gaituztenak. Erljioak ez du beti lagundu maitasun eta bizikidetzeta balioak zabaltzen; aitzitik, pentsamendu libreria iristea zaildu duten jokabide autoritario eta dogmatikorako jarraibideak ere inposatu izan ditu.

Lege esparruak ere ez du *erabakitzeko eskubidearen* aplikazioa errazten. Egungo Konstituzioak hauteskunde-erregimenak jarraitu behar dituen irizpideak ezartzen ditu: alderdi-bitasuna errazten duen sistema bidegabea blindatzen du, ordezkariak txikiagoa duten taldeak neurritz kanpo kaltetzen dituen, eraginik izateko tarte eskasarekin geratzen direlarik. Zentzu horretan, nahiz eta alderdiak izan herri burujabetza-ren benetako bideratzaile bakarrak, ez dago horien barne

demokrazia bermatuko duen mekanismo eraginkorrik. Herri Ekimen Legislatiboek, estatu-legeetarako notario aurrean egiaztatutako 500.000 sinadura behar izateaz gain, ez dute jokatzen lege organikoei –hots, garrantzitsuenei– atxikitako gaietan, zerga auzietan edo nazioartekoetan, eta ezta grazia eskumenetan ere. Hala ere, lege oztopo guztiak gaindituz gero ere, Gorte Nagusiak edo legebiltzar autonomikoak ez daude horiek debatitzera behartuta. Erreferendumak, bestalde, lotesleak ez izateaz gain, «garrantzi bereziko erabaki politikoetarako» soilik aurreikusten ditu Konstituzioaren 92. artikulua. Baina botere publikoek –Auzitegi Konstituzionalak barne– artikulua horretaz egiten duten aplikazio praktikoak eragozten du erreferendumak abian jartzea. Interpretazio murriztaile horren ondorioz, halakoren bat planteatzen den gutxietan (erreferendum katalana, kasu), *statu quo*-ak eta horri eusten dioten alderdiek errotik mozten dute herritarren parte hartzerako edozein ekimen.

Erabakitzeko eskubidea gizakiari berezko zaion zerbait bailitzan ulertzen dugu, bere existentziaren esparru guztietan autoantolatzen dena

Botere mediatikoak ere –78ko *Erregimenaren* interesen zerbitzari gisa sarritan agertua– ez du herritarren parte hartzea eta *erabakitzeko eskubidearen* garapena laguntzen, herritarren ekimenak proposamen erradikal, subertsibo eta estatuaren egonkortasunarentzako arriskutsu modura aurkezten baitituzte.

Gizarteratze prozesuan transmititu diren osagai horiek guztiek eraiki duten kultur esparruan, oso adoretsua izan behar da desberdin pentsatu eta, ondorioz, kontzientzia osoz erabakitzeko. Horregatik guztiagatik, *erabakitzeko eskubidea* gauzatu ahal izateko, gaitasun egokiak garatu eta landu behar ditugu: adierazpen libreko jarduerak eta ikuspuntu ezberdinen errespetuzko debatea sustatu eta erraztu; hiritarren iritzia jaso eta parte hartzea bultzatu hasierako hezkuntza faseetatik

bertatik –familiar zein eskolan–, bizitza sozial, laboral eta politikoko parte hartzearen aurrekari gisa. Horregatik azpimarratzen dugu hainbeste *Hezkuntza Publiko, laiko eta kalitatezkoaren* premia, balio demokratiko eta pluraletan oinarritutako hezkuntzak soilik berma baitezake, dogma guztietatik at, espiritu kritiko eta librearen garapena. Iritzia adieraztea –banaka zein taldeka–, mota guztietako gizarte aldarrikapenak babestea: erakundeek beraiek sustatu beharko lukete, eta gizarreak onartu eta prestigiatu. Errotik, oinarri-oinarritik defendatzen dugu *erabakitze eskubidea*, eta uste dugu herritarrok gero eta esparru garrantzitsuagoetan erabaki ahalmena izateko agertoki baterantz hurbilduz joan behar dugula.

Esparru ekonomikoan erabaki nahi dugu, lege fiskalen eta aurrekontuen eraketan parte hartuz, gure dirua zertan inbertitu nahi dugun (aurrekontu parte hartzaileak) eta gure lehentasunak zein izan behar duten erabakiz. Hiritarren parte hartzea eta *erabakitze eskubidea* indartu nahi ditugu banku publikoa berreskuratuz (desagertutako Nafarroako Aurrezki Kutxa) eta banku kooperatiben eta oro har banku etikoaren sorrera sustatuz.

Kontu publikoen ikuskapenean parte hartu nahi dugu, zorpetze mekanismoak eta horien arduradunak zein izan diren ezagutu; eta aurrekontuen eragin ekonomiko, sozial eta ingurumenezkoa analizatu ondoren, emaitzak publiko egin nahi ditugu herritarrek erabaki ahal izan dezaten beraiek jakin gabe eta beren interesen aurka hartutako zor bat onartu behar duten ala ez. Hau da, zor publikoa eta zor pribatua guztiz bereizi behar dira. Herritarrek eta estatuak hartu beharko lukete zor publikoaren ardura, baina ez zor pribatuarena. Beraz, lehena zor legitimotzat hartuko da, eta bigarrena zor ilegitimotzat.

Lan esparruan erabaki nahi dugu, ekintza sindikala erraztuz haren autonomia ukitu gabe, eta langileek enpresen kudeaketan parte hartzeko baldintzak sortuz.

Gurea den edo guri dagokigun guztiari buruz nahi dugu kolektiboki erabaki: Bardeetan tiro eremu bat nahi ote

dugunetik hasita, gure herriak gureak ez diren gerretan militarki esku hartu behar ote duen onartzeraino.

Eta askatasun osoz erabakitzeke, hainbeste itsutu gaituen frentismo identitarioarekin amaitu behar dugu Nafarroan. Premiazkoa da gure aniztasun linguistiko, folkloriko, klimatiko, paisajistiko, gastronomiko eta kulturalaren gozamenen oinarritutako nafar identitate berri baten taxuketa erraztuko duen desintoxikazio prozesu bat. Gure aniztasunean elkar entzun eta ulertu behar dugu berriro. Aniztasun barne hartzaile horrek denbora tarte bat eskatzen du, komunitate eta herri honetako jendeen berradiskidetze prozesu bat; frankismoaren itzal luzea, gerra zibilaren ahanztura tragikoa eta frankisten babespean sortu eta Trantsizio odoltsu batetik igaro den demokrazia hauskorra ezereztea.

Iraganetik askatu, etorkizunerantz abiatu... Bere herriaren, bere jendearen erabakien beldurrik izango ez duen demokrazia oso bat eraiki denon artean...

Hiritarrak gobernu ekintzaren erantzunkide

Erabakitzeke eskubidea erabiltzea egun bakar batean plebisizitu bat antolatzetik harago doa: hiritarrak gobernu ekintzaren erantzunkide bilakatu behar ditu. Herritarrek parte hartzen duten prozesuak oro serio hartu behar dira, eta gobernu sistemaren motor gisa barneratu. Begira dezagun Suitzara, kasu: herritar guztiei dagozkien auziez botoa ematea ariketa ohiko eta normalizatua da. Gure herrian ez bezala, Suitzian ez du gobernuko lehendakariak erabakitzen gai bati buruzko erreferenduma egin ala ez; aitzitik, Konstituzioak berak arautzen du hainbat eta hainbat kasutan derrigorrez egin behar direla: Konstituzioa aldatzeko, segurtasun kolektibo edo supranazionaleko antolakuntzaren batean sartzeko, lege aldaketak berresteko edo lege ekimen herritarrak onartzeko... Behin prozesu horiek amaitu direnean, ideia bat zein aurkakoa onartzen duten guztien eskubideak geratu dira indartuta, erabakia, emaitza gorabehera, debate kolektiboaren ondorio izan delako.

*Erabakitze*ko eskubidearen ariketa normalizatuak kontzientzia sozial eta politiko sakonagora gidatzen ditu hiritarrak, eta kontzientzia horrek kolektiboari on egiten dioten erabakiak hartzera bultzatzen ditu, ikuspuntu pertsonalista hutsari itzuri eginez. Horrela, Suitzan, adibidez, zeharkako zergak igo dituzten legeen aldeko botoa ematera iritsi dira, *a priori* boto emaileen interes pribatuen aurka joan arren. Ildo horretan, demokrazia sakonduko duten prozesu konstituziogileen aldeko apustua egiten dugu, hiritarren parte-hartze mekanismo gehiago ezarriz.

Egungo hauteskunde legearen tranparik gabeko sistema demokratiko bat, alegia; izan ere, lege horrek alderdi-bitasunaren alde egiten du eta boto guztiek balio bera izan dezaten eragozten du. Demokrazia demokratizatzeko zaindari onenak hiritarrak berak dira, eta, horretarako, lau urtetik

Erabakitze
eskubidearen ariketa
normalizatuak
kontzientzia sozial eta
politiko sakonagora
gidatzen ditu hiritarrak,
eta kolektiboari on
egiten dioten erabakiak
hartzera bultzatzen ditu

behin botoa ematek harago doazen parte hartze lanabesak taxutzea proposatzen dugu. Mekanismo horien bitartez, hiritarrek herri kontsulta bat abian jarri ahal izan beharko lukete, arau bati aurre egin, hiritarren deliberazio prozesuei ekin, edota herri ekimen legislatiboak proposatu, baina betorik gabe, egungo Konstituzioak lege organiko, zerga auzi edo nazioarteko gaiei jarzzen dien bezala.

Hauteskunde programak hiritarrekiko kontratu gisa ulertu behar dira. Horrenbestez, horiek ez betetzekotan, ezeztatzek ahalbidetu beharko lirake; hots, edozein kargu publiko ezeztatu ahal izan dadila erreferendum bidez, dagokion konstituzio aldaketa eginda. Demokrazia botere banaketa hutsa baino zerbait gehiago da, kontrapisu eta kontrabote-reak behar ditu benetakoa izan dadin.

Ekonomiaren demokratizazioa eta gizarte eskubideen blindatzea

Hiritarrek botere politikoa botere ekonomikoarekin lotzen duten kateak hausten dituztenean soilik izango da eraginkorra *erabakitzeke eskubidea*. Ustelkeria, izan ere, erakundeen perbertsioetik sortzen da, beren karguetan betikotzen diren ordezkariak, botoen aginduari men egin beharrean, eragile ekonomiko handiak ordezkatzeko hasten direnean. Ate birakariak deuseztu behar dira, kargu publiko bat betetzeari uztetik esparru profesional bereko ekimen pribatuan esku hartzen hasteraino hamar urteko epea ezarriz gutxienez. Kontratazio publikoen gardentasunak soilik berma dezake hiritarren kontrol zorrotzagoa.

Dagoeneko Ahal Dugun funtzionatzen duen eredia aplikatu nahi dugu erakundeetan: kristalezko hormak eta patrikak, administrazio publikoek egindako kontratuen dokumentazio guztira sarbidea ziurtatzeko. Gardentasuna guztian eta guztientzat: titulartasun edo finantziario publikoa duten erakunde guztietan kontuak emateko betebeharra, baita estatuburutzan, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusian, alderdi politikoetan, sindikatuetan eta enpresa antolakuntzetan ere. Gobernatu nahi duenak hauteskondeetara aurkeztu behar du. Debekatu egin behar da herri burujabetza ordezkarien leialtasunak erosiz bahitzea: horrela, kargua hiritarren interesak zerbitzatzeko erabili beharrean norberaren onurarako erabiltzen dutenak ezeztatzeke mekanismoak eratu beharko lirake. Horiak dira troikaren eta merkatuen interesetara makurtzen direnak, eskubideak murrizten dizkigutenak eta arlo ekonomikoan erabakitzea eragozten diguten aurrekontu-egonkortasun legeak inposatzen dizkigutenak... Konstituzioaren 135. artikulua aldaketa indargabetu behar da, eta defizita betetzeko xedek funtsezko premiei (osasuna, hezkuntza, justizia...) kendutako diruak hiritarrei itzuli.

Europazale sentitzen gara, baina botere ekonomikoa botere politikoaren eta hiritarren borondatearen gain egotea

ahalbidetzen duen Europako Konstituzioaren aurka gaude, non Europako Legebiltzarrak botererik ez duen eta, bestalde, inork aukeratu ez duen eta banku pribatuaren zerbitzura eta gobernuen interesen aurka dagoen Banku Zentral bat dagoen. Herrien eta pertsonen zerbitzura egongo den Europako Konstituzio bat nahi dugu. Europa bai, baina ez horrela.

Ekonomiaren demokratizazioan eta gizarte eskubideen blindatze konstituzionalean sinesten dugu. Ez dago askatasunaz edo duintasunaz hitz egiterik, Nafarroan 90.000 pertsonak afaltzearen ala berogailua piztearen artean hautatu behar badute, lana izan arren pobre izaten jarraitzen badugu, edo oraindik ere emakumeen ugalketa eskubideak ukatzen badira, gure gorputzen gain erabaki dezagun eragotziz. Krisia lehertu zenetik, zerbitzu publikoetarako sarbidea murriztu duten austeritate politikak pairatu dituzte herritarrek; emakumeentzako zama gehigarria ekarri du horrek, sarritan zerbitzu publikorik ezean *koltxoi* gisa jokatu baitugu.

Eskubideak ez dira hutsalak, demokraziaren oinarri baizik. Hiritar guztiek izan behar dute konstituzionalki onartutako eskubideetara sarbidea bermatuta. Eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturek oinarrizko eskubideen berme juridiko eta maila eta defentsa berdina eduki behar dute, Konstituzioaren 10. artikuluko duintasun printzipioaren onarpena benetakoa izan dadin. Jende guztiak du bizimodua atera eta bizitza duina bizitzeko eskubidea. Ez da onargarria lan egin eta pobre izatea, lan ordu asko egin eta huskeria bat irabaztea; ezer baino lehen, ongizate-eskubidea lehenetsi behar da.

Sozialki beharrezkoa den lanaren eta sozialki ekoiztiko aberastasunaren banaketarantz jo dezagun, herrialde aurreratuenean egiten duten bezala. Kalitatezko lana sortzeak izan behar du politika ekonomikoen xede nagusietakoa, defizit publikoaren murrizketaren aurretik. Balio duten kontu bakarrak pertsonak krisitik ateratzen dituzten kontuak dira. Mendeko pertsonen, autonomia funtzional erabatekoa izan dezaten, arreta eta zaintza jasotzeko duten eskubidea konstituzionalki unibertsalizatu eta bermatu behar dugu, denok

independenteak izan gaitzen, bai zaintza behar dutenak, bai zaintzen dutenak. Gure guraso eta aitona-amonek lortutako ongizate gizartearen defentsa da motor ekonomiko onena.

Hainbat nazio, estatu bat, konstituzio malgu bat

Gure bizitzari eta etorkizunari buruz erabaki nahi dugu. Baita lurralde auziari buruz ere. Historian zehar aurrera gehien egin duten herrialdeak hauexek izan dira, beren zatien askatasuna eta osotasunaren antolakuntza orekatzen jakin dutenak. Gure lurralde ereduak modernizatu egin behar du hilko ez bada, bere partaideei askatasun nahikoa eskainiz autonomian haz daitezen eta, aldi berean, berdintasun printzipioan oinarrituz denok batera etorkizun hobearen alde lan egin dezagun, behekoek beti erakutsi duten anaitasunez. Espainia herrien herria da, nazioen nazioa: politikan, eta bereziki nazio identitateei dagokienez, sinbolikoa ekonomiko hutsa den hura bezain garrantzitsua –edo garrantzitsua– izatera irits daiteke. Zentzu horretan, estatuaren izaera plurinazionalaren edo estatuko hizkuntza guztien koofizialtasunaren onarpenetik eraikitako herrialde horretan, bertatik joan nahi duen guztiak izango luke joateko askatasuna, baina inork ez luke joan nahiko.

Ahal Dugukook konstituzio berak taxututako estatu baren barnean bizi diren nazioen bizikidetzat defendatzen dugu.

Honelako estatu batez ari gara, nazionalitate ezberdinak limurtu eta biltzeko, beren artean ezagutu eta aberasten diren pertsona eta kulturak hartzeko gai den batez. Estatu plurinazional batek komunitate politiko ezberdinen koexistentzia sortzailea eskatzen du, eta deszentralizazio politiko eta

Espainia herrien herria da, nazioen nazioa: politikan, eta bereziki nazioen identitateei dagokienez, sinbolikoa ekonomiko hutsa den hura bezain garrantzitsua izatera irits daiteke

administratiboari lehentasuna ematen dion demokrazia pluri-nazionalaren ideiarekin lotzen gaitu, gizarte talde eta sektore guztien parte hartzea amesten duen sistema administratibo kulturalki heterogeneoaren ideiarekin, alegia. Hau da, estatu askotariko, deszentralizatu, birbanatzaile, antiburokratiko eta demokratikoaz ari gara, kulturartekotasunean oinarritua, ‘nazio bat estatu bat’ ideia napoleonikoaren aurka dagoena eta autonomien egungo eredia gainditzen duena. Aldeak alde, badugu zer ikasi plurinazionaltasunaren boliviarreredutik: 36 nazio eta 34 hizkuntza ofizial onartzen dituen konstituzioak herrialde historikoki zatituaren gizarte kohesioa sustatu du.

Egungo esparru konstituzionala

Hala eta guztiz ere, egungo esparru konstituzionalean, aukera hori pentsaezina da. Bigarren artikulua ezartzen duenez,

Konstituzioa Espainiako nazioaren batasun zatiezinean oinarritzen da, hura baita espainiar guztien aberri komun eta banaezina; Konstituzioak aitortu eta bermatu egiten du Espainia osatzen duten nazionalitate eta herrialdeen autonomia-eskubidea, bai eta horien guztien arteko elkartasuna ere.

Herrialdeen autonomia aitortuta ere, estatuko ordenamendu juridikoa eta autonomia erkidegoetako ordenamendu juridikoak ez dira maila hierarkiko berean kokatutako piramide paraleloak, guztiz alderantziz baizik: estatuko ordenamenduak nagusitasun estatusa du, zuzenbide estatalak autonomikoen gain dituen nagusitasun eta ordezkotasun printzipioek erakusten dutenez (Konstituzioaren 149.3. artikulua). Estatuko ordenamendu juridikoaren nagusitasun hori are larriagotzen da, Nafarroan ikus dezakegun bezala, lege autonomikoak behin eta berriro Auzitegi Konstituzionalean errekurritzen eta *sine die* etenda gelditzen baitira, errekurritutakoak estatuko legeak direnean gertatzen ez den bezala. Auzitegi Konstituzionalak kasu horietan bost hilabete epean ebaztera behartzen duen bere Lege Organikoa bera ez betetzeak Nafarroaren autonomia legegilea eragotzi

eta herri burujabetza erasotzen du zuzen-zuzenean, eta, ondorioz, baita sistema demokratikoa bera ere.

Bestalde, Konstituzioak aipatzen duen «nazionalitate eta herrialdeen autonomia-eskubidea» bateraezina da 145. artikulua autonomia erkidegoen balizko federazioari ezartzen dion debeku esplizituarekin, Nafarroarentzako aurreikusitako laugarren xedapen iragankorra salbuetsiz:

1. Nafarroaren kasuan, eta berori Eusko Kontseilu Nagusian edo horren ordezkotza izango den euskal autonomia-erakundearen kasuan, Konstituzioaren 143. artikulua ezartzen duena bete beharrez, foru-erakunde eskudunak izango du ekimena; erakunde horrek erabakia hartuko du, bera osatzen duten kideen gehienek. Ekimen hori baliozkoa izan dadin, nahitaezkoa izango da, gainera, foru-erakunde eskudunaren erabakia erreferendumen bidez berrestea; horretarako beren-beregi deialdia egin beharko da, eta, baliozkotasunez emandako boto guztietatik, gehienek onepena eman beharko dute.

2. Ekimenak aurrera egiten ez badu, hori ezin izango da errepikatu foru-erakunde eskudunaren agintaldi berean, beste batean baizik, eta, edozein kasutan, 143. artikulua ezartzen duen gutxieneko epea igaro arte.

Konstituzioak Euskal Autonomia Erkidegoarekin lankidetzan aritzeko formula hori eskaintzen duen arren, laugarren xedapen iragankor horrek aurreikusten duen prozedura ez da guztiz demokratikoa Ahal Dugun *erabakitzeke eskubideari* buruz dugun ikusmoldearen arabera.

Gure iritziz, berrikuspen konstituzionala ezin da bulegoetatik, gobernu kabineteetatik eta legebiltzarren egoitzetatik soilik abiatu; izan ere, herritarrek beraiek jarri beharko lukete mahai gainean, horretarako moldatutako lege mekanismoen bitartez. Horrela balitz, Ahal Duguk debate prozesuak sustatuko lituzke eta herritarrek parte-hartzeko eta herritarrei kontsultatzeko eskubidea babestuko luke. Nafarroa osoak, herriz herri eta merindadez merindade, debatean parte har dezan nahi genuke. Ezin dugu eskualdeen aurkako Iruñearen zentralismoaren susmo izpirik sortu. Logikoa litzateke, orobat, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek ere lurralde

berri bat hartzeko egokitasunari buruzko debate prozesu bati ekitea.

Iraganean ere egon izan dira herrialdeak beren kideen bo-rondatearen arabera definitu eta egituratzea ahalbidetzen zu-ten formulak. Zehazki, 1931ko Espainiako Konstituzioaren 11. artikulua (lurralde egiturari dagokionez ez zuen Errepu-blika Federal bat planteatzen, estatu integral bat baizik) hain-bat baldintza ezartzen zituen «ezaugarri historiko, kultural eta ekonomiko komunak dituzten probintzia mugakideak» autonomia gisa egitura zitezen: eskaera udalen gehiengoak egitea eta hautesle-erroldan izena emandakoen bi herenak

Nafarroa osoak debate konstituziogilean parte har dezan nahi genuke. Logikoa litzateke EAEko herritarrek ere lurralde berri bat hartzeko egokitasunari buruzko debate prozesu bati ekitea

erreferendumean berrestea. Eta 22. artikulua probintzia bat lurralde autonomotik ir-tetea ahalbidetzen zuen aipa-tutako baldintza berak betez gero. Kontua ez da iraganeko ereduak berreskuratzea, bai-zik eta egungo errealitatearen eta une historiko bakoitzean hiritarrek eskatzen dutenaren arabera aurrera egitea.

Bestalde, finantziario ere-duari dagokionez, ekitate, lurralde-justizia eta lurralde

arteko elkartasunean oinarritu beharko lukeela deritzogu. Baliabideen banaketak ekitatiboa izan behar du, lurralde ba-koitzak bere eskumenak garatu ahal izan ditzan. Onartezina da gobernu zentralak kutxaren giltza erkidegoak hauteskun-de-interesen arabera zigortu edo saritzeko erabiltzea. Aitzitik, lurralde bakoitzaren gizarte premien araberrako finantziario bidezko eta solidarioa bermatu behar du. Nafarroan Itun Ekonomikoa eta gure zerga autonomia defendatzen ditugu, ekonomia demokratizatzeke eta gure aberastasuna birbana-tzeko lanabes gisa gizarte justiziaren zerbitzura jartzen di-renean; baina, guretzat bezalaxe, eskubide hori erabili nahi

eta ahal duten beste lurralde eta herrialdeentzako ere berdin-berdin defendatuko dugu.

Azken buruan, Espainiako estatua ez da beldurrez eraiki behar, alaitasunez baizik, bere dibertsitatea onartu, errespetatu eta lantzen duenean eta bere aniztasuna eta aberastasuna biltzeko gai denean indartu eta bizkortzen den herrien herri edo nazioen nazio gisa. Aniztasuna sendotasun gisa ulertzearekin lotzen da hori, eta ez ahultasun gisa; eta egungo Konstituzioak halakorik ahalbidetzen ez duen heinean, funtsezkoa da behe-behetik prozesu konstituziogile ezberdinak bultzatzea, lurralde bakoitzaren izaera onartuko dutenak eta konstituzio moderno eta malgu baterantz joko dutenak, non nazionalitate eta identitate guztiak integratuta sentituko diren.

Ez dago demokraziaranzko biderik, demokrazia bera da bidea; eta horrexegatik egiten dugu gure herrialdea osatzen duten herriek askatasun osoz erabakitzeke eskubidea onartzearen aldeko apustua.

Aldaketa eta transformazio handiek gizarte erne, adi eta kontzientea eskatzen dute. Aldez aurreko baldintza da, horretarako, modu plural, demokratiko eta kontrastatuan informatua izateko eskubidea; hau da, botere faktikoen interesen mende ez dauden, aniztasun politikoaren isla izango diren eta iritzi publiko librea ahalbidetuko duten hedabideak bermatzea.

Makillaje hutsezko erreforma partzialak alde batera utzita, *erabakitzeke eskubidea* bere osotasunean onar dadin, Ahal Dugutik herritarren prozesu konstituziogile parte hartzaileak sustatzearen aldeko apustua egiten dugu, herrialde egitismo berri bati molde legal eta juridikoa, geure burua gobernatzeko modu berri bat emango diotena, non erabakitzeke eskubideak bakean, duintasunez eta hertsapenik gabeko askatasunean bizitzeko eskubide osoa jasoko duen. 🍷

[Erredakzioan euskaratua]

GAIAK

101 Protagoraren erlatibismoaren
defentsa
Andoni Olariaga

Protagorasen erlatibismoaren defentsa

Andoni Olariaga

Filosofian lizentziaduna

Grezia klasikoaren eta Sokratesen testuinguru historiko eta politiko laburra

Protagorasen erlatibismoa dagokion testuinguru filosofoan kokatzeko, antzinako Grezian gertatzen den iraultza politikoa baino (nahiz eta hori ere kontuan hartu beharrekoa izan), iraultza izpiritual eta morala da aztertu beharrekoa, eta horren muinean iraultza bi horiek bultzatu zituen Sokratesen bizitzari garrantzia ematea komeni zaio. Izan ere, Protagorasen erlatibismoa ulertzeko, Sokratesen bizitza, pentsamendua eta iraultza intelektuala-ren testuingurua ulertu behar dira, Protagorasen pentsamendua testuinguru horretan ernaltzen baita gehienbat.

Grezian gertatuko den gizakiaren pentsamenduaren eta gizarte antolaketaren lehenengo krisi handiaren baitan agertzen zaigu Sokrates, krisi horren eragile nagusietako bat bezala. Albo batean utziko ditugu nekazaritzaren aurkikuntzak, artearen hasierak eta abarrek suposatuko luketen krisia. IV. eta V. mendeen artean Grezian gertatzen den krisiak hainbat ertz dituela azpimarratu behar da. Alde batetik, krisi politikoa dago, Periklesen urrezko aroaren ondorengo gerraren testuinguruan kokatzen gaituena. Bigarrenik, eta hori da guri interesatzen zaigun krisia, tradizioaren legeen eta ohituren krisiarekin aurkitzen gara, hain zuzen, Sokratesek

berak hauspotua izango dena, eta sofistek pentsamenduaren garapenaren testuingurua izango dena.

Polis-aren agerpena gertaera funtsezkoa da pentsamendu grekoaren sorreran. Polisean gizakien arteko erlazioak eta bizitza sozialak forma berri bat hartuko dute. Izan ere, hitzak edo logosak boterearen beste instrumentuen gaineko lehentasuna hartuko du polisaren sorreran (Vernant, 1992: 61). Hitza izango da estatuaren erreminta politiko goren, besteak menderatzeko instrumentua. Hitza debate kontraesankorra da, eztabaida, argumentazioa.

K.a. IV. eta V. mendeen inguruan gaude. Funtsean Sokrates eta sofistak erdigunean harrapatzen dituen krisi moral horrek, batetik, gizakiaren eta gizartearen (alegia, polisaren kudeaketaren) arteko tenka eta paradoxa azaleratzen ditu, Sokratesen epaiketaren eta heriotzaren gertakizunean sinbolizatua. Bestetik, krisi moral horrek ziurtasunaren (Platonek bilatzen duena) eta zalantzaren edo ziurtasun ezaren (sofistek ekartzen dutena) artean gertatzen den konfliktu edo dilema izpiritual eta kulturala ere azaleratzen ditu.

Historia eta filosofia liburuetan maiz immoraltzat hartzen diren sofistek tradizioak (erlijioa eta tradizio mundu osoa) ezbaian jarriko dituzte beren erlatibismo diferenteekin. Garai hartan dena ezbaian jartze horrek asko dibertitzen du aristokrazia (jolas intelektualetan murgilduta dagoena), baina jende xumearengan ziurgabetasun sentimendua handitzen du. «Ezer ez dakigu» sentimendua mingarriegia da bestela ere gerra etengabeak jasaten ari den herri batentzako. Mundu tradizionala puskatzen ari zaio hiritarrari pixkanaka, balioak, tradizioak, sinesmenak zalantzan jartzen zaizkionean. Izan ere, gogoratu behar da greziarra natura osoa izaki jainkozkoen edo antzekoen ikustera ohitua dagoela, kultura grekoa oinarri horietan funtsatua dagoela: eta pixkanaka tradizio hori puskatzen ari zaio, bai sofistek eraginez eta baita Sokratesek eraginez, arlo intelektual eta izpiritualean. Atenas inplikatu duen gerra gehitzen baldin badiogu horri, krisiaren sakontasuna agerian jartzen zaigu. Krisi bat: edo bi krisi, krisi handi

bat hauspotzen ari dira, hortaz. Alde batetik, Solonek arlo politiko eta sozialean eragin duen krisia dago; bestetik, Sokratesek eta sofistek arlo kultural eta kosmologikoan eragindakoa.

Testuinguru horretan esplikatzen da sofisten agerpena. Greziako krisialdi horretan, nolabait laburbiltzearen, zalantzan jartzen dira gizaki indibidualizatua, gizartea eta natura eta horien arteko erlazio eta loturak. Zein izan behar da indibiduoaren papera gizartean? Zein naturarena indibiduoarengan?

Zein gizartearena indibiduoarengan? Bertuteen krisi horrek gizartearen beraren krisia eta indibiduoaren beraren krisia ere erakusten dizkigu, historian behin eta berriz errepikatua agertuko zaiguna ondoren. Hortaz, lotura (legeak) eta des-loturen (kritika, kontzientzia)

Greziako krisialdi horretan, zalantzan jartzen dira gizaki indibidualizatua, gizartea eta natura eta horien arteko erlazio eta loturak

arteko gatazka ere badago. Alegia: noraino iristen da edo iritsi behar du indibiduoaren askatasunak? Noraino naiz askea gizartean? Noiz naiz askea eta noiz izan behar dut askea? Non daude gure (moralaren) fundamentuak (nonbait baldin badaude), moral sozialean eta norberaren barruan? Zalantza horiek dira hain zuzen ere Sokratesek eta sofistek (are eta erradikal-kiago oraindik ere) Atenasko hiriari planteatuko dizkietenak. Modu berean, gizadiari berari ere.

Sokratesen eta Protagorasen arteko dialogoak aztertu behar dira, Protagorasen erlatibismoak Platoni (edo Sokratesi) suposatzen dion erronka zein garrantzitsua den uler dezagun, hain zuzen, mendebaldeko historian formulatu den lehenengo erlatibismo koherentearen indarra zein den ikus dezagun.

Protagoras, mendebaldeko erlatibismoaren aitzindaria

Protagoras da mendebaldeko erlatibismoaren aitzindaria, erlatibismoa kontzeptualki eta koherenteki formulatu duen

lehen pentsalaria. Diogenesek dioenez, Protagoras (485 K.a. - 411 K.a., gutxi gorabehera) Abdera herrian jaio zen. Sofisten eta Platonen arteko dialogo filosofikoak erlatibismoaren eta objektibismoaren artean mendebaldeko kulturaren gertatzen diren lehenengo debate garrantzitsuak direla esan daiteke. Eta debate garrantzitsu horien erdigunean, Sokratesi erronka dialektiko handienak planteatzen dizkion sofista Protagoras izango da oroz gain. Azken bi mendeetan filosofiako eztabaidetan zentraltasuna hartu duen erlatibismoaren eztabaidak, gaur egun errealismoaren eta erlatibismoaren artekoak direnak, mundu anglosaxoiko eztabaida nagusietan izango dute eragina, azken pragmatistak Protagoraren erlatibismora itzuliko direlarik, hain zuzen, erlatibismoaren koherentzia edo formulazio borobilago baten bila haren testuetara joz.

Protagoraren interes edo esparru filosofikoak askotarikoak eta desberdinak izango dira dialogoetan: epistemologia, hizkuntza, logika, etika, bertutea, egia... Alor horietan izango dira Protagoraren eta Sokratesen arteko eztabaida mamitsuenak. Izan ere, krisi garai hartan gai epistemologiko eta ontologiko garrantzitsuenak ziren eztabaida guztien erdigune. Platonen (edo Sokratesen) eta Protagoraren desberdintasunak bi gai nagusitan ardatzen dira: egia lortzeko bidean edo metodoan (epistemologia eta ontologia), eta egiaren naturan (*aletika*). Gai horietan Platonek eta Protagorasek kontrako posizioak defendatzen dituztela esan daiteke. Izan ere, Platonek objektiboki determinanteak diren ideia eternoak edo formak (*eidos*) nahi ditu atzeman; Protagorasek, aldiz, indibiduoek eta horien perspektiba aldakorrei erlatibizatuta marrazten du egiaren natura, gauzen esentzia indeterminatua dela azpimarratuz.

Platonen ideien lehen ezaugarri garrantzitsu bat zera da: gai garrantzitsu denek egiazko erantzun bat eta bakarra izan behar dute derrigorrez. Bigarrenik, bide bakarra egon behar da egia horiek atzemateko. Eta, hirugarrenik, egiazko diren erantzunak ezin dira beste egia batzuekin bateraezinak izan. Protagoraren erlatibismoa ez da soilik doktrina epistemologiko

bat, alegia, egiari (eta haren baldintzei) buruzko doktrina bat: tesi hirukoitz bat barnebiltzen duen doktrina bat da.

Tesi hirukoitz horretan, lehenik, *erlatibismo aletiko* baten aurrean geundeke, egiaren *naturari* buruzko postura jakin bat lukeena: egiaren natura indeterminatua, kasu honetan. Bigarrenik, erlatibismo *aletiko* horrek berarekin *erlatibismo epistemiko* bat ekarriko luke, egiaren eta ezagutzaren baldintzen inguruko tesi batekin. Eta, hirugarrenik eta azkenik, *erlatibismo ontologiko* bat ere badago beste biek in lotua, egia, ezagutza eta errealitatea erlazionatzeko moduz mintzatzen dena, munduaren *egiturari* buruzko tesi bat osatuko lukeena.

Protagorasen erlatibismoa aztertzeko, Platonek bere maxima ezaguna hartzen du aztergai. Gogora dezagun zein den esaldi hori:

Gizakia gauza guztien neurria da, diren gauzena diren heinean, eta ez diren gauzena ez diren heinean (*Teeteto*, 152a).

Enuntziatu horren azterketak historian zehar buruko min handia ekarri izan du. Platonek eta Aristotelesek esaldiaren zentzua haien ontologiatik epaituko dutela ikusiko dugu. Aristotelesen epaia argia da, Protagorasen esaldiari buruz:

Honek, hain zuzen ere, gizakia gauza guztien neurria dela esan zuen, hau da, norberari iruditzen zaiona, horixe dela egia. [...] neurria norberari iruditzen zaiona delarik (*Metafisika* K, VI, 1.062b).

Ezinbestekoa da Aristotelesen eta Platonen interpretazioei heldu aurretik, esaldiaren beraren analisi kontzeptual bat egi-tea. Horretarako, hermeneutika (grezierazko *hermeneia*-tik, interpretazioa) ariketa txiki bat egin beharko dugu.

«Gizakia gauza guztien neurria da, diren gauzena diren heinean, eta ez diren gauzena ez diren heinean» esaldiari jarraituz, zein da 'gauza' hitzaren adiera? *Chrémata* (gauzak) hitza grezieraz modu oso polisemikoan erabil daitekeela gogorarazten digu Guthriek (Guthrie, 1969: 190), baina, batez ere, «norbaitek erabil edo behar duen edozer gauza» esan nahi

du. Utilitatearen ideiarekin dago guztiz lotua, hortaz. Beste hitz gako bat neurria da, grezieraz *métron*. Platonen garaiko testuinguru eta tradizioan, Platonek berak *egiaren irizpide* gisa ulertzen du. Hitzaren adiera horretatik ulertuta, Protagorasen esaldiak egia indibiduoarekiko erlatiboa dela esango luke, Aristotelesek *Metafisika*-n kritikatzan duen bezala. Hemen dator lehen arazoa: hitzaren konnotazio hori *Teeteto* obraren eta Platonen asmoen testuinguruagatik determinatua dator, non ezagutza ideien hautematean ulertzen den, eta errealitatea norberarekiko identikoak eta aldaezinak diren gauzen multzo bezala. *Métron* hitza jaio zen testuinguruan

«Gizakia gauza guztien neurria da...» esaldiak, hortaz, gizakiak domeinua edo kontrola duela baino ez du esan nahi; ez da egiaren kriterio bat, Platonek ulertu duen bezala

ulertzen bada, aldatu egiten da Protagorasen esaldiaren zentzua. 'Neurria' hitza medicina hipokratikoaren testuinguruan ulertu behar da, eta gizakiaren pertzepzioaren araberrako eta haren momentu korporal edo animikoaren araberrako kriterio erlatibo bat litzateke, utilitatearen edo egokia denaren eskala bat marraztuko lukeena. Ez da, beraz, egiaren kriterio

bat, utilitatearen ideiarekin gainean eraikitako kriterio bat baizik. «Gizakia gauza guztien neurria da...» esaldiak, hortaz, gizakiak domeinua edo kontrola duela baino ez du esan nahi, alegia; ez da egiaren kriterio bat, Platonek ulertu duen bezala.

Esaldiaren analisiarekin jarraituz, *ánthropos* da hurrena, gizakia. Guthrieren ustez, Protagorasek erabilitako termino hori hiru aurreuposizio desberdinekin uler daiteke (betiere, Protagorasek emango liokeen adierari erreferentzia egingez): (a) zentzu unibertsal batean (gizakia, ideia platondar gisa nolabait); (b) zentzu partikular edo indibidual batean, gizaki partikularrei erreferentzia egingo liekeena; ala (c) Protagorasek ez zuen (a) eta (b)-ren arteko diferentzien kontzientziarik izan. Samaranchen ustez, *ánthropos* hitzaren ulerkera dikotomikoa,

erabilpen formalki unibertsal eta indibidualen arteko dikotomia, Platonen dialektikak egiten duen apriorismoa da. Eta hain zuzen, afera ez datza apriorismo horren zuzentasun logikoan, baizik eta Protagorasen gizakiaren kontzeptua ulertzeko interpretazio dikotomiko hori ez datorrela bat medizina hipokratiakoak, sofistek eta abarrek duten *tekné*-aren razionaltasunarekin. Izan ere, sofistikan ez dago halako dikotomiarik. Protagorasek kontzeptu absolutuekin (demostraezinak direnak) operatzeko erakusten duen erresistentziak unibertsaltasun ez esentzialista baterako bidea zabaltzen du.

Hortaz, analisi semantiko horrekin bukatuz eta atala amaitzeko, Aristotelesek eta Platonek Protagorasen maxima, beren oinarri ontologikoetatik partituz, tesi epistemologiko batera erreduzitu dutela ondorioztatuko dugu. Azken hamarkadetan Protagorasi eta erlatibismoari oro har (Protagorasen esaldia erlatibismoaren paradigmatzat erabiliz) egin zaizkien kritika anitzek ere tesi epistemologiko hutsa dela auresuposatu dute; alegia, egiaren eta ezagutzaren baldintzei buruzko maxima bat dela Protagorasena.

Dialogo sokratikoak

***Teeteto*: ezagutza eta erlatibismo ontologikoa**

Teeteto da, ez bairik gabe, Protagorasen pentsamenduaren lerro nagusiak zein diren ongien azaltzen duen dialogoak. Dialogo sokratiko guztietan bezala, *Teeteto*-n ere ikus daiteke Sokratesek eta sofistek ikuspegi kontrajarriak dituztela, ez bakarrik espekulazio filosofikoen proposamenetan, baizik eta espekulazio horiek legitimatzeko metodoetan ere.

Dialogo horretan, funtsean, *epistêmê* edo ezagutzaz deliberraten da, Sokratesen eta Protagorasen ideien (dialogoan *Teeteto* sofistaren ahotan defendatuak) arteko eztabaida nahikoa sutsu batean. Ezagutza pertzepzioa delako ideiaren eztabaida agertzen zaigu. Dialogo horretan Sokratesek Protagorasi egiten dizkion objektioak Protagorasen ideien inkontsistentzia azaltzeko asmoekin formulatzen dira.

Sokratesek argudiatzen du Protagorasek (ustez) dioen bezala ezagutza indibiduo bakoitzaren pertzepzioarekiko erlatiboa bada, Protagorasek ezin duela ezagutza zer den erakutsi, ezagutza zer delako ideia aldez aurretik definitua ez baldin badu. Izan ere, Protagorasek ezagutzari buruz hitz egiten duen bakoitzean, kasu partikularrei buruz aritzen da dialogoan zehar, injustizia kasu partikularrei buruz zehazki, justiziaren forma edo ideari buruz egin beharrean. Sokratesek, aitzitik, ezagutza zer den, justizia edo injustizia zer diren, horiek guztiak «bere baitan» atzeman nahi ditu (Platon, 2006: 175c3-4). Platonek, beraz, aurrerago ikusiko dugun Protagoraren erlatibismo pertzeptualaren kontra, ideiak, errealitatea bere baitan zer den adierazten dutenak, erabiliko ditu behin eta berriz dialogoan (Grube, 1984: 72).

Dialogo honetan bi postura modu idealean haragiztatuta agertzen zaizkigu. Alde batetik, Platonen *filosofo idealak* dago, Sokratesek islatzen duena; eta, bestetik, Teeteto, Protagoraren doktrina defendatzen duen *sofistaren tipo idealak*. Lehena galdetzailea, razionala, gauzen egia eta forma atzeman nahian sofistaren kontraesanaren bila dabilen filosofo idealaren figura da; bigarrena, aldiz, kasu partikularrei begira dagoena, egia bera egon daitekeenik zalantzan jartzen duena.

Protagoraren ezagutzaren definizioa dialogoan hasieran agertzen zaigu (152a): ezagutza pertzepzioa da ('pertzepzio' hitza modu oso zabalean ulertu behar da). Protagorasentzat pertzepzioak gizakiaren aktibitate kognitibo oro adierazten du, eta ez dago aktibitate horien arteko mailaketa epistemologikorik. Horregatik, zentzu zabalean ulertu behar da. Nola ulertzen du, ordea, Platonek? Dialogoan, Sokratesek ezagutza pertzepzioa delako ideia Protagoraren beraren *Homo mensura* edo *neurriaren doktrina* («gizakia gauza guztien neurria da, diren gauzena diren heinean, eta ez diren gauzena ez diren heinean») ideiekin lotzen du, bi posizio filosofikoak berdinez direla defendatuz (Platon, 2006: 152a-c). Sokratesek, aurrerago, Protagoraren *doktrina sekretua* deiturikoarekin lotuko ditu *Homo mensura* eta erlatibismo pertzeptuala. Protagoraren

doktrina sekretuak, orain Sokratesen ahotik azaltzen ari zai-gunak, zera baieztatuko luke: «ezer ez da bere baitan gauza bat, eta ezer ez dela, baizik eta *bilakaeran* dagoela» (153-160). Sokratesek Heraklitoren *Panta rhei* doktrinarekin parekatzen du (Platon, 2006, 153a).

Sokratesek *doktrina sekretuaren* eta *Homo mensura*-ren arteko zubia eraikiko du (154b-160d), hiru ideia horiek lotuz. Horrela, *Homo mensura* (gizakia da gauza guztien neurria) delako pertzepzioaren teoria hori Protagorasen fundamentu epistemologiko bezala aurkeztuko digu Platonek. Protagorasen pertzepzioaren doktrina, Platonen ustez, gauzek bere baitan errealitaterik ez dutelako ideian fundamentatzen da: alegia, subjektu hautemaile batekin erlazioan bakarrik uler daitekeela errealitatea. Sokratesek, beraz, Protagorasen erlatibismoa erlazionalismo gisa interpretatzen du, non errealitatea subjektuarekiko den erlatiboa modu absolutuan.

Behin Protagorasen erlatibismoa erlazionalismo gisa interpretatua dagoela, orduan dator Sokratesen erasoak. Izan ere, Protagorasek ustez errealitatea hautemailearekiko erlatiboa dela erakutsi duenez gero, paradoxa batean jausten dela ohartaraziko digu Sokratesek. Dialogoan pixka bat aurrerago agertuko da historian zehar famatua eta gaur egun ere hainbeste aldiz errepikatua izan den paradoxaren edo autokontraesanaren argudioa, 170a-tik 171d-ra doan pasartean. Platonek ezagutza pertzepzioa delako Teetetok Protagoras parafraseatuz emandako definizioa, Protagorasen *neurriaren doktrina* eta Heraklitoren *Panta rhei* (dena mugimenduan dago), hirurak filosofikoki Protagorasen pentsamenduan batera doazen doktrinak direla interpretatuz egin du Protagorasen erlatibismoaren kritika.

Sokratesek Protagorasen erlatibismoa erlazionalismo gisa interpretatzen du, non errealitatea subjektuarekiko den erlatiboa modu absolutuan

Zilioliri (2007) jarraituz, Protagoraren *neurriaren doktrina* ez duela Heraklitoren *Panta rhei* teoria inola ere inplikatzeko argudiatuko dugu, Platonek baieztatu duenaren kontra. Oso garrantzitsua da bereizketa hori egitea: are gehiago, fundamentalak da. Izan ere, bi doktrina horiek bereiziz lortuko dugu Protagoraren pentsamendua hobeto ulertzea, hala nola, kontraesanaren arazotik askatzea haren erlatibismoa.

Sokratesek Protagoraren erlatibismoa erlatibismo pertzeptual gisa ulertu du, tesi erlazionalista batera erreduzituz. Esan bezala, dialogoan zehar, eta bereziki 151e3 lerroan, ezagutza pertzeptzio bezala definitzen du Teetetok. Protagoraren metodoari jarraituz, ezagutza definitzeko asmoz, haren forma edo aldaera desberdinak zenbatzen saiatuko da.

Sokratesek galdera zehatza egiten dio Teetetori, ordea: zer da ezagutza? Galderak erantzun bakarra, definizioa, exijitzen dio. Teetetok, aldiz, ezagutza desberdinen izendapen eta definizioak egiten dizkio, ezagutza bera zer den aipatu gabe. Sokratesek «ezagutza bere baitan zer den» (*epistêmen auto hoti pot'estin*, 146e9-10) jakin nahi du, ordea.

Dialogoaren zati horretan, ezagutza definitzeko bi moduren aurrean aurkitzen gara, hortaz. Platonen objektzioa, horrenbestez, modu honetan uler daiteke: Sokrates gauzen esentziaz (*ousía*) arduratuta dagoenez gero, gauzak bere baitan zer diren jakin nahi du, eta, aldi berean, Teetetok eta Protagorasek ezagutza definitzeko dituzten posizio erlatibistak garaitu nahi ditu. Afera da ez dagoela inongo garaipenik inon. Izan ere, dialogoan bertan ez da ematen ezagutzaren inongo definiziorik ezagutza bere baitan zer den definitzeko.

Izan ere, Teetetok planteatzen dituenak ustez ezeztatzen direnean, horren ordez Platonek Ideiak agertuko dizkigula dirudi. Baina ez dira agertzen. Horren arrazoa, Gruberren ustez, hauxe da: dialogo guztiaren zentzua 'erlatibistek', berdin dio Heraklito edo Protagoraren jarraitzaileak izan, ezagutza ezinezko egiten dutela demostratzea da (Grube, 1984: 70-71).

Orduan, sofistek ezagutzaren gaineko premisek ezagutza ezinezkoa egiten dutela demostratu nahi du Platonek; baina,

aldi berean, ezin du horri kontra egingo liokeen ezagutzaren apriorizko definizio bat eman. Hori horrela, Protagorasen erlatibismoa kontraesanaren argudioa erabiliz erauztearekin baino ezin da konformatu Platon. Platonen argudioa baliozkoa izan arren, premisa faltsua duela defendatuko dut. Izan ere, Protagorasen erlatibismo pertzeptuala ez da tesi erlazionalista bat, eta, hortaz, ez da kontraesanean erortzen.

Protagorasen *gizakia gauza guztien neurria da* maximak ez darama pertzeptioari buruzko inongo erreferentziarik. Platonek bi tesiak batzen dituenean, Protagorasen tesia pertzeptio bidez hautemandako egiaren teoria soil gisa aurkezten du, bere erlatibismo ontologikoa albo batera utziz. Eta, modu horretan, *gizakia gauza guztien neurria da* maxima pertzeptio bidez hautemandako egiaren teoria gisa ikusten badugu, Protagorasen maximarekin zera ondorioztatuko genuke: niri agertzen zaidan gauza oro horrela da niretzako, eta zuri agertzen zaizun gauza oro horrela da zuretzako. Alegia, Protagorasen doktrinak ez du esaten pertzeptio edo judizio pertzeptual oro egiazkoa denik, baizik eta *judizio oro egiazkoa dela judizioa duen horrentzat*. Oso garrantzitsua da hori azpimarratzea. Eta hori kontuan hartuz, Protagorasek onartu behar duena hau da: *bere doktrina faltsua dela, faltsua dela uste duten horientzat bakarrik*. Tesi hori maila erlazional batean ulertzen badugu, ordea, maila ontologikoa ahaztuz, kontraesanaren argudioa baliozkoa da. Maila pertzeptualean, ordea, ez dago kontraesanaren argudioa erabiltzerik.

Alegia, hautemandako objektuaren estatusa hautemailearekiko dependentzia-erlazioan badago, harekiko erlatiboak da; objektu bera bi hautemailek pertzibitua izan daiteke, lehenarentzat objektu hori *hotza* eta bestearentzat *beroa* izan daitekeelarik, inongo kontraesanik egon gabe, erlatibismo pertzeptual horren ustez, pertzeptioak beti hautemailearekiko erlatiboak direnez gero. Hortaz, gauzen estatus ontologikoak hautemailearekiko erlatiboak izango dira.

Horrela, *neurriaren doktrina* pertzeptio bidez hautemandako gauzen teoria gisa ikusten badugu, horrek erlatibismo

pertzeptual bat inplikutzen du. Eta horrela interpretatua, erlatibismo ontologikoa da teoriaren giltzarria, zeinean haitemandako objektuaren estatus ontologikoa hautemailearentzat

Protagoras ez da ari esaten gauzen esentzia indibiduoarekiko edo indibiduoaren pertzepzioarekiko erlatiboa denik. Ez baitago gauzen esentziarik

bakarrik den erlatiboa hautemateko aktoan bertan. Protagorasek ez du, hortaz, *gauzak bere baitan zer diren edo ez diren* esaten. Ontologia horrentzat, ez dago haizerik bere baitan, baizik eta haizea hautematen duten pertsona adina haize baizik. Ez dago haize esentzial bat, aitzitik, ontologikoki hautemana eta determinatua den haize aniztasun bat baizik.

Kontraesanaren argudioak bere pisu guztia galtzen du hor. Protagoras ez baita ari esaten gauzen esentzia indibiduoarekiko erlatiboa denik, edo indibiduoaren pertzepzioarekiko erlatiboak direnik. Ez baitago gauzen esentziarik. Are gehiago, gauza partikularrak baino ez daude, eta indibiduoaren pertzepzioaren kondizioetan eta aktoan bertan definitzen da gauzaren estatus ontologikoa. Ondorioz, Protagorasen erlatibismo pertzeptuala, tesi ontologiko gisa ikusita, ezin da esan kontraesankorra denik, gutxienez Platonek eraikitako argudioari jarraituz.

Doktrina sekretua eta indeterminazio ontologikoa

Protagorasen *doktrina sekretua* funtsezkoa da haren erlatibismo koherentea zertan datzan jakiteko. Sokratesek berak azalduko du dialogoan bertan Protagorasen *doktrina sekretua* zertan datzan. Protagorasen ezagutzaren teoria, Sokratesen hitzetan, ez da teoria arrunt bat (152d2). Gauzei buruzko tesi ontologiko bat izango genuke, kasu honetan, izatearen indeterminazioa azpimarratuko lukeena, *ezer ez da bere baitan gauza bat, beti norbaitentzat heldzen da zerbait izatera* (157a).

Zilioliren ustez, tesi hori *indeterminazio ontologiko* gisa definitu daiteke. Hau da, munduko objektuek ez dute egitura jakin bat apriorizkoa eta absolutua, eta, beraz, beren esentzia, *ousía*, indeterminatua da. Ez da, hortaz, esentziaren ukazioa Protagorasek egiten duena; aitzitik, esentzia horretaz esango luke indeterminatua baino ez dela.

Protagorasen *doktrina sekretuak* beste tesi ontologiko bat bilduko luke: *ezer ez da bere baitan, baizik eta izateko bidean dator*. Guztia mugimenduaren eta aldaketaren emaitza denez, ezer ez da zerbait bere baitan, baizik eta izateko prozesuan dago. Hor, beraz, Heraklitoren *Panta rhei* doktrinak Protagorasen indeterminazio ontologikoa azaltzeko balio dio Platoni (are gehiago, Platonek parekidetu egiten ditu). Beraz, ezerk ez du esentzia bat bere baitan; ez dago, hortaz, objektu jakin bat hautemana izan daitekeena bere esentzian. Horregatik esan dezakegu, Platonen ontologia objektibistaren ordeztan, Protagorasek indeterminazio ontologikoa proposatzen duela. Hautemandako objektuak ez du determinatutako esentzia bat; beraz, indeterminatua da, eta haren esentzia hautemai-leak emana da hautemateko ekintzan bertan.

Aristotelesen ustez (*Metafisika* liburuan), posizio ontologiko hori defendatzen duten filosofoek bakarrik uka dezakete kontraesan-ezaren printzipioa. Alegia, Platonek zein Aristotelesek, gauzek esentzia bat dutela onartzen duten heinean, gauzak ontologikoki determinatuak daudela uste dute. Hortaz, ezinezkoa da *a priori* determinatua dagoen objektuak aldi berean esentzia bat eta bere kontrakoa izatea, egiazkoa eta faltsua izatea, hotza eta beroa, injustua eta justua. Horregatik, Aristotelesek berak dioen bezala, indeterminazio ontologikoaren posizioa duenak kontraesan-ezaren printzipioa ez du zertan bete. Aristotelesen ustez, *Homo mensura*-k dakarren egiaren erlatibizazioak aldi berean egiazkoak diren kontrako baieztapenak eustera darama Protagoras. Horren ondorioz, kontraesan-ezaren legearen haustura agerikoa gertatuko litzateke. Aristotelesentzat ezinezkoa da lege hori apurtzea ondorio ontologiko eutsiezinak (inkontsistentek, finean) izan

gabe. Testuinguru desberdinetan egiten dira, beraz, Platonen eta Aristotelesen *Homo mensura*-ren kritikak.

Ikusi dugun bezala, Protagoraren tesiaren kritiketan, Platonen eta Aristotelesek gauza desberdinetan jartzen dute enfasia. Platonen interesa Protagoraren postura logikoki inkonsistentea dela agertzea litzateke. Aristotelesen interesa, aldiz, Protagoraren tesiak izango lituzkeen ondorio ontologiko onartezinetan begirada jartzea da. Izan ere, kontraesan-ezaren legearen ukazioak gauzen esentzien eta *ousía*-ren beraren ukazioa ekarriko luke Aristotelesen ustez, eta horrek ezagutzaren beraren posibilitatearen ezintasuna. *Metafisika* liburuan egiten du, zeharka eta zuzenean, Protagoraren doktrinaren ustezko errefutazioa. Aristotelesen argudioa nahiko konplexua dela esan daiteke, baina funtsean frogatu nahi du ezagutza pertzepzioa delako ustea faltsua dela. Horrela irakurtzen diogu ondorengo pasartean.

Izan ere, banakoez aparte ezer ez badago, ez da ezer ezagungarririk izango; aitzitik, gauza guztiak izango dira sentimenezkoak, eta ez da ezeren zientziarik izango, sentsazioa zientzia dela esaten ez bada, behintzat. Gainera, ez da ezer betiereko izango, ezta geldia ere (sentimenezko gauza guztiak usteltzen baitira eta mugimenduan baitaude). Hala ere, betiereko ezer ez badago, genesisia izaterik ere ez da izango, beharrezkoa baita sortutakoa den zerbait izatea, baita sorburua den zerbait ere, eta hauetan azkena sortu gabea izatea, prozesua nonbait eten baldin bada eta Ez Den-etik sortzea ezinezkoa baldin bada (*Metafisika* B, IV, 999b).

Aristotelesentzat ezagutzaren edozein kontzepziok beharrezko eta ezinbesteko baldintza bat dauka: ezagutza aldaezina den horren zientzia dela onartu behar du. Protagoraren tesia eutsiezina da, ez duelako onartzen gauzak aldaezinak direla. Horrela, Aristotelesentzat Protagoraren erlatibismoa inkonsistentea da, argumentu formalek ezagutzaren baldintza batzuk bete behar dituztelako. Zientzien lehenengo printzipioak lege hauek dira: identitatea (entitate oro identikoa da bere buruarekiko), kontraesan-ezaren legea (gauza bat ezin daiteke egiatzkoa eta faltsua izan aldi berean) eta *tertium non*

datur edo hirugarren baztertuaren printzipioa (gauza baten disjuntzioa eta bere ukazioa beti egiazkoak dira).

Ezagutza ziurtatzeko, kontraesan-ezaren legea derrigorrez aplikatu behar da, beti ere gauzen esentzia aldaezinen mugak auresuposatu baditugu (ontologia objektibista); ezin da, noski, *tertium non datur* legearen (proposizio baten disjuntzioa eta haren ukazioa beti egiazkoa da) salbuespenik egin, substantziek atributu esentzialak dituztela onartzen badugu. Protagorasek lege horiek puskatzen ditu.

Aristotelesek, *Metafisika*-ren hamaikagarren liburuan, kontrakoei eta kontrajarriei buruzko atalean, Protagorasen doktrinari buruz zera esaten du, bere osotasunean irakurtzea merezi duena, ondoren xeheki aztertzeko:

Honek, hain zuzen ere, gizakia gauza guztien neurria dela esan zuen, hau da, norberari iruditzen zaiona, horixe dela egiatan. Baina hau horrela izanez gero, gauza bera badela eta ez dela suertatzen da, eta txarra eta ona dela, eta baieztapen kontrajarrietan agerturiko gainerako predikatuak –sarritan honelako bat batzuei ederra iruditzen zaielako eta beste batzuei, kontrakoa–, neurria norberari iruditzen zaiona delarik. Hala ere, aporia hau [...]

Orokorrean, lekuz kanpokoa da egari buruzko iritzia beren egoeran inoiz irauten ez omen duten hemengo gauza aldakorretatik osatzea, egia beti egoera berean aurkitu eta inolako aldaketarik jasaten ez duten gauzetan bilatu behar baita. Eta honelakoak dira gorputz zerutarrak. Gorputz hauek, hain zuzen ere, ez dira agertzen batzuetan honelako ezaugarriekin eta berriro beste horiekin; aitzitik, beti berdin eta inolako mugimendutan parte hartu gabe.

Gainera, mugimendurik baldin bada, mugitzen den zerbait ere bada, eta mugitzen den guztia zerbaitetik eta zerbaitera mugitzen da. Beraz, mugitzen dena bere mugimenduaren sorburu den horretan egon behar da (*Metafisika* K, VI, 1.062b-1.063a).

Aristotelesen argudioa biribila da. Baina Platonekin gertatu bezala, Aristotelesen argudioaren afera haren ontologia objektibistan datza. Aristotelesen ustez, ezin da ontologia indeterminista predikatu (gauzek egiaz eta gezurraz haraindiko edo kanpoko natura bat dutela), gauzek esentzia bat dutelako.

Afera da ontologia horretan bakarrik dela posible kontraesan-ezaren printzipioa beharrezkoa izatea ezagutza posible

izateko. Baina gauzak ez badira bere baitan, edo indeterminatuak badira, edo niretzako eta zuretzako desberdinak eta are kontrakoak izan badaitezke (aurretik onartu dugulako gauzen izaera indeterminatua), kontraesanaren erregelak bere beharrezkotasuna galtzen du.

Protagorasen *doktrina sekretua* ez da derrigor Heraklitoren *Panta rhei*-rekin lotu behar. Izan ere, objektuak indeterminatuak izan daitezke, ez etengabeko aldaketan eta fluxuan daudelako (ondorioz, horien estatus ontologikoa etengabe aldatuz egongo litzateke), baizik eta *naturaz* indeterminatuak direlako (Platon eta Aristotelesen ustez, naturaz determinatuak dauden heinean). Alegia, zerbait existitzen da

Gauzak ez badira bere baitan, edo indeterminatuak badira, kontraesanaren erregelak bere beharrezkotasuna galtzen du

hor kanpoan, objektua existitzen da nolabait, baina ezer ezin da esan hari buruz *a priori* eta objektiboki hautemailearengandik (gizakiarengandik) kanpo egia izan daitekeena.

Platonek *Teeteto* dialogoan erlatibismo pertzeptual horren ahultasuna erakutsi nahi du, batez ere 156a-tik 160d-
ra doan pasartean. Pasarte horre-

tan agertzen da *Panta rhei* maxima erlatibismo pertzeptualarekin nahastuta, Protagorasen doktrina sostengaezina bilakatu. Alegia, hautemandako objektuaren eta hautemailearen arteko harreman pribatua (Protagorasen indeterminazio ontologikoaren tesia) bi elementuak pertzeptzio prozesuan dauden aldaketa etengabe gertatzen den ekintza kasual bat dela ondorioztatzen du Platonek. Horrek subjektuaren eta objektuaren disoluziora garamatza.

Baina Platonen azalpenaz haraindi, harreman hori beste era batean azaldu daiteke. Alegia, ekintza pertzeptual horren pribatutasuna ez datzala Platonek egindako loturan, baizik eta hautemailearen baldintza partikularretan, perspektiba partikularrean, zeina kulturak, sentsibilitateak eta beste

hainbat faktorek determinatuta dagoen. Izan ere, ekintza hori pribatua eta indibiduala da. Erlatibismo horrentzat giltzarria indeterminazio ontologikoa da, zeinetan hautemailea elementu funtsezkoa den hautematen ari den objektuaren determinazio ontologikoa zehazteko. Aristotelesek berak marraztu du Protagorasen argudioa indartsua izateko modua.

Erlatibismoa ez da erlazionalismoa

Standfordek egiten duen erlatibismoaren definizioari jarraitzen badiogu (Baghratian eta Carter 2016), erlatibismoa zera litzateke: y bat (printzipio epistemiko edo moralen bat, adb. egia edo ongia) beste x zerbaitekiko erlatiboa da (hizkuntza, indibidua, gizartea, kultura eta abar). Alegia, erlatibismo ororen oinarritzko eskema formala hauxe litzateke: y erlatiboa da x -rekiko.

Erlatibismoarena baino, eskema hau erlazionalismoarena da. Hor y aldagaia x aldagaiarekin dago erlazioan, eta haren menpe edo baldintzatuta legoke (gehiago edo gutxiago, baina haren menpe). Erlatibismoaren bertsio desberdinak aldagai posible guztien konbinazioz aterako genituzke horri jarraituz. Horrenbestez, y aldagaiak aldagai garrantzitsu bat adierazten du, esaterako: etika, kontzeptuak, sinesmenak, pertzepzioa... Aldiz, x aldagaiak y aldagai hori erlatiboa izango den esparrua edo domeinua definitzen du: *framework*, *marko kontzeptuala* edo *mundu ikuskera* (*Weltanschauung*) deitzen dena. Marko kontzeptual horiek askotarikoak eta desberdinak izan daitezke: hizkuntza, kultura, indibidua, paradigma zientifikoa, gizakia, etnia, zentzuak, sortzetiko ideiak... Marko kontzeptual, mundu ikuskera edo *conceptual scheme*-ak gu bizi garen eta atera ezin gaitezkeen aldagai edo kondizionamendu gisa ulertzen dira hemen: bizi garen kultura, bizi garen garaiko paradigma zientifikoa, indibidua, kultura jakin baten balioak...

Protagorasen erlatibismo pertzeptuala, tamalez, erlazionalismo gisa ulertzen da maiz. Eta esango nuke erlazionalismo edo egiaaren teoria bezala ulertzen dela, ahaztu egiten delako

Protagoraren garaiko mundu ikuskera eta gaurkoa ez direla berdinak. Mundu grekoan, kosmosetik hasi eta indibiduorako bidea egiten da ezagutza prozesuan. Anaximandrotik Aristotelesengana (Protagorasengandik pasata) doan mentalitatea da hori. Mundu modernoan (Descartesengandik aurrera, Kant, Hegel eta abar), aldiz, indibiduo edo subjektutik kosmosera mugitzen da, kontrako norabidean (subjektibismoa). Eta Protagoraren garaiko greziar mentalitatea ezin da mundu modernoko mentalitatearekin nahastu. Nahasten baldin baditugu, normala izango da Protagoraren erlatibismoa erlazionalismo edo egiaren teoria gisa ulertzea, eta Protagoraren posizioa subjektibistatzat hartzea ekarriko du ondorio. Baina analisi hori anakronismo txar batean funtsatzen da. Heideggerrek berak ohartarazten digu Protagoraren sententzia interpretatzerakoan ezin dugula nian edo subjektuan pentsatu.

Izan ere, Protagoras nolabait bi mundu edo mentalitateri oposatua dago (lehenaren barruan 'pentsatzen' duen arren), modu partikular batean. Batetik, mundu grekoko pentsalari gehienek onartzen dute errealitatea ez dela aldakorra, finkoa dela: Parmenidesek ez du onartzen errealitatea aldakorra denik; Heraklitok dena aldaketa etengabe dagoela baieztatzen du, baina aldaketa hori aldaketa gabeko lege batek mugatua egongo litzatekeela, eta abar. Alegia, antzinateko Grezian, Aristotelesen ezagutzaren teoriari jarraituz (paradigmatikoa delakoan), objektu baten forma edo esentzia jasotzeko, intelektuak pasibo egon behar du (gero abstrakzioa egiteko, aldiz, adimen aktiboa behar da). Antzinateko Grezian, hortaz, errealitateak ezagutzara egiten da mugimendua eta ez da subjekturik 'existitzen' (zentzu modernoan). Aro modernotik aurrera, aldiz, Descartesekin hasita, adimenetik abiatzen dira errealitate independente baten korrespondentziaren bila. Bi mentalitateen artean loturarik badago, zera da: bietan errealitatea finkoa dela, aldaezina. Eta hain zuzen, hori da Protagorasek zalantzan jartzen duena.

Bi mentalitate horien desberdintasunaren ahaztura dela eta, gaur egun Protagoraren erlatibismoa kritikatzeko denean,

elkarneurgaiztasunaren arazo modernoa (erlazionalismoaren baitan sartzen dena) kritikatzeko da Protagorasen pentsamendua baino. Donald Davidsonek 'On the Very Idea of a Conceptual Scheme' (1974) artikuluan elkarneurgaiztasunari (ustez Protagorasek ere defendatzen duena) egiten dion kritika jarraitzen da. Davidsonek elkarneurgaiztasuna erlazionalismo gisa ulertzen du, eta horrela definitzen du: demagun bi mundu ditugula, egia erlatiboa izan daiteke mundu batean, beste batean egia hori bera faltsua izan daitekeen bitartean (bien artean kontraesanik egon gabe). Bi mundu ikuskerak egonik, haien arteko ulerkuntza ezinezkoa da. Davidsonen ustez, horrek konpondu ezinezko paradoxa batera eramaten gaitu. Lehenik, elkarneurgaiztasunaren teoriak itzulezintasuna inplikatzeko du, eta itzulenzintasunaren ideiak eskema kontzeptual desberdinen existentzia ekartzen du ondorio gisa. Labur esatearren, Davidsonek marrazten duen erlatibismo kontzeptualaren kontzepzioan, hizkuntza desberdinetako komunitate edo gizarteek mundua eskema kontzeptual desberdin eta elkarneurgaitzekin segmentatzen dute. Davidsonek erlatibismo kontzeptualari egiten dion kritika honela laburtu daiteke: eskema kontzeptualen elkarneurgaiztasunak eragindako itzulezintasunaren akatsak teoria horien gainera errealitate baten beharra du; hain zuzen, eskema desberdinen existentzia determinatzeko nahitaezkoa den konparazio neutral bat egiteko apriorizko oinarri bat. Alegia, bi eskema kontzeptual desberdinak direla esan ahal izateko, beharrezkoa da eskema horietatik kanpo dagoen zerbait neutrala eta komuna egotea; eta horrek kontraesanera eramaten du eskema kontzeptualen teoria bera.

Antzinateko Greziako zein aro modernotik aurrerako mentalitateen artean loturarik badago, zera da: bietan errealitatea finkoa dela, aldaezina. Hori da Protagorasek zalantzan jartzen duena

Horren ondorioz, Protagoraren erlatibismo pertzeptuala kontraesan horretan eroriko litzateke.

Afera da Protagoras ez dela eskema horretan sartzen. Zergatik? Elkarneurgaiztasunaren edo erlazionalismoaren defendatzaileek auresuposatu behar den mundu bakar hori ukatzen dute (determinatua dagoena, Platonen zentzuan), baina, aldi berean, aldez aurretik ukatzen duten (egia objektiboa dagoela ukatuz) goragoko mundu edo marko neutral baten beharra dute egia balioak asignatzeko (Margolis, 1991: 99). Davidsonen kritikaren beraren zuzentasunean ez gara sartuko. Afera da kritika horrek ez duela balio Protagoraren erlatibismoa epaitzeko, Margolisek bikain ohartarazi digunez, Protagorasek ez duelako egiaren teoria erlazionalista bat proposatzen: bere pentsamenduan x edo y hori egia dela esateak ez du esan nahi egia bera x edo y horiekiko erlatiboa denik; alegia, ez gaude egiaren definizio baten aurrean, eta beraz, Protagoraren erlatibismoak ez darama kontraesanera, eta are gutxiago solipsismora.

Protagoraren erlatibismoa koherentea da, hortaz?

Protagoraren erlatibismoa berezia da, eta tesi hirukoitz bat biltzen du bere baitan. Alde batetik, (a) doktrina aletiko bat da, egiaren natura ukatu baino, bera indeterminatua dela aldarrikatzen duena, Platonen ontologia objektibostatik kanpo geratzen delarik. Bigarrenik, (b) doktrina epistemologiko bat ere bada, egiaren eta ezagutzaren baldintzen inguruko tesia biltzen baitu. Eta, hirugarren eta azkenik, (c) tesi ontologiko batean oinarritzen da bere tesia, munduaren egiturari buruzko teoria bat duena, hautemandako objektuen estatus ontologikoa zein den esateko erlatibismo pertzeptual bat proposatzen duena. Gehiago zehaztuz, Protagoraren erlatibismoak hiru baldintza horiek betetzen ditu, (a) «gizona gauza guztien neurria da, diren gauzena diren heinean, eta ez diren gauzena ez diren heinean» doktrinarekin, zeharka, egiaren naturaz, kasu honetan, ilunaz, zerbait esaten digu;

(b) ezagutza eta egiaren baldintzez ere zerbait esaten du, gizakia errealitatearen, ezagutzaren eta egiaren neurria dela esanez (ez dago errealitate aldaezin eta independenterik, beraz); (c) hautemandako objektuak nolakoak diren esaten duelako, erlatibismo pertzeptual bat proposatuz.

Protagorasen erlatibismoaren tesi ontologikoaren eta epistemikoaren arteko lotura (batetik, gizakia da errealitatearen neurria, eta, bestetik, ez dago haren kanpoko errealitate aldaezinik) guztiz koherentea da. Protagorasen pentsamenduan pertzeptzioa ez da, beraz, egiarentzako kriterio bat, Platonek uste bezala (Protagorasen erlatibismo pertzeptuala egiaren teoria batera erreduzitu baitu azken horrek). Platonek pertzeptzioa egia-kriterioa dela asumituz ondorioztatzen du hautemandako objektu baten pertzeptzio bat eta bakarra izan daitekeela judizio zuzen bakarra, kontrako judizioa derrigorrez erratua egongo litzatekeen bitartean. Hor dago Platonen akatsa, eta hortik dator Protagorasen erlatibismoa erlazonalismoarekin eta elkarneurgaiztasunarekin nahasteko joeraren arrazoia.

Protagorasen «gizakia da gauza guztien neurria», hortaz, Platonen idealismoaren kontrako lehen tesi handitzat ulertu behar da. Artikuluan esandakoaren harira, beharbada Protagorasen erlatibismoa koherentea den edo ez galdetu beharrean, Platonen errealitate objektiboaren teoria kontsistentea ote den galdetu beharko litzateke gehiago, ziur aski.

Dena den, Protagorasen erlatibismoa mende luzez irudikatu izan den hori baino askoz koherente eta garrantzitsua goa dela ikusi dugu. Mendebaldeko filosofiako pentsamendu osoa baldintzatu duten bi pentsalari handienak Platon eta Aristoteles direla jakina da. Sofistak, aldiz, diruaren truke filosofia modu instrumentalean erabiliz, bi horien itzalpean edo horien teoriari kontrapuntua jartzen ibili ziren pentsalaritzat hartu dira. Lan honek duen asmoa, hortaz, Protagorasen pentsamendua analizatuz, filosofiaren jaiotzan bertan erlatibismoak izan zuen garrantzia egun ematen zaiona baino handiagoa dela aldarrikatzea da, merezi duen bezala, hura karikatuzatu gabe. Agian horrela lortuko dugu egun

daukan estatus anti-filosofiko eta anti-intelektuala behin-
goz atzean uzteko bidea irekitzea, erlatibismoa filosofiaren
jaiotzan bertan ernaldtu zen pentsamendu sistematiko eta
koherente bezala aldarrikatuz. 🍷

Bibliografia

- Azurmendi, J. (1999): 'Sokrates, krisialdiko pentsalaria', in Platon: *Sokratesen Defentsa*, Jakin, Donostia, 7-79.
- Baghrmian, M.; Carter, J. A. (2016): 'Relativism', in E. N. Zalta (arg.): *The Stanford Encyclopedia of Philosophy* (<http://plato.stanford.edu/archives/spr2016/entries/relativism>).
- Brochard, V. (2005): *Los escépticos griegos*, Losada, Buenos Aires.
- Castagnoli, L. (2004): 'Protagoras Refuted. How Clever is Socrates' 'most clever' argument at *Theaetetus* 171a-c?', *Topoi* 23, 3-32.
- García Máynez, E. (1979): 'El mito de Prometeo y Epimeteo y las finalidades del castigo (Protágoras)', *Diánoia* 25/25, 1-20.
- Grube, G. M. A. (1984): *El pensamiento de Platón*, Gredos, Madril.
- Guthrie, W. K. C. (1969): *History of Greek Philosophy*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Jaeger, W. (2007): *Paideia. Los ideales de la cultura griega*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko Hiria.
- Lee, M. (2000): 'The Secret Doctrine: Plato's Defense of Protagoras in the *Theaetetus*', *Oxford Studies in Ancient Philosophy* 19, 47-86.
- Margolis, J. (1991): *The Truth about Relativism*, Basil Blackwell, Oxford.
- Parain, B. (1982): *Historia de la filosofía. Volumen 2. La filosofía griega*, Siglo XXI, Madril.
- Platon (2006): 'Teeteto', in Platon: *Diálogos Vol. V. Parménides, Teeteto, Sofista, Político*, Gredos, Madril.
- Samaranch, F. (1995): 'Protágoras y el enunciado del 'hombre medida'', *Éndoxa: Series Filosóficas* 5, 145-169.
- Sexto Enpiriko (1993): *Esbozos pirrónicos*, Gredos, Madril.
- Vernant, J. P. (1992): *Los orígenes del pensamiento griego*, Paidós, Barzelona.
- Wong, D. B. (1989): 'Three Kinds of Incommensurability', in M. Krausz (arg.): *Relativism. Interpretation and Confrontation*, University of Notre Dame Press, Notre Dame, 140-158.
- Zilioli, U. (2007): *Protagoras and the Challenge of Relativism. Plato's Subtlest Enemy*, Ashgate, Hampshire.

EGUNEN GURPILEAN

125 Kultura

#GipuzkoaZutik. Kultura plazan

Jalgi hadi plazara

Plazak lortu, plazak sortu

Miren Artetxe

132 Ekonomia

Europako Batzordearen makila eta

Europako Banku Zentralaren kea

Hego Euskal Herriko (des)inbertsioak

sistema globalean

Hauteskundeak eta erreferendumak

Henrike Galarza

138 Soziolinguistika

Euskalgintzak

Eta euskalgintzek zer?

Pasilloetan galduta

Txerra Rodriguez

144 Telepolis

Etorkizunaren nostalgia

Gorka Julio



Kultura

Miren Artetxe

#GipuzkoaZutik. Kultura plazan

Donostia. Turismoaren Europako Hiriburua. Maiatzak 31. #GipuzkoaZutik mugimenduak bi egun eta bi gau daramatza Gipuzkoa plazan, Euskal Herriko metro karratu garestienetakoetan, pozik eta protestan. Oraindik ez dituzte plazatik bota. Oraindik ez dira plazara itzuli. Oraindik ez dute inor atxilotu. Oraindik ez dira ia bi mila pertsona elkartu ekainaren 4ko manifestuekin. Giro lasaia dago plazan. Izaten da, bada, bazkalondoko tartetxo hori. Jendea taldeka ari da lanean, edo egonean dago, eta eguzkia bezperako euriak bustitako bazterrak lehortzen ari da. Ze polita. Orduantxe azaldu dira *Txoministak*. Labur-labur: Hiru Damatxo ideia faktoria umorezko web-seriea egiten ari da auzolanean. Alderdi politiko berri baten sorrera du ardatz proiektuak. Lantalde handia. Lau aktore. Horietako bi Edurne Azkarate *Karmele* eta Eñaut Gantxegi *Txester*. Azken horren eta Pablo Berastegiren antz kezkarria baliatuz, Karmelek, txoministen komunikazio arduradunak, elkarrizketa egiten dio Berastegiri. Donostia 2016ren balioekin bat egiten dutela-eta, kanpalekuan daudenei babesa ematera etorri omen dira. Hala esan du Gantxegik, alegia Txesterrek, alegia Berastegik (gaztelaniaz, noski), babesa eman izana argudiatzeko: «Kulturak zerbait ona izan behar du». Esan du. «Ez da suntsitu behar, eraiki egin behar da». Esan du. Kontzeptuak hustu, apaindu, eta airera bota. Donostia 2016.

Parodiarekin jarraituz, jakinarazi dute ekainaren 17an Espainiako Felipe VI.a, erresumako indar armatuen buruzagia, etorriko dela zer eta 'Bake-ituna' proiektua inauguratzera, Donostiako San Telmo Museora. Hori ez dute txoministek

esan, ordea. EFE agentziak jakinarazi du. Benetako Berastegi, Donostia 2016 Fundazioaren patronatuak zuzendari izendatu eta urte erdira egindako elkarrizketa batean, hala esan zuen Donostia 2016 proiektuaz (gaztelaniaz, noski): «Kultura alorretik tresna eraginkorrak [barka bekit Amurizak, kosta egiten zait 'efikazak' esatea] eskaini diezazkiekegu herritarrei, gatazkei aurre egiteko bizikidetzaren eta hiri hobe baten mesedetan». Ez zen Gipuzkoa Zutik-i buruz ari. Baina piztutako pospolo batek gehiago argitzen du piztu gabeko itsasargi batek baino.

Eta dagoeneko inor galdezka ari bada noiz hitz egin behar dudan kulturaz, jakin, hasieratik ari naizela. Eta horretarako erabil nezake zita bat, esaterako Sir Edward Burnett Tylor-ena –orain dela bi mendeko gizon zuri protestante eboluzionista eta kuakeroa («Dardar egizue Jainkoaren hitzarekin»)–. Oso erabilia. Baina zertarako? Kontua da kultura ez dela soilik maiuskulaz idazten dugun kultura, soilik egunkarietako 'kultura' atalean argitaratzen dena. Kultura gu gara, guk sortzen eta birsortzen dugula, egunero, gure uste, sinesmen, balio, gaitasun, ezagutza, etika eta joerekin. Definizio orobiltzaile eta aldi berean funtzional bat osatzeko eztabaida amaiezina izan liteke, baina antropologiaren ikuspegitik adostasun zabala biltzen dute kultura definitzen duten lau ideia hauek: kultura sinbolikoa da, kultura ikasi egiten da, kultura errealitatea interpretatzeko eta errealitateari zentzua emateko dugun modua da, eta pertsona bakoitza ez da kultura bat eta bakarrekoa.

Bada, gatozen gurera. Gipuzkoa plazan, erabaki da keinuak erabiliko direla batzar jendetsuetan denon iritzia kontuan hartu ahal izateko. Eta erraustegiaren sinboloak bizitza ez duina irudikatzen duela. Eta sinbolo hori erabiliko dela sistema honi eta elite politikoak bultzatu nahi duen bizi-ereduari kritika transbertsal bat egiteko.

Gipuzkoa plazan, kultura asanblearioaz hausnartzen da, eta batzar bakoitzetik ikasitakoa hurrengoan praktikara eramaten saiatu. Elikadura burujabetzaz eztabaidatzen da, eta

plazan urazak landatu. Lantalde feministak liburuxka bat jarri du plazan bertan ikusi edo bizi izandako egoera eta jarrera sexistak identifikatzeko –badaudelako–. Dena ez da koloretako haize-errotatxo bat firi-firi dantzan. Hutsuneak hor daude. Baina, gure inguruko errealitatea aztertzeko eta interpretatzeko gogoetak eta tresnak ari dira kolektiboki garatzen.

Kultura ez da norbanakoaren ezaugarri zurrin bat. Ez gara denok kultura berekoak. Bakoitza bere gizarte-esparruetan mugitzen da, bakoitza bere zoroak bizi du, bere ezaugarriak ditu eta bere kulturak dauzka. Ez gaude denean ados, eta ezta egon beharrik ere. Baina, kultura sortzen ari gara. Plazan.

Jalgi hadi plazara

Sortu eta birsortu. Kulturak, kultura izango bada, sortzeko ez ezik erreproduzitzeko mekanismoak behar ditu. Eta hori, besteak beste, plazan gertatzen da. Maiatzaren 23tik 29ra Aiaraldean antolatuta zen *Jalgi. Euskal kulturaren plaza ibiltaria* egitasmoa («Jalgi» lelopean ospatutako azken Herri Urrats izan eta bi astera). Antolatzailen esanetan:

XXI. mendean gure kulturari buruzko gogoeta guneetan hiru gabezia nagusi ditugula ondorioztatu [da]: plaza falta, ikusgarri izateko beharra, eta transmisiorik eza.

Kezka horiek abiaburu, eta gabezia horiei konponbidea auzolanean bilatzeko asmoz, egitarau mardula antolatu zuten, elkarlanean, Ahotsenea sortzaileen guneak, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak, EHAZE Euskal Herriko Antzerkizaleen Elkarteak eta Euskaltzaleen Topaguneak.

Hilaren 27an jorratu zuten transmisioaren gaia luze eta zabal. Besteak beste, *Nola bermatu kultur sorkuntzaren transmisioa* gaiaren inguruan aritu ziren Andoni Tolosa *Morau*, Oihane Perea, Oier Araolaza, Idurre Alonso eta Lorea Agirre.

Azken horrek bere hitzaldiari izenburu hau jarri zion: *La Basu gehiago eta Ez dok Amairu gutxiago*. Euskarazko rapa sortzen duen emakumea eta –Niko Etxarti barre egiteko zilegitasuna emanetz– euskal kantagintza modernoaren erakusletzat hartzen den mugimendua aurrez aurre jarriz, honakoa azpimarratu nahi izan zuen Agirrek: euskal kultura, gainerako kultura guztien antzera, «aldakorra» dela, «erai-kuntza soziala» den heinean. Ikuspegi horretatik, guk nahi ala ez izan beharko du kulturak unean unekoari egokituia, hots, unean unekoari erantzuteko gai: «Askotan tematzen gara 15 urteko gazte batek Xabier Lete kantatu dezan, eta beharbada ez du ezagutu behar».

Izan ere, maiz ulertu da transmisioa –eta gehiago euskarazkoa bezalako kultur sistema gutxituetan– belaunaldi batek besteari helarazi beharreko altxor gisa. Ondare gisa. Goitik behera. Bere arau eta jolaserako tarteekin. Bere definizio zurruneekin. Hau bada eta hau ez da pastorala. Hau bada eta hau ez da bertsolaritza. Hau bada. Hau ez da. Baina, izan bertikalki, izan horizontalki, sorkuntzarako materiala transmititzen da, batetik, eta sorkuntzarako mekanismoak, bestetik. Eta onen-onenean, sortzeko gogoia ere bai. Maika Etxekoparrek ederki azaltzen du Sustrai Colinak eginiko elkarrizketan:

Kantu, dantza eta sorkuntzarako gustua jaso ditut nik. Transmittitutako materialarekiko oso harreman aske eta jostaria. «Tori kantuak, tori dantzak, eta egizu nahi duzuna, josta zaitetz!» Horregatik, bizian, hurbilago sentitzen naiz jostatzeko gustua duen jendearengandik, ene ber materialarekin sortu eta hazi den aintzengandik baino. Ez naiz material hori besterik gabe kontserbatzeko eta salbatzeko logikan, ez zait burutik pasatzen ezin dela deus kanbiatu. Tradizioa galtzeko beldurak kakinarazten nau. Izan ere, aise da inspiratuak ez garelako beti ber gauza egin eta deus ez dela kanbiatu behar erranez justifikatzea. Sortzen ari zarenean ez duzu galtzeko beldurrik, hatsarreko material horrekiko maitasunez duzu sortzen. Tradizioa ederra da, pistak ematen ditu, formak, baina ez badugu kanbiatzen izan dadila ez dugulako kanbiatu nahi, ez ez delako kanbiatu behar.

Plazak lortu, plazak sortu

Sorkuntzari, jolasa eta transmisioa. Bertsolaritza jotzen da sarri berrikuntzaren eta jarraikortasunaren arteko oreka horretan asmatu izanaren eredu. Joan den mendeko gizarteko aldaketek bertsolaritza desagertzera eramango zuketena, ziur aski, bertsogintzak bere burua berrasmatzen jakin izan ez balu. Joxerra Garziak, Andoni Egañak eta Jon Sarasuak XX. mendean bertsolaritza goitik behera aldatu zela azpimarratu izan dute. Beste ikerlari batzuek, Jone Miren Hernandezek, esaterako, zalantzan jartzen dute zenbateraino aldatu den bertsolaritzaren beraren funtzioa eta muina. Formak aldatu direla, ordea, ezin zalantzan jarri.

Plazetatik erretiratu berri da aldaketa horien eragile handietako bat. 75 urte bete zituen egunean, joan den maiatzaren 3an, iragarri zuen Xabier Amurizak bere erretiroa apirilaren 29an azken bat-bateko saioa egin ondoren. Etxanoarrak bere garaian bertsotan ohikoak ez ziren hizkera –batuan hasi zen kantuan–, iruditeria, egiturak eta doinuak ekarri zituen bertsolaritzara. Eta bertsolaritzak bere egin. Berak sinetsarazi zuen Simone de Beauvoirrek emakumeaz esan zuena bertsolariaz ere: egin egiten dela, eta ez jai. Ideia horretatik abiatutako bertso-eskolen mugimendua gabe erabat desberdina litzateke gaur egungo bertsolaritza. Besteak beste, ez ziratekeen Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus eta Josu Goikoetxea egongo –bertso-eskoletako haur izandakoak hirurak– Jakinek eta Martin Ugalde Foroak maiatzaren 5ean antolatutako *Bertsolaritza, atzotik biharrera* solasaldian.

Han azpimarratu zuten Lujanbiok eta Arzallusek Amurizaren ekarpenaren garrantzia. «Gaur egungo bertsolaritza ezin da ulertu Xabier Amuriza gabe», bota zuen Lujanbiok. Bada garaia horri gehitzeko, gaur egungo bertsolaritza ezin dela ulertu Maialen Lujanbio gabe. Lujanbiok bilatzen duen bertsokera eder eta idor horrek aldaketa bat eragin du gaur egungo bertsogintzaren kanonetan. Jauzi bat. Dialektika-joko hutsetik mezu kontzientera. Ideietatik ideologiara, hitzaren

zentzu etimologikoenean. «Lurrari lotutako bertsokera bat [...] gure inguruaz, pertsonez, gizarteaz eta errealitateaz hitz egingo duena», Lujanbioren beraren hitzetan. Bertsogintzari eginiko ekarpena, noski, urtetako ibilbidean mamitutakoa da. Hasieratik hona ez da testuingurua gutxi aldatu.

Lujanbio lehen plazak egiten hasi zenean, gazte belaunaldi bat behar zuen bertso mugimenduak, eta labekada oso bat atera zela esan liteke. Bertsolaritzak ez zuen orain daukan prestigioa gure kultur sisteman, bertsolariak ez ziren eza-gunak, edo ez behintzat orain diren moduan, eta oso gazte gutxi zebilen plazaz plaza. Emakumeak zer esanik ez. Orain, berriz, «bizi guztia pasa dugunok gazteak izaten, gaur egun zaharrenak [dira] plaza askotan» [Lujanbiok dixit]. Gaur egun bertsolaritzaren sistemak behar ditu gazteak, baina, ez labekadaka. Ezta emakumeak ere. Nahikoak dira bakan batzuk. Funtzionatzen du. Eta esan liteke ezin dugula kexatu. Nondik begiratzen den. Apirilean 'Europa bat-batean' ekimenaren baitan bertsolariekin batera Kurdistan, Sardinia eta Herrialde Katalanetako inprobisatzaileak izan genituen Euskal Herriko hainbat oholtzatan, eta nabaria zen, besteak beste, sardiniarren miresmena, hainbeste gazte eta emakume kantuan ikusirik. Bai. Baina.

Saioa Alkaizak *Berria*-n aspaldi egindako analisiak argi erakusten du emakumeen kasuan kristalezko sabaia existitzen dela. Bertso eskoletan, %47 dira neskak. Helduen bertso eskoletako partaideen %26 baino ez (18 urterekin nesken %80k uzten du bertso eskola). Txapelketetako saioetako emakumeen proportzioa (merituz irabazitakoa) handiagoa da plazako saioetako baino (askok diskriminazio positiboa dagoela pentsatzen badu ere). Gazteen kasuan ere, sabaia ez dakit, baina, inbutua bai. Lujanbioren hitzetan, lehengo gazte eta helduagoen artean kontraste gehiago zegoen gaur egun beraien eta gazteagoen artean dagoena baino. Errazago identifika omen zitekeen haustura puntua. Baliteke. Arraila aurkitu behar; eta arrailetik pasa. Eta pasako da bat. Pasako dira bi. Baina, ez dago denontzat lekurik. Beharbada,

plazak lortzeaz gain, plazak sortzea da gaur egungo erronka. Garai batean ez bezala, bertso mugimenduak bertsotarako gai diren gazte asko sorrarazten ditu. Asko. Eta onak. Ekainaren 4an jokatu zen Euskal Herriko eskolarteko bertsolari txapelketa horren adibide. Plaza behar dute gazteok, bidean hazteko. Bertso-sistemak ez du hainbesteko eskaerarik. Ez hor gorako behintzat. Zorionez, gazte bertsolari asko dabil, oholtzadun zein oholtza gabeko plazatan kantuan, hizketan eta ekinean. Lilurak itsutu gabe; tronpatzeko beldurrik gabe; kontsolamendu beharrik gabe. Hemendik urte batzuetara kultura deituko dioguna orain ari da mamitzen. 🍷



Ekonomia

Henrike Galarza

Europako Batzordearen makila eta Europako Banku Zentralaren kea

Jean-Claude Juncker Europako Batzordearen buruari idatzitako gutun batean, Rajoy jaunak itxaroteko erran dio. Izan ere, Espainiako 2015eko aurrekontu publikoak defizitaren mugak gainditu arren, Espainiako PPko buruzagiaren ustez ezin zaio gehiagorik eskatu «hain ongi egin duen» ekonomia nazional bati. Estatu espainoleko hutsegite finantzarioaren 'ingurumaria' azaltzean, Rajoy jaunak munduko ekonomia-aren hazkundearen uzkurtzea eta inflazio tasa txiki eta negatiboak aipatzeaz gain, 2015eko hauteskunde autonomiko eta tokikoetan izandako aldaketa politikoak salatu ditu, «zenbait aurrekontu publikoren desbideraketa nabarmenak» izendatzeraino. Jarraian, «Eurogunearen egonkortasuna eta gure jendartearen ongizatearen hobetzea Europako Batasunaren funtsezko helburuak» direla gogoratzean, Espainia zigortzea, haren gobernuari isuna ezartzea, paradoxaltzat jo du estatu espainoleko jardueran dagoen gobernuburuak, «lortutako aurrerapausoak» kontuan harturik. Ildo horretan, beharrezko neurriak hartzeko konpromiso pertsonala azaldu du, gobernu berrian izanez gero... Azken argudio gisa, Hazkunde eta Egonkortasunerako Itunaren gehiegizko defizitaren herri baten aurkako lehenbiziko prozedura zigortzailea Espainiako erresumarena litzatekeela adierazi du.

Joan den maiatzean bidalitako lau orrialdeko testu horretan zehar, hizkuntza diplomatikoa, lerroarteko mezuak, benetako datuak eta egia erdiak nahasita daude, borondate oneko azalpen eta engaiamendu hutsalekin batera. Erabat logikoa izan da alderdi batzuetan, Europako Batzorde eta Eurotaldean

nagusiki, sortutako harrabotsa, nahiz eta azkenaldi honetan malgutasunaren aldeko iritziak agertu, Alemaniatik baita ere. Eurokraziaren ohiturei jarraikiz, adibideak ez dira faltako, ezer ez gertatzea da afera horren amaiera isila.

Bitartean, Draghi jaunak 2014an hasitako finantza aktiboen erosketen programaren barnean, bigarren deialdi bat egin berri du: finantza enpresek, bankuak barne, egin dituzten inbertsioen truke euro 'berriak' banatzera doa Europako Banku Zentrala, beti ere urteko inflazio tasa %2ra iritsi arte, Eurogunean jarduera ekonomikoa berpizteko. Duela bi urte emandako bultzada finantzarioaren emaitza homeopatikoa ikusirik, zalantza asko dago bigarren horren benetako eragin makroekonomikoez. Estatu Batuetan, Erreserba Federalaren Bankuak ez du interes tasa igo, lehenbiziko seihilekoan hango ekonomiaren soldatak eta lanpostuak pentsatu baino gutxiago hazi ondoren. Gainera, datorren azaroan egin beharreko presidentetzarako hauteskundeetan Trump ahoberoa presidente izateko aukeraren bat izatea ez da egonkortasun ekonomikorako laguntza hoberena. Ez du ematen Europako Banku Zentrala erosketa horiek abagune egokienean egiten ari denik, baina indarrean dauden haren estatutuen arabera ez du bertze aukerarik.

Hego Euskal Herriko (des)inbertsioak sistema globalean

Azkenean, ofizialki iragarri dute: Iruñeko Landabengo VWen lantegian bigarren eredu bat 2018tik aurrera ekoiztuko dute. Eredu berriaren gaztelerazko izengoitia 'todocamino' izanda, pentsatzekoa da SUV (*sport utility vehicle*) motatakoa dela, eredu kutsakorrenetarikoa, alegia. Dagoeneko 'todoterreno' hitza ekologikoki gordinegia dela onartuz, beharbada Opu-seko sortzailearen liburu nagusiaren izenburuari keinu bat egin nahi izan diote, *dieselgate* dela-eta merkatuen eta erosleen konfiantza berreskuratzeko edozein laguntza ona

delakoan. Beharrezko inbertsioen kopururik ez da iragarri, nahiz Landaben lantegiko bizpahirurehun lanpostu berriez mintzatu diren. Ikustekoa da gero hornitzaileen plantillak ere handituko diren edo ez. Oraino jakin den kontu baskarra TRW enpresatik etorri da: aurtengo apiril arte kaleratutako 100 lagun baino gehiago ez dituela kontratatuko, baina datozen hilabeteetarako aldi baterako ia 200 kontratu berri egitera doala iragarri du, inolako lotsarik gabe, erantsi genezake. Zer erran Arcelor Mittal enpresaren proposamenez? Nafarroa Garaiko Buñuel herrian ere bertze enpresa transnazional baten erabakia ari dira pairatzen: General Electricek bertan duen lantegia ixtearena, hain zuzen. Langileen proposamenei beti entzungor, lantoki horiek ixteko enpresek aurkezten dituzten sasiargudioak nahi dutena nahi dutenean egiteko estalki merkea bertzerik ez dira. Goiko eta urrutiko agintariak ezarritako aginduak behekoengana iritsi orduko, nekez negoziatzen daitezkeelakoan gaude. Aldiz, Viscofan enpresa transnazional nafarrak lantoki berri bat eraiki behar du, Oibar eta Kaseda herrien aldean. Atzerrian inbertsioak egiten baditu ere, enpresa horren plangintzan hurbileko jendearentzako lekuren bat egon badago. Irizpide kapitalista hutsez gain, inbertsioak egitearen, edo ez egitearen, erabakia politikoa da.

Azken urteetako lan erreformak direla eta, mobilizazio sendo eta baturik gabe ia ezinezkoa da lan baldintza duinak lortzea adinean aurrera doazen langileen kasuan eta, bertzeak bertze, andre, gazte eta epe luzeko langabeen artean. Hurbileko kasuak lekuko, politika ekonomiko neoliberalen asmoa da kapitalen arteko lehia langileen artean gertatzea. Izan ere, lan legedi aurrerakoiek, ongizate estatuak eta antzeko ekimen sozialek jende xumearen oinarritzko eskubideak babesten zituzten neurri berean, enpresa kapitalisten arteko lehia enpresa berberen artean –eta enpresa kontuetan: marketing eta teknikaren esparruetan– egitera behartzen zituzten. Aro keynesiar horretan, barne merkatuak itxita zeuden atzerriko finantza kapitalentzako, eta finantza legedi

zorrotzak zeuden, interes eta truke tasa nazionalen gaineko botere politikoa indartzeko.

Baina, 1970eko hamarkadan, desarautze neoliberalak truke tasa finkoen ezabatzearekin hasi zen, Amerikako Estatu Batuetako gobernuaren erabakiaren ondorioz. Truke tasa finkoak trabak ziren enpresa handien nazioartekotze egitasmoentzat. Jarraian, 1980ko urteetarako, finantza eragiketa nazionalen askatze/desarautzeak ugaltzen hasi ziren, nazioartean nagusitzen ari zen erokeria espekulatuileari aurre egiteko, Hego Amerikako herrien eta Mexikoko kanpo zorren krisiak barne. Bertzaldetik, gogoan izan Frantziako MATTIE, finantza merkatu globala, sozialdemokratek sortu zutela, geldiezina zen espekulazio finantzarioaren negozioaren zati bat berreskuratzeko esperantzan... Orduan hasi zen azkartzen lan legedi aurrerakoen aurkako eraso bortitz bezain suntsitzailea, ez soilki esparru legalean, jendartearen kontu guztietan baizik.

Horrela, langabezi tasak aspalditik handienak ziren garaietan, Thatcher andreak eta Reagan jaunak publikoki adierazitako mezuak: bertzeak bertze, langabe zeudenen aurkako adierazpen pozoitsuak; langile ‘pribilegiatuak’ aurkakoak, hasieran funtzionario eta enpresa publikoetakoak, edozein enpresatakoak gero; gastu publikoaren gehiegikeriak: erakunde publiko gehiegi, langile publiko gehiegi, soldata handiegiak... Poliziak, militarrek eta... politikariak kenduta, noski. *Divide et imperas*, ez zuten ezer berririk asmatu. Baina bai lortu egin zutela! Antikomunista porrokatuak, soldatak jaisten zituzten bitartean, enpresa handi eta pertsona aberatsen zergak jaitiaz gain, banakako kapitalismoaren aroa iragartzen ari ziren, etxebizitzaren merkatua eta baloreen burtsa espresuki aipatu gabe. Proletalgoaren zati nabarmen bat tranpan erori zen, telezaborrak eta Mario Conde bezalako pertsonaiek (bat-batean eta askotan ilegalki aberastutakoak) iritzi publikoaren miresmena zutelarik. Hala, tradizionalki ‘bizitza bateko erosketak’ zena –famiaren etxebizitzarena, alegia– espekulazio eragiketa bat bilakatu zen: etxea erosi, ez betiko bizi izateko, gero saltzeko baizik; ondoren berriro erosteko, eta abar, burbuila

lehertu arte. Egia da prozesuan zehar egundoko irabaziak lortu zituztela gutxi batzuek, baina handinahikeriaren pozoiak ia guztiongan eragin zuen, galtzaile eta irabazle nahasturik. Proletalgoa 'burges' bilakatzearekin batera, zor gehiago, gastu gehiago, egonezin pertsonal handiago, orduak sartzeko premia handiago, aisialdirako ordu urriegiak...

Ingurumari horretan, langile sindikatu eta mugimendu sozialek eskaintzen/eskatzen ditugun atxikimenduetatik langile asko urruntzea denbora kontua zen, herri industrializatu askotan gehiengo politiko ezin eskuindarragoak sendotuz. Azken asteotan Frantzia aldean gertatzen ari dena –koordinaturiko grebak, manifestazioak eta izandako istiluak– Holandako presidentek ezarri nahi duen lan erreformaren aurkakoa bada ere, sakoneko egonezinaren ondorioa ere badelakoan gaude: Nuit Debout ekimenean parte hartzen ari diren belaualdi burges gazteak haien gurasoak baino bizimodu apalagoa izatera doazela ohartzen ari dira. *Banlieue*-etako kumeek jaiotzatik dakitena ikasten ari dira orain, hobe berandu inoiz ez baino.

Hauteskundeak eta erreferendumak

Austria, Mexiko, Peru eta Italian izan diren hauteskudetan ezin ukatu batek baino gehiagok sorpresa ederrik jaso duenik. Azken orduko, postaz bidalitako, bozen zenbaketa arte ez zen Austriako presidente berririk hautatu. Muturreko eskuinaren hautagaiak azken txanpan huts egin zuen, ordu-ra arte inork espero ez zuen garaipena boto puska batetik galduz. Egiatan, oraindik afera ez da amaitu, galtzailearen alderdiak helegitea jarri baitu gaizki egindako zenbait zenbaketa-prozeduraren kontura. Postu sinboliko hutsa omen da Austriako presidentetza, baina mugimendu aurrerakoi eta alternatiboentzat bozketan izandako emaitzak albiste txarra direlakoan gaude. Beharbada, herri horretako alderdi politiko tradizionalen porrot galantak ez dira ehuneko ehunean

hauteskunde parlamentarioetan errepikatuko, baina hurrengo gehiengo politikoaren eratzea, gobernu bat sustengatzeko modukoa, ultra arriskutsuen eskuetan legoke. Ekonomikoki aldaketa nabarmenik izan gabe ere, eskubide zibilen arloan gerta litekeena kezkatzekoa da.

Italiako tokiko hauteskundeetan ez da erabateko irabazle edo galtzailerik atera; ordu hauetan bigarren bozketa egiteke dago, eta, independente ugari denez, zaila da erratea eskuin edo ezkerraren gehiengorik dagoen. Berriki izan den lehengo bozketaldian, Berlusconiaren alderdiaren gainbehera eta Grillo komikoak zuzentzen duen Bortz Izar alderdiaren sendotzea izan dira gertakizun deigarrienak, Renzi lehen ministroaren alderdiaren emaitza epelez gain.

Urrutira begira, Perun ustekabe potoloena gertatu da: Kuczynski Ekonomia ministro ohiak irabazi omen du, Fujimori presidente ohiaren alaba azken hamar egunera arte inkestetan bozemaileen maitatuena izan bazen ere. Hala ere, bi hautagaiek lortu dituzten boz kopuruak arras parekatuak direlako, helegite asko jarri omen dituzte, behin betiko emaitzen iragarpena atzeratuz. Hautatutakoa edozein izanda ere, hain zatiturik dagoen biztanleriaren elkarbizitza baketsua ziurtatzea ez da lan erraza izanen, Kuczynski presidentearentzat bereziki, Fujimoriaren aldekoek hango Kongresuan erabateko gehiengoa dute eta.

Etiket hurbilago, Suitzako erreferendumean, bozemaileen laurdenak baino gehiagok oinarritzko eta guztientzako diru sarrera (batez bertzeko soldataren heren bat) banatzeari baietz erran diote. Ez da onartu proposamena, baina tradizionalki kontserbadore eta itxia izan den herri txiki horretan zerbait aldatzen ari delakoan gaude. 🍷



Euskalgintzak

Gurean sarritan hizkuntzaren aldeko mugimendu soziala euskalgintzaren kontzeptuaren aterkipean aztertu da. Behin baino gehiagotan hizkuntzaren aldeko mugimendu sozialaren sinonimotzat hartua izan da. Izan ere, euskalgintza gurean asko erabiltzen den berba da. Hala ere, inork gutxi hartu du termino hori zedarrizteko lanik.

Mikel Zalbiderena da ezagutzen dudana definizio bakarra. Honelaxe definitzen du berak «berariazko euskalgintza»:

Soziokulturalki autorregulatzeko eta belaunzuz belaun transmititzeko indar faltaz euskal etnokultura (hizkuntza bera) gainbehera datorrela ikusirik, erabat galtzeko arriskua uste izanik eta halakorik nahi ez delarik, etnokultura horri bizirik eusteko giza artean deliberatuki egindako saio multzoa. Hots, euskal kulturaren on beharrez hainbat eragilek, perspektiba soziokulturaletik eta elkarlanean, eraturako ekimen sortari deitzen zaio euskalgintza.

Zalbideren definizioak ez du berbarik egiten mugimendu sozialei buruz: hori baino zabalagoa da bere berbetan euskalgintza («ekimen sorta» gisa edo «giza artean deliberatuki egindako saio multzo» gisa dakargu berak). Azkenaldian, gainera, erakunde publiko batzuek (Eusko Jaurlaritzak zein Gipuzkoako Foru Aldundiak, esaterako) euskararen eta euskal kulturaren alde egiten duten lana euskalgintzat hartu dute (Patxi Baztarrikak euskalgintza instituzionala eta euskalgintza soziala bereizten ditu *Babeli gorazarre* liburuan).

Euskalgintzaren kasuan bereziki garrantzitsua iruditzen zait autopertzepzioa. Izan ere, gurean hainbat komunikabidek, aholkularitza-enpresak, elkargo profesionalak, ikastetxeak

eta abarrek euren burua dute euskalgintzat (eta ez hori bakarrik, Kontseiluak berak, zeinak bere burua euskararen aldeko erakunde sozialen bilgune gisa duen, horietako askoren batze-lana egiten du). Eta, noski, lehen aipatutako erakunde publikoek ere.

Horrek guztiak itzelezko aniztasuna islatzen du. Eta, hori gutxi balitz, Mikel Zalbideren definiziora itzulita, irakurle azkarra konturatuko zen berak «berariazko euskalgintza» definitu duela. Baina, horrez gain, «bide batezko euskalgintza» ere definitzen du Zalbidek eta, jakina, euskalgintzaren barruan sartu ere. Honela dio berak:

Euskal etnokultura (hizkuntza barne) gainbehera datorrela jakinik, baina galera hori eragozteko berariazko asmorik gabe, etnokultura horri bizirik eusteko lagungarri gertatzen diren ekintzak bideratzea.

Kasu horretan, asmoei baino, emaitzei begiratzen die Zalbidek.

(Parentesia irekiko dut: ez al da gaur eta hemen beharrezkoagoa bide batezko euskalgintza berariazko euskalgintza baino? Ez al da eraginkorragoa euskara sustatzeko berariazko asmoa izan barik euskara sustatzen duena? Galderak utziko ditut airean ea nork erantzungo...)

Beraz, ematen du gaur eta hemen euskalgintzaren kontzeptura biltzen direnek esparru semantiko zabalagoa betetzen dutela hizkuntzaren aldeko mugimendu sozialak betetzen duenak baino. Ez hori bakarrik: luze-zabaleko literatura zientifikoan mugimendu sozialen inguruko teorizazioak tradizio sakona du gurean zein nazioartean. Hortaz, ez zait zentzuzkoa iruditzen bata zein bestea sinonimotzat erabiltzea.

Eta, gainera, esan bezala, aniztasuna ikaragarria da. Hori dela eta, eta beste batzuek dagoeneko jorratu duten bidetik (esate baterako, feminismoek, ezkerrek...), ez al litzateke egokiago singularrean jokatu beharrean, pluralean jokatzen hasiko bagina euskalgintzarekin? Hau da, 'euskalgintza' baino, ez al litzateke egokiago 'euskalgintzak' erabiltzea?

Eta euskalgintzek zer?

Pluralean zein singularrean, behin baino gehiagotan galde-tu diot neure buruari zein izan beharko litzatekeen euskalgintzaren lehentasuna. Mila erantzun egon daitezke, mila ikuspuntu, mila ñabardura. Ez delako batere erraza horren inguruan iritzi sendo eta egituratu bat izatea, ia denontzako balioko duena (eta, agian, ez da desiratzeko modukoa ere).

Baina paperaren gainean zirriborratzen ari naizelarik, botako dut erantzun moduko bat, inork gutxik bere egingo duena. Baina, tira, talaiatxo hau probestu beharra dago. Nire ustez, euskalgintzako erakundeek kontrapubliko modura jokatu beharko lukete (jokatzen dute hein handi batean, baina, tira, balizko egoera idealaz ari naiz eta gurago hipotetikoa erabiltzea). Eta zer da kontrapubliko modura jokatzea?

Hor nonbait dabilen definizio baten arabera, kontrapublikoak lirateke talde sozial menderatuetako kideek sortu eta zabaltzen dituzten kontradiskurtsoak, euren nortasun eta beharrizanen interpretazio beregaina egiteko asmoz. Baina kontradiskurtso horiek helburu zehatza dute: publiko orokorretan eragitea, publiko orokorretan aldaketak sorraraztea (Jakinen aurreko zenbakian aipatutako gutxiengo aktiboen alderik aktiboenak lirateke kontrapublikoak, gutxi gorabehera).

Beste era batera esanda, kontrapubliko alternatiboak izan beharko lirateke euskalgintzako erakundeak, berrikuntzak sortu beharko lituzkete beste mugimenduek kopia ditzaten. Jarri beharko lituzkete martxan praktika performatiboak. Izan ere, laborategi sozialak diren kontzientzia garatu beharko lukete. Aurrehartze esperimentalala landu beharko lukete, utopien laborategi sozial gisara egin beharko lukete lan. Hortaz, komunitatearen logikak barneratuta, eragin ere eragin beharko lukete euskalgintzako erakundeek. Komunitatea sortu efikazia handiagoz eragin ahal izateko, hain zuzen ere.

Harremanetarako forma berritzaileak esperimentatu beharko lituzkete, praktika alternatiboak eraiki beharko lituzkete, nortasun kolektiboa praktikatu beharko lukete. Hori guztia,

handik eta hemendik, behetik gora eta goitik behera, ertzetatik zein erdiguneetatik. Euskalgintzaren ohiko berbakera-
ra itzulita, gaur eta hemen arnagune funtzionalak sortzea
litzateke, euskaraz funtzionatuko duten guneak eta uneak
eraikitzea litzateke, nortasun kolektiboa elikatuko duten
(alaitasunez, koherentziaz eta maitasunez) praktikak han eta
hemen saretzea litzateke.

Eta hemen esandakoak, gainera, berdin balio beharko luke
mugimendu sozialentzako, aholkularitza enpresentzako, ko-
munikabideentzako edo euskalgintza instituzionalarentzako
(aldeak alde eta bakoitzak eragin ditzakeenak aintzat har-
turik, beti ere). Berdin, logika bera, filosofia bera, emaitzak
biderkatu ahal izateko.

Pasilloetan galduta

Jaime Altunak ikerketa plazaratu du azken Hausnartu sa-
rietan eta bigarren geratu da. ‘Euskara pasilloetan galduta.
Praktiken aldaketak eta hizkuntza mudantzak nerabeza-
roan’ du izenburua bere lanak. Nerabeek zer esaten duten
euskarari buruz asko interesatzen zaidan gaia da. Izan ere,
nerabeek ez dute gezurrik esaten (gezur sozialak, behinik
behin). Nerabeek beste inork baino hobeto usaintzen dute
jendar-tean nagusi diren joerak, jendar-tean nagusi diren lu-
rrazpiko bidezidorrak. Jendar-tera moldatzea dute langintza
potoloena nerabeek, nabarmenduz eta transgresore jokatu-
z, baina gehiegi nabarmendu barik, beti ere. Horregatik, hain
zuzen ere, interesatzen zait zer duten esateko.

Gurean behin baino gehiagotan jo izan da eurengana iritzi
eske. Eta nerabeek oso ondo dute barneratuta nagusiagook
zer gura dugun entzun. Politikoki oso zuzen jokatu ohi dute,
horrenbeste urtetan doktrinamendua jaso ostean. Horregatik
iruditzen zait orain dela gutxi Jaime Altunak plazaratutako
ikerketak balio handia duela. Izan ere, ikerketa ‘nagusi’ ba-
tek egin beharrean, gaztetxoak eurak izan dira ikerketa-gai

eta ikerketaren subjektu. Eta horrek balio erantsia ematen dio delako ikerketari.

Hainbat puntutatik oratu diezaiokegu ikerketari. Baina, tira, hemen labur beharrez, zatitxo batzuei baino ez diet kasurik egingo. Hauek dira Jaime Altunaren lanetik nabarmendu ditudan zati batzuk, zein baino zein iradokitzaileagoa, eta zein baino zein pentsarazleagoa (neure iritziz, behintzat).

Euskara, beraz, ikastolako nerabeen identitate ezaugarria da baina ez dute harrotasunez bizi. Nolabait, besteek ezartzen dieten ezaugarria da eta prestigiorik ez duena.

Gaztetxoek gaztelaniaz hitz egitea talde identitatearekin baino heldu sentitzearekin lotu dute.

Hizkuntzak berak gizartean orokorrakoak diren beste aurreiritzi batzuk ekarri ohi dituela esan genezakeen.

Zurriolako ikastolak euskararen erabilera handitzeko lan handia egiten du eta gazteek irakasleen presioa nabaritzen dute. Dena den, euskararen erabilera handitzeko garatzen diren jarduerak baloratzerakoan nerabeen artean eszeptizismoa nabaritzen da.

Gaztetxoek arabera, ikaskide batzuekin erdaraz egitea ateratzen zaizu eta besteekin euskaraz.

Horiek guztiak irakurri ostean, Hausnartu sarrietara aurkeztu den beste lan bat etorri zait burura (Hausnartu saria irabazi du, gainera). Xabi Aizpuruak arnasmuneetako gaztetxoek eskoletan euskarari buruz zer lantzen duten izan du ikerketa-gai (horrez gain, dauden hutsuneak gainditzeko proposamena egin du, baina hori beste baterako lagako dugu). Hau da, ikasleek zer informazio duten euskararen egoerari buruz, zer informazio euskararen arnasmuneei buruz eta abar.

Ondorioetako bat da ikasleek ez dutela jasotzen soziolinguistika gai buruzko bateratutako ikasgairik. Hau da, ikastetxe eta irakasle bakoitzaren esku geratzen da soziolinguistikari buruzko gaiak lantzea (eta, noski, gai horiek zelan landu). Aspaldiko kezka batekin egin du tupust horrek neure barnean: zein izan beharko lirateke ikasle batek soziolinguistikari buruz jakin beharko lituzkeenak derrigorezko irakaskuntza aldia amaituta? (Inoiz horri buruz ere

egin beharko genuke berba eta, ahal den neurrian, minimo batzuk ere adostu.)

Baina... aspaldiko kezka batekin ez ezik, oraintsu ikasi dudan kontzeptu batekin ere egin dute tupust Xabi Aizpurua-ren ikerketaren ondorioek: ezkutuko curriculumarekin, hain zuzen ere. Eta zer da ezkutuko curriculum delako hori? Ba, ikasleek bereganatzen dituzten jakintzak, nahiz eta horiek curriculum ofizialean jasota egon ez. Jakintza horiek 'irakatsi' daitezke berariaz edo ez. Edozein ingurunek, ekintza sozialek eta abarrek eman dezakete jakintza hori, eskolan zein eskolatik kanpora. Hori da ezkutukoa, hori da benetakoa (hori da nerabeek inork baino hobeto usaintzen dutena).

Galdera sinplea bezain korapilatsua da, beraz: zein da ikasleek euskararen inguruan eta bereziki euskararen erabileraren inguruan jasotzen duten ezkutuko curriculum? Zein? Eta zer egin beharko lukete euskalgintzek ezkutuko curriculum horretan eragiteko? 🐞



Etorkizunaren nostalgia

Beti gabiltza euskara bezalako hizkuntza gutxiagotuen eta IKTen eta oro har komunikazioaren harremanen inguruan bueltaka, baina errealitateak dio gauza asko egin daitezkeela eta horietakoren batzuk behintzat egiteko ordua dela.

Hainbat aritu, aditu eta erakunde bildu dituen Euskararen Aholku Batzordeko azpibatzerde batek erreferentzia izan nahi duen dokumentu bat atera du: 'Euskarazko IKTak: gomendioak herri aginteentzat'. Maite Goñik koordinatu duen batzordetik ateratako dokumentuak zenbait proposamen jaso eta hurrenkera bat ere ematen saiatzen da laguntzeko.

Hor esaten direnez gain, gaurtik hasita, euskara bezalako hizkuntza batentzat jada martxan, beste hizkuntza batzuetan dauden esperientziak, proiektuak edo ekimenak ekarriko ditugu lerro hauetara. Bakoitza ekartzeko arrazoiak ezberdinak izango dira, baina denek dute helburu 'zer egin daiteke?' galderari erantzun posible bat ematea.

Hizkuntzak ikasteko/irakasteko era berriak eta lengoia berri bat ikastearen garrantzia

Hizkuntzak ikasteko bideak gero eta gehiago dira. Inoiz baino baliabide gehiago ditugu sarean ikasteko, baina baita zerbitzu eta tresna berriak ere. Horien artean Duolingo.com dago, hizkuntzak ikusteko aplikazioa. Aplikazioak oso modu erakargarrian gidatzen du hizkuntzen ikasketa prozesua, jokatzen erabiltzen diren estrategiak baliatuz jendearen interesa bereganatzeko. Hedapen zabaleko hizkuntzak bai, baina irlandera, katalana, galesa... bezalako hizkuntzak ere badaude.

Hizkuntza ez, baina lengoia berri bat, programazio lengoaiak ikastea gero eta garrantzitsuagoa bihurtzen ari da. Teknologia gihatutako jendarte batean bizi gara, eta programazio lengoaiak ikastea edo behintzat ezagutzea garrantzitsua izango da, gure hizkuntzatik ere egin daitezkeen gauzak irudikatzeko behintzat. Code.org zerbitzuak, adibidez, Duolingo bezala, jokoetan oinarritutako estrategia bidez lehen pausoak emateko aukera ematen digu, eta euskaraz dago.

Sozioteknologian formazioa eta ahalduntzea bizitza osoan

Teknologia duen garrantzia onartzen badugu, horretan ahalduntzeak duen garrantzia nabarmena da. Ikasketa modu berriak eta askotarikoak agertu diren honetan, euskaraz bezalako hizkuntzek bere tokia egin behar dute etengabeko ikasketa prozesua ahalbidetzen duten tresnetan. Horrelakoak dira zenbait online ikastaro edo MOOCak (*Massive Open Online Course*). Horrelako ikastaroetan Coursera.org da erreferentziatzeko guneetako bat maila globalean; eta, gurean, UEUK, adibidez, zenbait ikastaro egin izan ditu euskaraz.

Herritarren ahalduntzea ere bilatu beharko dugu, eta hizkuntza-teknologia eta berrikuntzari lotutako espazioak behar ditugu horretarako. Gurean KZguneak egon diren bezala, beste toki batzuetan beste maila bateko ekimenak burutu dituzte. Horietako bat, Citolab.eu laborategi herritarra: Cornellako espazio horrek herritarrek adin ezberdinetan teknologiarekin duten harremana lantzen du, dinamika ezberdinak eta parte hartzea bilatuz.

Online eta offline komunitateei lagundu eta berrien sorkuntza sustatu

Gai ezberdinen bueltan, euskara hizkuntza bezala baliatuz biltzen diren online komunitateen sustapena oso garrantzitsua da, beraien ekinaz aurrerapauso handiak ematen baitira. Horietako adibide gertuko bat Software Librea euskarara

lokalizatzeko lanetan diharduen Librezeale.eus elkarteak da. Berari esker, euskaraz ditugu bestela ezinezkoak izango liratekeen programa eta aplikazioak.

Bestalde, hizkuntza eta teknologia batuz, ekimen asko daude. Nos-ta-konekta.com, papiamento hizkuntzaren inguruan sortutako komunitate parte hartzailea, adibide interesgarrienetakoa da. Papiamentoa Aruba, Bonaire eta Curaçao uharteetan erabiltzen den hizkuntza kreolea da, portugesean oinarritutakoa baina gaztelaniaren eragina duena. Komunitate horrek hizkuntza horretan teknologiaren gaiak jorratzen ditu: webguneak egin, hiztegiak erabiltzeko tresnak hedatu, hizkuntza horretan tresnak konfiguratzeko ikasi...

Ezagutzaren biltegi libre eta irekiak behar ditugu

Gurea bezalako hizkuntzek sortzen dutena erabili, bererabili eta hobetzeko aukera bakarrenetakoa da baliabideak izateko garaian. Horretarako sortzen dena ahalik eta libreena eta atzigarriena egin behar da. Horretan asko laguntzen dute, adibidez, Wikimediafoundation.org-eko proiektuek; Wikipedia da, noski, ezagunena, baina askoz gehiago daude.

Horrez gain, gero eta garrantzi gehiago dauka gizakiok ez ezik makinek ere ulertu eta berrerabiltzeko moduan jartzea datuak. Horretarako, estandar libreak erabiltzeak eta teknologia semantikoek zeresan handia dute. Arlo horretan, erreferentea da *Linked Data* proiektua: lod-cloud.net webgunean, mundu mailako biltegi irekiak bisualizatzen dira. Hor egoteak etorkizunean garatuko diren tresnetan ere egoteko aukera izatea dakar.

Erabili eta ekarpenak egin tresna kutxa libreran

Euskaraz dauden tresnak erabiltzea eta, horrela ez bada, lokalizatzen laguntzea oso garrantzitsua da. Erabiltze soilarekin eragitea lortzen bada, zer esan horiek gure hizkuntzara itzuli eta besteen esku jartzearekin. Programa bat euskaratu

eta hizkuntzaren berezitasunetara egokitzeari lokalizatzea deitzen zaio; eta ia edozeinek egin dezakeen zerbait da, ez da jakintza tekniko berezirik behar.

Nabigatzailea da horietan tresnarik garrantzitsuenetakoa: euskaraz instalatu eta konfiguratzearekin soilik, sartzen garen guneeetako estatistiketan hizkuntzaren arrastoa utziko dugu, eta euskaraz dauden webguneetan euskarazko edukia ikusi. Zorionez Mozilla Firefox nabigatzailea euskaraz badugu euskaldunok.

Bestelako tresnak ere badaude: horien artean WordPress, webguneak egiteko Edukiak Kudeatzeko Sistema (EKS). Mundu mailan gehien erabiltzen den tresnetako bat izanik, estrategikoa da era horretakoak ere eduki eta erabiltzea.

Teknologiaren erraldoiak, beti gertu

Teknologia libreak estrategikoak badira ere, jendartean gehien erabiltzen diren beste batzuk ere kontuan hartu behar dira. Horretarako garrantzitsua da Google, Facebook, Twitter eta abarrekin harremanak edukitzea eta beren produktuak lokalizatzea eskatzea.

Horrek diplomazia eskatuko du zenbait kasutan, eta beste batzuetan aktibismo praktikak: diplomazia, adibidez, PuntuEus Fundazioak Twitterren publizitatea jartzeko aukera aztertzeke egin zuena; aktibismo kasu bat, aldiz, Twittereuskaraz.com Twitter euskaraz eskatzeko ekimen herritarrarena.

Handira pentsatu, izan hiperlokala

Internetek espazioa eta denbora tolesten du askotan. Gai guztietarako audientziak daude; gai batzuek geografikoki interes zehatz baterako eginak behar dute izan, edo, gaiei buruz ari bagara, oso gai zehatzetarako interesatuak egon daitezke. Eskala handiko komunikazio tresnak baino, eskala txikiko asko eta horiek agregatuko dituzten ekimenak izan daitezke interesgarriak. Gurean Hitza.eus adibidea dago,

herrietako eta herrialdeetako atari hiperlokalak batzen ditu hedabide handiagoak osatuz.

Gaika, aldiz, blog indibidual eta kolektiboetan edukia sor-tzea beharrezkoa da. Maila globalean, Medium.com artiku-luak idazteko atariak ikusgarritasun handia hartu du. Jarrai-tzaileak batu eta audientziak pertsonaren edo gaien arabera aukeratzeko bidea ematen du zerbitzu horrek.

Hedabideen konbergentzia transmedia, soziala, nahierakoa eta ubikua da

Asko hitz egin da hedabideen arteko konbergentziaz; aspaldikoa bada ere, orain telebista aparatuen eta Interneten artekoa gertatu da. Gero eta zailagoa da hedabide bat sailkatzea: telebista, bideoak, batzuetan testua ere, sare soziale-tako jarduna... dena nahasten da. Dena nahasten dugu guk ere, telebistan gertatzen dena sare sozialetatik jarraituz eta eztabaidatuz, adibidez.

Denbora errealean hori, baina baita nahi dugunean ere, pro-grama gehienak nahieran ikus/entzun baitaitezke beranduago; gailu mugikorretan gero eta errazago. Zientzia fikzio ziren ideia batzuk merke eta zabal iristeko bideak aurkitu dira; ha-lakoa da Googleren *Cardboard* proiektua: kartoizko betaurre-koetan mugikor bat sartuz, errealitate birtualeko tresna bihur-tzen dira, beste dimentsio bat gehiago informazioarentzat.

Ikus-entzunezkoak garrantzi izugarria badu ere, *podcast* eta online irratiak ere bere bidea egiten ari dira. Hobekien egokitzen ikasi duten hedabideak dira eta Internetek gainera ate berriak ireki dizkie. Aztertzeko adibide interesgarriene-takoa Ivoox.com ataria da.

Mugikorrek dena konkistatuko du; konkista dezagun, beraz

Sakelako telefonoetako audientziak gora doaz etengabe, arlo askotan ordenagailu arruntetako audientziak baino handia-goak baitira. Horrek ere berezko bideak ireki ditu, jokoentzako

eremu berri bat, edukiak eskaintzeko formatu berriak eta baita komunikaziorako eta narraziorako proposamen berrituak.

Berehalakotasuna faktore garrantzitsua izanik, horren adibide dira Snapchat.com bezalako mezularitza efimerorako tresnak edota Periscope.tv bideoak zuzenean emititzeko eta sozializatzeko aplikazioak. Aukerei adi egon eta eremu horretan jarri beharko da indar gehien.

Hizkuntza teknologiak eta Adimen Artifiziala sorkuntzaren lagun

Hizkuntza teknologiak garatzea ezinbestekoa da etorkizunean euskara ulertu, itzuli, sintetizatu... nahi badugu behintzat. Ez hori bakarrik, beste hizkuntzetako edukiak itzuli eta euskaratzeko tresna paregabea ere badira. EHUko IXA Taldekoek Wikipediarako zenbait eduki azkarrago itzultzen laguntzeko erabili izan dituzte, adibidez.

Adimen Artifizialari buruz asko esan ohi da, baina behintzat lehen fasean baliagarria izango da lan automatikoak desagerrarazi eta sorkuntzari lotutako gizakion lana errazteko. Jada zenbait hedabidetan, datuetan oinarrituz albiste sasi-automatikoak sortzeko erabiltzen da, gero horiek kazetari batek moldatzen baditu ere.

Gauzekin ere hitz egiten hasi gara, baina ulertuko gaituzte? Aspaldi dute iPhone mugikorrek Siri izeneko ahots morroia. Googlek badu berea, «OK Google» esan eta aktibatzen dena telefonoan, nahi duguna eskatzeko. Orain gure mugikorretatik harago joan eta etxeetaraino ere iritsiko dira; Google Assistant berriak, Google Home mikrofonodun gailu batekin, edozein gauza ahoz egiteko aukera emango omen du. Ea horrek ere euskaraz dakien.

Urrutiegia joan gabe, baina transhumanismoan pentsatzen hasi

Orain gailu direnak, gure gorputzaren parte edo laguntza izango dira aurrerantzean. Neil Harbisson (harbisson.com)

da *cyborg* izendapena lortu duen lehen pertsona. Bistako arazo bat konpontzeko, antenatxo txiki bat lotu dio garezurrari. Cyborg Project bere proiektuarekin lotuta, aurrerantzean ere gizakiok dugun sena gainditzeko duten zentzumen berriak garatu nahi ditu orain: atzera begirada, saguzarren moduko ekolokalizazioa edota iparrorratzaren antzeko sena.

Teknologia horiek, orain arte, gizakiok ditugun arazoak edo gabeziak konpontzeko erabili badira, etorkizunean funtzio berriak asmatzeko erabiliko dira. Hizkuntzari lotuta, badira adibide interesgarriak. *Panglos* delakoa, adibidez, edozein hizkuntza hartu eta edozein hizkuntzatarara itzultzeko aukera ematen duen zientzia fikzioko tresna, ez da iritsi oraindik; baina 2017rako Pilot proiektukoek entzulearen noranzkoan hizkuntza itzultzeko aukera emango duen gailua garatu nahi dute. Euskara ezagutzeko aukerarik izango duen ez dakigu, baina bide horretan jarri behar dugula argi dago, berandu izan aurretik.

Zientzia fikzioa etorkizuna amesteko edo saihesteko tresna paregabea da, baina aipatutako teknologia gehienak hemen eta oraingoak dira. Ez da Pilot izango, baina Interpres.io proiektu euskaldunak, adibidez, gailu mugikorrez baliatuz, badu interpretaziora baino leku gehiagotara iristeko helburua. Etorkizunaren nostalgia izateko garaiak dira, baina horretarako orain eta hemen hasi behar dugu lanean. 🍷



#Emmanuel Radnitzky

Jakin •eus
herria kultura hizkuntza

Tolosa hiribidea, 103-1.C
20018 DONOSTIA
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

